

OÑATIKO ZAINZAILIEN GENEALOGIA FEMINISTA BAT (1950-2020)

Selma Huxley Barkham bilduma

ISBN: 978-84-921814-4-5



9 788492 181445



BIZITZAK ERDIGUNEAN

2

# Bizitzak erdigunean:

## Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista bat 1950-2020

Miren Aranguren Etxarte  
Jone Arrazola Maiztegi







**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Argitalpen honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**Selma Huxley Barkham bilduma**

– 2 –

Miren Aranguren Etxarte  
Jone Arrazola Maiztegi

**Bizitzak  
erdigunean:**  
**Oñatiko zaintzaileen genealogia  
feminista bat  
1950-2020**



Selma Huxley Barkham bilduma  
2. alea

© Egileak: Miren Aranguren eta Jone Arrazola  
© Argazkiak: Oñatiko Udal Artxiboa, Gure Gipuzkoa, Jone Arrazola, Ugarte-Murua eta Pico-Ugarte sendiak.  
Argitaratzailea: Oñatiko Udala

L.G.: D-00571-2021  
ISBN: 978-84-921814-4-5

Osaketa grafikoa: Zirrimarra estudio grafikoa (Andoain)  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak SL

Zaintzak sostengatzen du bizitza; zaintzarik gabe ez dago bizitzarik. Historia jendearen bizitzen eta bizitakoen errelatoa omen da, baina ez dago errelatorik, ez historiarik, bizitza horien zaintzaile-rik gabe. Zaindu eta zaintzen gaituztelako gara, eta zaintzari esker da historia.

Alabaina, kontakizunak batzuen ahotsak eta bizitzak jasotzen ditu. Errelatoak ez dira neutroak. Egiatzat aurkeztutakoarekin osatu izan dira istorioak eta historia. Gutxi batzuen aurpegiak dituzte, eta beste askoren izenak eta izanak itzalean mantendu izan dira. Baina beste horien istorioak ere badira gure historia, horiek ere egin dute garena, horiek ere egin gaituzte.

Bada, gure historia berreskuratu eta berridazte horretan dihardute, etengabe, feminismotik. Horren adierazle, esku artean duzuen ikerketa lan hau, *besteak* dituena hizpide eta protagonista: zaindu gintuzten eta zaintzen gaituzten emakumeak, azterlanaren egileek dioten bezala, “esku urratu, bihotz handi, bizkar oker eta aho txiki-koak”. Balio bezate, bada, orriok itzalpeko istorioei argia emateko. Eta balio bezate, baita ere, zaintzen gainean hausnartzeko, zaintzen auzia erdigunean jartzea ezinbesteko zaigun honetan.

Hala, Oñatiko Udalak, Selma Huxley Barkham bekaren baitan, izen bereko liburu-bildumaren bigarren ale hau aurkezten du. Liburu honek emakume zaintzaile horien bizipenak, barne-gatazkak, errealitateak, ukoak, istorioak eta historia azaleratzen ditu ikuspuntu feministatik, eta emakumeok eginiko ekarpen ezinbesteko eta ukaezin hori aitortu eta historiaren bestelako errelato eta ahotsei bide ematea du helburu.

IZARO ELORZA

OÑATIKO ALKATEA



# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>11</b>
1.1 Helburuak.....	13
1.2 Metodologia .....	13
<b>2. OÑATIKO ZAINZAILIEN HURBILPEN TEORIKOA</b> .....	<b>19</b>
2.1. Zer dira zaintza lanak? .....	20
2.2. 1950-2020. Oñatin zer? .....	23
<b>3. AMATASUNAK: Tradizioa eta askatasuna sokatiran</b> .....	<b>27</b>
3.1. OÑATIKO ANDREEN GENEALOGIA .....	27
3.1.1. Basa .....	27
3.1.2. Etxeko aingerua .....	30
3.1.3. Emakume langilea .....	33
3.2. MUGIMENDU FEMINISTA: SORRERA ETA ERROTZEA .....	35
3.2.1. Lanaren banaketa sexuala .....	38
3.2.2. Feminismoak eta amatasuna .....	41
3.2.3. Hazkuntza naturala gaur egun.....	42
3.3. AMA NAIZ. ETA ORAIN ZER? .....	44
3.3.1. Ama ez da jaiotzen, egin egiten da .....	44
3.3.2. Haurdunaldia .....	46
3.3.3. Ereditzea .....	47
3.3.4. Edoskitzea .....	49
3.3.5. Inork ez zidan esan, ama izatea zein nekeza den .....	51
3.3.6. Kontziliazioaren tranpak .....	54
3.3.7. Ibilbide profesionala eta diru kontuak .....	57
<b>4. ZAHARRAK BERRI: etxetik kanpoko zaintzaileen ibilbideak</b> .....	<b>63</b>
4.1. NESKAMETZA: FEMINITATEAREN KATEAN GORA .....	63
4.1.1. Nagusi eta etxekoandrearekin harremana .....	66
4.2. ETXEKO LANGILEAK AGERTOKIRA .....	68
4.2.1. Lan izaera aitortzeko beharra .....	69
4.2.2. Langile identitatearen premia .....	70
4.2.3. Migrazioaren aldaeren eraginak .....	70
4.2.4. Etxeko zerbitzuaren arauketa .....	71
4.3. ZAINZTA KRISIA: BETIKO LEPOTIK BURUA .....	73
4.3.1. Zer da zaintza krisia? .....	74
4.4. ETXEKO LANGILEEN BIZI ETA LAN BALDINTZAK .....	76
4.4.1. Lan harreman zaildua: enplegatzaileak eta langileak .....	77
4.4.2. Migrazio prozesuak .....	78
4.4.3. Ezkutuko lana, prekarioa eta baliorik gabekoa .....	79
4.4.4. Lan baldintzak .....	81
4.4.5. Bortizkeriak zeharkatuta.....	83
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	<b>87</b>
<b>6. ERRESISTENTZIAREN LORATEGIA. Malen Ugarte Irizar</b> .....	<b>91</b>



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Arl005518.

## 1. SARRERA

Gizonak mintzatu dira, luzaro, gure herriko ondareaz, memoriaz, historiaz. Haiena izan da egia, objektibitatea, neutraltasuna. Eta horrekin eraiki dira jendarte guztientzako balioak, usteak eta ikusmirak. Unibertsala egin dute beren ikuspegia eta kontakizun bakarra. Alabaina, mundua ez da haien orbitan soilik biratu; hots, itzalean mantendu diren hamaika istoriok ere osatu dute gure errealitatea. Askotariko bizipenez josiak, ezkutuan iraun duten orotariko pasadizoez ehunduta. Horregatik, begirada feministak akuilatuta, *besteak* ditugu hizpide ikerketa honetan: esku urratu, bihotz handi, bizkar oker eta aho txikikoak. Askotariko zainzaileak, finean.

Geure gogo-gorputzekin murgildu nahi dugu hamaika emakume anonimo horien esperientzietan. Mugimenduan jarri ditugu haien bizipenak, eta erein zutena jaso nahi izan dugu. Haien larruan sartu, bizi eta askatasun grina eten ez dadin, katebegi bilakatu. Bizitzari arretaz begiratu, artatu, bizitza eman eta mantendu zuten horiek ekarri nahi ditugu gogora; hain zuzen, euren kontakizuna zabalduz: etxeko trapuak airatzera gatoz!

Emakumeen eremu naturaltzat hartu da euskal kulturaren zainzarena. Ez dakigu zehazki noiztik izan den hala, baina bai noiz problematizatu zuen, lehenbizikoz, pentsamendu feministak. *Pertsonala politikoa da* goiburuean, salatu zuen eraikuntza soziala dela lanaren banaketa sexuala eta zainzak gorputz feminizatuari esleitzea. Bizitzako alor guztiak, garaian garaiko eta tokian tokiko sistema patriarkal, kapitalista eta kolonialaren baitan ulertu behar ditugu: kultura, ekonomia, politika eta, nola ez, zainzak. Ibilbide horretan urrats bat eman nahi dugu ikerlan honekin.

Zaintza lanak askotariko dimentsioak barne hartzen dituzten fenomenoak dira. Ez dira gauza bat eta bakarra.



NEG12869.

Askotariko jarduera fisiko, psikologiko zein emozionalak dira. Ezinbestekoak dira bizitzaren sostengurako, eta, hortaz, zaintza lanak aztertzeak ikerketa leku paregabea eskaintzen du Oñatiko historiari behatzeko.

Zenbait teorialari eta ikerlari feministek ekarpen garrantzitsua egin diete gizarte-zientzietan, besteak beste, problematizatu baitute emakumeen bizipenak ikerketa sozialetan ez zeudela, eta, ondorioz, antolaketa soziala ulertzeko subjektuak falta zirela. Gauza bera gertatu da zaintza lanekin: ez da ikerketa objektu izan urteetan, baina feminismotik, historia bilakatzeko ahaleginean jardun du hainbatek; hau da, beharra zegoen gizonen eta emakumeen arteko botere harremanak denboran zehar eta testuinguru historikoetan nola garatu diren aztertzeak eta zaintza lanaren erregimenak nolakoak izan diren ikusteko. Ikuspegi feminista duten azterketa historikoen agerian utzi dute zaintza lanek erabateko lotura dutela gizartearen antolatzeko dugun moduarekin, eta iraganeko eta oraineko errealitateen arteko loturak aur-



Arl003919. Eroskiren inaugurazioa.

kitu dira: garai eta toki ezberdinetan adierazpide anitz izan badituzte ere, oraindik generoaren, klasearen, arrazaren, migrazio estatusaren....araberako zapalkuntzak artikulatu egiten dira. Zaharrak berri.

Aitortza ariketa da, Oñatiko emakumeen, lehengo eta oraingoan lan eskergarena. Eta berrikuspena ere izan nahi du. Zaintzari buruzko diskurtso patriarkal, erromantiko eta mitifikatuaz gain, kontakizun zintzoa eta osoa egin nahi du: bizitzaren zalantzak, ertzak, *etxe-ko trapu zikinak*, nahi eta ezinak, gatazkak zein kolektibotasuna edota elkarrekikotasuna nola hezurmamitu dituzten azalduko dugu. Finean, zaintza lanetan murgilduta bizi izan diren langileen egoerarekin fidela izan nahi du lanak: maitasunaren pozaz harago, zaintzan aritzearen azkurak, kontraesanak eta minak ere azalaraziko dituen.

1950etik 2020ra arteko askotariko emakume zaintzaileen genealogia ondu dugu, euren hainbat bizi esperientzia eta munduan egoteko moduen ertzak jasota: generoa, klasea eta arraza ardatz. Bi ildo ditu etnografiak: bata, neskameetatik hasi eta etxe-ko langileetarainoko genealogia da; besteak, XX. mendeko etxe-koan-

dreak eta gaur egun hazkuntza naturalaren alde egiten duten amak lotzen ditu.

Hainbat galderaren erantzunak jaso dira: zein bizitza irudikatzen zuten XX. mendearen erdiko Oñatiko emakumeek gazte zirela? Nola iritsi dira beren bizitza besteak zaintzen ematera? Zein neurritan erabaki dute eurek bizimodu hori izatea? Non eta nola ikasi dute zaintzen? Neskametzaz, etxe-koandre izateaz, amatasunaz zer kontatu zieten eta zer ez? Eta egungo amei zer amatasun eredu inposatzen zaie? Nola gauzatzen da hazkuntza naturala gaur egun? Bukatzeko, zerk egin ditu zorionsu emakumeok, eta zerk hondoratu? Gaur-gaurkoz, zer zaie erraza herriari kontaktzen eta zerk eragiten die korapiloa eztarrian?

Zaintza barik ez badago bizitzarik, zaintzaile gabe ez genuke gaur egungo Oñati ezagutuko. Euren bizitzak besteenak bezain baliotsuak dira eta besteak zaintzea bezainbeste behar dute zainduak izan. Gure bizitza zaugarria da eta, ondorioz, menpekotasuna ez da istripuz gertatzen den zerbait. Menpekotasuna sozialki eratu dugun kontzeptua da, eta gure zaugarritasunaren adierazle. Izakiok komunean dugun ezaugarria da,

etengabeko hartu-emanen bizi behar dugu eta, horregatik, ezinbestean zaindu behar dugu bizitza. Menpekotasuna unibertsala da, eta zaintzak, horrenbestez, derrigorrezkoak. Hartu-eman hori ez da orekatua izan generoari, klaseari eta arrazari dagokionez; etxeko lan banaketak ez dira parekideak eta, beraz, bidegabea izan da eta da, oraindik ere, emakume askoren patua.

Zaintza gutxiesten den jendarte honetan, injustiziarekin eta gatazkarekin bizitzen, eta tarteka, horri aurre egiten ikasi duten emakumeen etnografia bat da esku artean duzuna. Balio beza honek joan direnen aitortza eta bizi direnen erreparazioa aldarrikatzeko, bai eta etorriko direnen bizitza bizigarriak eraikitzeke ere.

## 1.1. Helburuak

Lana Oñatin kokatu dugu; halaber, ikerketan jaso duguna Euskal Herriko beste herrietako zainzaileen egoeraren isla ere bada. Oñatiko ekonomian zaintza lanek izugarriko presentzia, zentralitatea eta garrantzia izan dute, eta horien balioa nabarmentzea izan da ikerlanaren helburu nagusia.

Esan bezala, orotariko profilak aztertu ditugu, eta 1950etik hasi eta gaur egun arteko zaintza lanen berezitasunak eta antzekotasunak identifikatzeko saiakera egin dugu, zainzaileen ikuspegitik betiere; izan ere, zaintzak kokatu egin behar dira, ezin dira espaziotik eta denboratik at definitu, antolaketa sozial eta ekonomiko zehatzean lurreratu behar dute. Horregatik garai bakoitzean izan dituzten ezaugarriak aletu ditugu, eta, era berean, historikoki mantendu diren oinarriak ere agerian utzi ditugu. Agerian geratu da azken mendean zainzaileen eremua feminizatuta egon dela, eta klaseak zein migrazio prozesuak zeharkatuta.

Ez dago zalantzarik zaintza lanak eremu gatazkatsua direla eta baldintza bidegabeetan garatu direla. Baina izan baditu ahalduntzerako aukerak itzalean. Horregatik, emakume horien guztien erresistentzia estrategiak zein izan diren identifikatzen saiatu gara, etorkizunean ere balio dezaten.

Lau kolektibo nabarmendu ditugu ikerketan. Batetik, XX. mendeko etxekoandreak daude: emakume guztiak izan dira alaba, ama, izeba, amona, ahizpa edo arreba. Ikuspegi horietatik etxekoandreen betebeharrak eta genero identitatea nola aldatu diren ezagutu dugu. Horien ondorengo gisa, egun hazkuntza naturalaren aldeko hautua egin duten ama gazteak daude. Bestetik, neskameak daude: 50eko hamarkadan, gazte zirela,

etxetik kanpora zerbitzatzera joandako emakumeen lekukotzak jaso ditugu. Horien ondorengoak dira etxeko langileak: frankismotik aurrerako etxeko zerbitzuaren alorrean enplegatzen diren bertako zein migranteen errealitatera hurbildu gara. Alegia, etxekoandreak, gaur egungo ama gazteak, neskameak eta etxeko langileak.

Guztiak zaindu dute, eta guztiak ezagutu dute zaintza lanek barne hartzen duten lan zama. Hala ere, guztiak ez dituzte zaintza baldintza, baliabide eta aukera berdinak izan, eta hori ere agerian uzten saiatu gara. Estatuaren eta gizonezkoen erantzunkidetasunak guztiz baldintzatzen du emakumeon askatasuna eta zaintzarako esku-bidea. Urrats asko emateke dauden honetan, Oñatiko emakumeontzat, zaintzeak inposizio moral, kultural, sozial eta ekonomikoa izaten jarraitzen du, zoritxarrez.

## 1.2. Metodologia

Oñatiko zainzaileen egoerara gerturatzeko, lehenbizi gure kokalekua zein den argitu beharra dugu; izan ere, bakoitzaren kokalekuak eragina izan du zainzaileen egoera, haien kontakizunak eta bizipenak interpretatzeko garaian. Jarraian gure bizi- eta zaintza-ibilbideak:

**MIREN ARANGUREN ETXARTE** naiz, 1981ean Iruñean jaioa, baina badira 12 urte Zarautzen bizi naizela. Soziologiako ikasketak egin nituen, eta gerora, teoria eta praktika feministan sakontzeko asmoz, hainbat ikastaro labur edo luzeagoak egin ditut, tartean Berdintasun masterra. Gaztetatik ibili naiz herri mugimenduetan militatzen, nire baitan sentitzen nituen zein inguruan ikusten nituen bidegabekeriak eta injustiziak aldatzeko; izan ere, taldean hausnartzea, ikastea eta lan egitea izan da nire amorrua zein poza bideratzeko kanal nagusia. Aspalditik erabaki nuen ez nintzela ama biologikoa izango, eta urteak daramatzat emakume oso eta errealizatu gisa ikusten ez nauten begirada horiei aurre egiten. Zaintza lanak, ordea, gertutik bizi izan ditut: gaztetan haurtzain jardutea izan zen xox batzuk eskuratzeko neska gazte bezala eskaini zitzaizkidan aukera bakarrenetakoa, eta, azken urteak, nire aitona-amonen zaintzan inplikaturik egon naiz, nire amak zuen karga arindu nahian. Gogo-gorputzean daramat amaren zauria, milioika emakumek munduan duten zaintza lanen derrigortasunaren arrastoa.

**JONE ARRAZOLA MAIZTEGI** naiz. 1995ean Oñatin jaio nintzen eta bertan bizi naiz. Gizarte eta Kultur Antropologia Gradua ikasi nuen eta ondoren Genero Berdin-



Ona002987.

tasunean trebatu naiz. 16 urterekin hasi nuen militanzia feminista, Pototak taldean. Kontzientzia feminista dudanetik, emakume guztion bizitzen alde borrokatzen naiz. Zaintzaile ugari eta, ama eta aita, izan ditut haurtzarotik. *Buztanikaria* ei nintzen txikitan, etxean langile fina izan naizela esaten didate, nire amamaren ispilu. Neska ona izateko, besteez arduratzen erakutsi didate. Lan egin dut, doan eta ordainduta, zaintzan. Horrek eman eta kendu didanaz gogoeta egiten dut, eta lanok birbanatzeko eta balioesteko premia larria ikusten dut, gutxi-asko, Euskal Herriko emakume guztiengan. Baina, ikusteko, ikusi gura behar da.

Lan hau egiteko, beraz, Euskal Herria feminista eraikitzeke dugun desio zein konpromisotik abiatu gara. Aldaketa sozialak bultzatu nahi ditugu jendarteko eremu guztietan, eta zalantzarik gabe uste dugu zaintza lanak palanka egin dezaketela hori lortzeko. Horregatik ez gara mugatu zaintzaren inguruko diskurtso orokorrak islatzera, baizik eta gu guztion ahalduntzeko lagungarriak izan daitezkeen ardatzak biltzen saiatu gara. Era berean, gure baitan artikulatzen diren zapalkuntzak eta botere dinamikak aitortu nahi ditugu. Euskal Herrian jaiotako emakume zis-ak gara, langile klasekoak, euskaldunak eta zuriak. Oraingo, zaintza ardura intentsi-

borik ez dugu izan guregan, baina zaintzaile eta etorkizuneko ama on izateko hezi gaituzte. Gure gorputzean daramatzagu gure aurreko eta ingurukoek, amonek, amek, ahizpek, bizilagunek pairatu zituzten diskriminazioak, izan zituzten aukera zein oztopoak eta, noski, guk geuk gure bizitzan zehar jaso ditugunak. Horrek baldintzatu du gure begirada, eta ikuspegi feministaz saiatu gara fintzen eta osatzen.

Ikerketa metodo etnografikoa lehenetsi dugu horretarako. Gure ikerketa kualitatiboa izan da, testuinguru zabalago batekin harremanetan jarri dugulako, hain zuzen ere, Euskal Herriko zaintzaileen ibilbidearekin zein zaintza lanen antolaketa bidegabearekin.

2020ko otsailetik 2021eko martxora bitarte egindako etnografia lana izan da, COVID-19aren krisiak erabat eragindako testuinguruan. Pandemiak erraztu digu dokumentazio lan sakonagoa egitea, irakurtzeko tartea izatea, baina landa-lana atzeratu eta denboran luzatu behar izan genuen, babes neurriak errespetatzeagatik. Elkarrizketarekin telefonoz, watsapez eta aurrez aurre egon gara azken sei hiletan.

Etnografia eginez, orotariko diskurtso eta esperientzia errealetan oinarritu dugu lana. Batetik, Oñatiko azken hamarkadetako ibilbide politiko, ekonomiko eta kulturean sakondu dugu, herriaren berezitasunak jasotzeko. Bestetik, lehen eskutik jaso dugu 9 zaintzaileen esperientzia: elkarrizketa sakonak izan dira lanaren ardatza. Pertsona bakoitzarekin bi elkarrizketa saio egin ditugu: lehenengoa baliatu genuen elkar ezagutzeko eta bizi-historiaren teknikaren bidez, pertsona horren zaintzaile identitatea kokatzeko. Bigarrean, berriz, sakondu genuen, bai zaintza eta etxeko lanen zehaztasunetan, baita emakume zaintzaile gisa ahalduntzeko baliatu izan zituzten estrategietan.

Oroimena eta bakoitzaren oroitzapenak aztertuz, ikeritu ditugu Oñatiko zaintzaileen subjektibotasunak, uste baitugu ahozko iturrien elementu baliotsuena dela gogoratzen denaren eta gogoratzen duenaren subjektibotasuna. Bederatzi bizi-esperientzia baliotsu bildu ditugu, sekula jaso barikoak eta biziak, euren eskuza-baltasunari esker.

Ahozko historietan oinarritu gara, uste dugulako oraina zabaltzen laguntzen digutela, eta iraganari zein etorkizunari oinarri sendoagoak jartzen dizkietela.

Jaso ditugunak ez dira kontakizun amaituak, baizik eta kontakizun aldakorak, isiluneek, kontraesanek eta ahanzturak zeharkatzen dituztenak. Ez dira hasi eta bukatzen diren denbora lerro linealak, eleberrietan bezala hasiera, trama eta amaiera zentzuduna dituztenak; elkarrizketak gauzatu diren momentu ezberdinetan, pasadizoak moldatzen joan dira, hutsuneak nabarmendu dira eta ahaztutakoak agerrarazi. Horrek eman dio, hain zuzen, etnografiari balioa eta indarra; izan ere, ikerketaren bidez, iraganeko edota orainaldiko emozioak gogoratzea norbere burua birsortzeko aukera da, baita ahalduntzekoa ere.

Aurretik esan bezala, lau zaintzaile kolektibok osatzen dute etnografia. 4 kolektibo, hamaika esperientzia, bederatzi emakumeren ahotan. Askotariko zaintzaileak gurutzatzen dira gorputz horietako bakoitzean. Izan ere, batzuek hainbat kolektibo gorpuzten dituzte, aldi berean edo bizitzako aro ezberdinetan.

❖ **Itziar.** 1982an Oñatin jaioa. Okupazio Terapia, Heziketa Bereziko Magisteritza eta Haur Hezkuntzako Magisteritza Graduak ditu. 4 eta 2 urteko haurren ama biologikoa da. Amatasunak feminismora gerturatu du eta, 4 urte eszedentzian egon ondoren, bere autonomia eta "nia" berreskuratzeko desira du.

❖ **Maidar.** 1985an Oñatin jaioa. Bigarren mailako ikasketak ditu eta fabrikako peoia da lanbidez. 31 urterekin izan zen lehenbizikoz ama: 4 eta 2 urteko semeak ditu. Ama izatean sentitu du zoriontasun erabatekoa; baldintzarik gabe maitatzen ikasi du, baina ez du maitasun erromantikoa sinisten.

❖ **Amalia.** 1983an, Oñatin jaioa. Giza Elikadura eta Dietetika ikasi zuen. 2 haurren ama da: 6 eta 3 urte dituzte. Eszedentzia hartu zuen bi semeak zaintzeko; artean kooperatibako langile zen eta "kooperatibatik irten behar izan nintzen, birkokatze aukerarik ematen ez zidatelako". Ama izatea bere bizitzako lan betegarriena baina zailena iruditu zaio. Egun, Bigarren Hezkuntzako Irakasle Ikasketak bukatu berri ditu eta enplegu bila dabil.

❖ **Pili.** 1950ean jaio zen Oñatiko auzo batean. 17 urterekin neskame aritu zen urte eta erdiz. Gero fabrika eta merkataritzan lan egin zuen. 26 urterekin ezkon-



Ona003020.

du, enplegua utzi eta etxeoandrea izan da. 2 alaba izan ditu eta bi pertsona zaindu ditu, jaiotzatik heldu arte; bere seme-alabak balira bezala. Orain, amama ere bada.

❖ **Maria.** 1947an jaio zen Oñatiko auzo batean. 14 urterekin haurtzain aritu zen kaleko etxe batean eta gero, beste 4 urtez beste etxe batean. Fabrika bi urtez lan egin zuen eta 22 urterekin, haurdun zegoela, ezkondu egin zen. 4 seme-alaba izan zituen, gazteegi orain pentsatuta. Haurrak hazita, haurtzain jardun du hainbat urtez. Orain, amama ere bada.

❖ **Naia.** 1958. urtean jaioa. Oñatiko auzo batean jaio zen. 19 urterekin izan zuen lehen semea, hiru urtera bigarrena. Banandu egin zen eta Andaluzian bizi izan zen. Haurrak han hazi zituen, bizimodu berria hutsetik sortzearekin batera. Orain 20 urte Oñatira itzuli zen eta, harrezkero, Etxez Etxeko Zerbitzuko langilea da.

❖ **Sdenka Huaranca Torres.** 1964an, Boliviako Tupiza herrian jaioa. Feminista, anarkista eta Mujeres Creando mugimenduko kidea da. 2006an Madrilera



Ona001532. 1971.

migratu zuen, eta 2014an Oñatira. Urteotan, etxeko langile *interna* eta *externa* modura aritu da eta, egun, Arrasateko Zaharren Egoitzako laguntzailea da. “En Oñati soy una chacha que piensa, propone y se organiza.”

❖ **Pilar Irizar.** 84 urte. Olabarrieta auzokoa. Neskame jardun zuen 3 urtez medikuarenean eta, gerora, hainbat senideren etxeetan. Etxekoandrea eta nekazaria izan da eta lau seme-alaba izan ditu.

❖ **Esperantza Lizarralde.** 91 urte. Olabarrieta auzokoa. 10 urtez neskame aritu zen Frantzian, gero Barzelonan erizain gisa lan egin du eta Donostian bizi izan da. Ezkongabea, hala nahi izan duelako. Egun, Oñatin bizi da.

Beraz, ahozketasunaren bidez iritsi gara zaintzaileen egoerara: haien ahotik jasotako diskurtso eta kontaki-

zunaren bidez ondu ditugu zaintza lanekiko orotariko esperientziak. Bizitzatik oroimenera salto egin duten elementuak jaso ditugu elkarrizketen bidez, eta, ikertzaileok, gure talaiatik, genealogia forma eman diegu zaintzaileen bizipenei.

Jarraian duzue elkarrizketatuen zerrenda, izenik gabea da, ordea; izan ere, garrantzitsua izan da haien anonimotasuna bermatzea zaintza lanak, oraindik orain, eremu intimoarekin lotzen jarraitzen ditugulako eta bizipen ugari gatazkatsuak direlako, sarri asko. Gainera, jaso ditugun norbanakoen ahotsak, ahots kolektiboa dute atzean: alegia, emakume anitzen bizipenak dira, 1950etik gaur egun arte zaintzaileen rola bete behar izan duten emakumeen oihartzunak dituzte.

Sei zaintzailek euren izenak gordetzearen alde egin dute, eta hori gaur egungo egoeraren ispilu argia da: etxeko kontuak zerbait pribatua direla uste da, oraindik ere etxeko trapuak airatzearen sentipenak lotsa, kulpa eta epai sozialaren beldurra dakartza. Bada zaintzaile bat, era berean, zaintza lanen izaera politikoaz jabetuta dagoen neurrian, bere izenez agertu nahi izan duena. Azkenik, beste bik euren izena agertzearen alde egin dute, euren lanari aitortza egiteko modua dela iritzita. Hala ere, elkarrizketatu guztiek izango dute aukera, prest dauden neurrian, lan honen parte izan direla publikoki adierazteko. Bidea dugu egiteke horretarako.

Elkarrizketa bat Malen Ugarte Irizarrek eginiko *Oñatiko kriaden berbetia* (2014) Gradu Amaierako Lanetik berreskuratu dugu. Kriaden lexikoa ikertzeko asmoz egin zuen lanean, 5 neskame ohi elkarrizketatu zituen, tartean Pilar Irizar. Testigantzak gure ikerketan tokia zuela iritzita, berrerabiltzearen alde egin genuen, etxekoandre eta neskamearen profila betetzen baitzitu.

Elkarrizketatuek esandakoak bere horretan transkribatu ditugu eta hizkuntza moldaketarik gabe azalarazi. Elkarrizketak euskaraz eta gaztelaniaz egin dira, elkarrizketatuaren hizkuntza erabileraren arabera. Transkribapen literala zor zaio Oñatiko euskara islatzeari: hizkuntza mudantzarekin, adinaren arabera lexiko ezberdintasunekin, e.a.

Horregatik, gure analisi kualitatiboaren funtsa izan da erabilitako hitzak testuinguru batekin harremanetan jartzea, esangurak aztertzea, garaian-garaian ezberdintasunak eta antzekotasunak zein izan diren aztertzea. Era berean, European, Espainiako estatuan zein Euskal

Herrian gertatutako antzeko bizipenen azterketa lotu dugu teoria feministak sortu duen marko kritikoarekin; ulertzeko, orotara, emakume horiek guztiek zer esan nahi diguten eta zer isiltzen duten.

Idatzi eta agirien bide sakona garatu dugu; hots, dokumentazio lana ikerketaren beste oinarri nagusia izan da. Teoria eta mugimendu feministak eskaintako bibliografiaz gain, Oñatiko dokumentazioa landu dugu: azpimarragarriak izan dira aipatutako Malen Ugarteren ikerketa, Amagoia Gurrutxagak ondutako *Enarak* (2019) liburua, Lukene Astigarragak 1992an Oñatiko emakumeen egoera sozioekonomikoaz egindako azterketa soziologikoa, I. Selma Huxley Bekarekin Jonek, lan honen egileetako batek berak, eta Irati Garaik idatzitako "Oñatiko emakumiak errekadutan. XX. mendeko merkataritzaren genealogia feminista bat" (2019) ikerlana eta Teresa Del Valle zuzendutako "Mujer Vasca. Imagen y Realidad" (1985) antropologia lana.

Lan honen azken atala, *Erresistentziaren Lorategia*, Malen Ugartek ondu du, berak egindako ikerketa abiapuntutzat hartuta: ikerketa kaxoitik atera, hautsa kendu eta, urte batzuk igarota, bere egungo ikuspegitik berrirakurri eta balioan jartzeko ariketa egin du. Jardun du memoriaren transmisioaz, isiltasunez eta emakumeen lan eskergaz. Idatziak argazkiekin josi ditu; Ugarte-Murua sendiaren argazkiak dira guztiak, garaiko emakumeen bizimoduaren erakusgarri. Gure ikerketarekin bat zeterren sormen prozesua zela iritzita, tokia egin nahi izan diogu gure lanean. Plazera izan da elkarrekin lan egitea.

Azpimarragarria da, emakume zaintzaileen bizimodua erretratatzeko eta argazkien bidez jasotzeko egin dugun ahalegina. Oñatiko Udal Artxiboan, Jesus Mari Arzuagaren eta Andres Arlanzonaren digitalizatutako funtsen kontsulta egin dugu, baita Guregipuzkoan.eus "Oñati" atala osatzen duten bilduma ere. 1950etik gaur egun arteko emakumeen bizimoduaren adierazgarri iruditu zaizkigun irudiak jaso ditugu, idatzizko lanaren osagarri eta lagungarri direlakoan. Amatasunaren atalari lotuta, haurdunaldi, erditze, edoskitze eta hazkuntza lanak erretratatzeko dituzten argazkirik ez dugu aurkitu, argazkilarien begirada androzentrikoaren emaitza.

Hala, atal horretan kontatutakoak irudietara ekarri ditugu familia funts pribatu baten bidez: Ane Pico eta Ander Ugarteren argazkiak dira, Manex haurrarekin ateratakoak. Lan honen balio politikoarekin bat egin dutelako erabaki dute "pribatua" publiko egin eta ezkutukoa ikusaraztea. Ausarta da zuen erretratuek hitzoi irudia jartzeari; mila esker, benetan.

Ikerketa urte honetan, bidelagun izan ditugu II. Selma Huxley Bekaren epaimahaikideak. Hirutan izan dugu aukera eurekin elkartu, ekarpenak jaso eta lana bideratzeko. Gure eskerrik beroenak gaiaren alde apustua egin eta hasieratik gudan sinesteagatik.

Azkenik, gure esker beroena lan honetan parte hartu duten guztiei, Oñatiko Udalari eta herriari.



Patxi Elorza argazki funtsa-Oñatiko Udal Artxiboa


Elz000090-NEG-04-016 w .

## 2. OÑATIKO ZAINZAILÉAK. Hurbilpen teorikoa

Oñatiko zaintza lanetara eta zaintzaileen bizipenetara gerturatzeko, ezinbestean gure ohiko begirada findu behar dugu, eta ezagutzaren orotariko diziplinek eskaintzen diguten markotik abiatu. Horregatik, eta ares-tian aipatu ditugun historia, historiografia eta antropologia feministaz gain, Mugimendu Feministak urteetan ondu duen ekonomiaren bestelako ikuspegieta arakatu behar dugu. Hain zuzen ere, ekonomia feministak eman dizkigun oinarri eta irizpide berrietan.

Ekonomia feminista kritikoa izan da ekonomia ortodoxoaren ikuspegiarekin, ez baitu ulertzen ekonomia merkatua, kapitala metatzera eta enplegura mugatzen denik. Sandra Ezquerri eta Elba Mansilla ikerlarien arabera “bere ekarpen nagusia mundu sozial eta ekonomikoaren beste ikuspegi bat ematea izan da. Horren helburu nagusia da pertsonen bizi baldintzak sustatzea eta irauteko, ongizaterako zein erreproduzio sozialerako beharrezkoak diren lan guztiak aitortzea” (2017:11). Merkatutik kanpo aitortu ditu etxeko eta zaintza lanak, egunerokoan biziraupenerako ezinbestekoak diren lanak. Ekonomiaren ardatz gisa aldarrikatzen du ongi bizitzea; hots, erdigunean jartzen ditu bizitzak, pertsonak eta haien beharrak zein baldintzak.

Ekonomia feministak kolokan jartzen ditu modernitateak ekarri zuen sexuaren araberako lan banaketa eta eremu publiko zein pribatuaren zatiketa. Bereizketa uste baino lausoagoa eta aldakorragoa da. Eremu bakoitzean gertatzen denak bestearengan eragin zuzena du, eta eremu bakoitzarekin lotzen diren ekintzak garairen zein lurraldeen arabera aldatzen dira. Horregatik, eremu batean aldaketak sustraitzeko, behar-beharrezkoa da bietan aldaketak eragitea. Emakumeen egoera



NEG10771.

eremu pribatua nahiz publikoan hobetzeko, aldaketak sustatu behar dira. “Harremana dialektikoa da: zaintzak femeninoak direla sozialki eraikitzen denean lan merkatuan bereizkeriak sortzen ditu. Ondorioz, emakumeek lan merkatuan bereizkeria egoerak pairatzeak berekin dakar familiaren zaintzarako ibilbide profesionalak utzi edo lan jardunak murriztea” (Ibidem:14).

Beste gakoetako bat lanaren kontzeptua zabaltzea izan da, ekonomia neoklasikoak merkatutik at gauzatzen den oro analisiaren alde batera eta, beraz, ezkutaturik, uzten duelako. Gauzak horrela, ekonomia feministarentzat –edo behintzat guk jarraituko dugun adararentzat– ekonomiaren analisisan garrantzitsuen ez da amaigabeko metaketa, bizitza sostengatzea baizik. Beraz, lana ez da enpleguaren sinonimo, enplegutik harago doan aktibitate zabal eta konplexuago bat baizik (Larrañaga, 2013: 99).

Hortaz, lana, giza beharrak asetzeko egindako edozein jarduerara litzateke, alegia, behar horiek asetzeko egindako edozein ekoizpen ondasun edo zerbitzu (Carrasco et. al. 2000:5). Beharrez ari garenean, beraz, Cristina Carrascoren hitzetan, behar objektiboak (ondasunak, zerbitzuak: jantziak, elikadura, osasuna, hezkuntza eta abar) zein subjektiboak (afektuak zein harremanak: sozializazioa, zaintza, segurtasun psikologikoa, harremanetarako gaitasunak eta abar) genituzke (Carrasco, 2001: 3-4.).

Sozialki beharrezkoak diren lan guztiak aitortzea eta horiek analisi ekonomikoaren erdigunean jartzea izan du langai EHko Mugimendu Feministak. Enplegua izateari lotzen zaion soldata izan da jendarteko funtsezko neu-



Ona000166.

rria, hortik eskuratzen baita herritartasuna. Horrexegatik, ekonomia feministatik “munduko lan zama” terminoa proposatu da. Marina Sagastizabal eta Matxalen Lejarreta soziologoek (2016) arabera aipatu kontzeptuak soldatapeko lana eta soldatapekoa ez dena kontuan hartzen ditu, norbanakoaren zein batuketa osoaren ikuspegitik. Lana, merkatuko zein kanpoko lanek osatzen dute, eta elkarri lotuta daude.

Alde horretatik, zaintza lanen eta etxeko lanak esplizitu egitearen alde egin da ekonomia feministatik. Ereku produktiboak protagonismo erabatekoa izaten jarraitzen du, eta guztiz baztertuta bizitzen zaintzari lotutako eremu pribatua. Emakumeak gailentzen dira azken horretan eta lan merkatuan diskriminazio eta prekarietate gehien sufritzen dute. Nahiz eta urteetan, Mugimendu Feministaren aldarrikapena izan emakumeen lan merkaturatzea, eta horrekin lotu, bai independentzia ekonomikoa, bai genero roletatik ateratzeko bidea, lan merkatuak ez du emakumeen egoera errotik aldatu. *Gure genealogia feministak* (2015) liburuan jasotzen da: “feministek pentsatu zuten lan munduan sartzeak eta soldata eskuratzeak autonomia ekarriko zuela, eta aukera berdintasuna bermatzeko urrats garrantzitsua izango zela. Gainera, familia eredu ere auzitan jarriko zuela pentsatu zuten, harreman ekonomikoak eta gizonen pribilegioak baldintzatuko zituztela. Baina ez zen horrela izan” (ibidem: 500).

Ekonomia feministak egin duen beste ekarpen garrantzitsua zaugarritasunarekin eta interdependentsiarekin lotzen da. Horiek gizakiaren ezaugarri komunak direla aldarrikatzen du. Sistema kapitalistak langile independentearen irudia indartu du, alegia, *Homo eco-*

*nomicusarena*, eta sinistu dugu ardura eta beharrik gabeko izakiak garela; izan ere, herritartasuna ere independentzia eta autosufizientziarekin lotu da. Amaia Perez de Orozcori aditu diogu “langile barregarria” terminoa; hau da, lan merkatua beharrik eta ardurak asetuta iristen den langilea. Barregarri gisara agertzen da langilea (orobat, gizonak) enpleguan edota eremu publikoan eta, hortik ateratakoan, desagertzen da. Lan merkatuaren logikan ez dugu izakien arteko loturarik, ez elkarren beharrik, eta gure bizitzek ez dute bestelako premiarik. Lortu beharreko balio bilakatu da independentzia indibiduala; ekoizti behar dugu, eta kitto.

Zaugarritasuna eta menpekotasuna, al-diz, ez dira halabeharrez gertatzen. Menpekotasuna sozialki eratu dugun kontzeptua da eta biztanleriaren sektore zehatz batzuekin lotu izan dugu. Normalean haurrekin, gaixoeekin, desgaitasuna dutenekin eta zaharrekin lotzen dugun terminoa da. Hala ere, gure zaugarritasunaren adierazlea da menpekotasuna. Izakiok komunean dugun ezaugarria da, etengabeko hartu-emanen bizi behar dugu eta ezinbestean zaindu behar dugu bizitza. Menpekotasuna unibertsekoa da, eta zaintzak, horrenbestez, derrigorrezkoak. Erabateko autonomiaren ideia desagertzen denean, gizartean egiten dugun banaketa lausotu egiten da. Ez daude zaintzak behar dituzten pertsonak eta behar ez dituztenak. Ondorioz, zaintza lanek gizartearen erdigunera egiten dute salto. Guztiok behar ditugu, bizitza guztian zehar.

## 2.1. Zer dira zaintza lanak?

Zaintza lanak aztertzeak toki paregabea eskaintzen digu genero, klase zein arraza bereizkeriak nola artikulatzen diren ikusteko. Gainera, lan horiek eraikuntza sozial gisa ulertzeak laguntzen digu ikusten zaintzek, kontzeptu analitiko bezala, dituzten mugak eta potentzialitatea (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011).

Mugimendu Feministak ere adierazi izan du terminoa definitzeko zailtasunak daudela. Zaintzak Erdigunean Koordinadoraren oinarri ideologikoan (2020) aipatzen da ez dagoela zaintzen definizio bakarra eta itxia. Horren arabera, hainbat aldagaik ezaugarritzen dute haren pertzepzioa eta ulerkerak: 1) nork egiten dituen eta nork jasotzen dituen, 2) egitura sozioekonomikoan zaintzak ematen eta jasotzen dituztenek betetzen dituzten posi-

zioak, 3) nola egiten diren, zein baldintzatan, zein aitortzarekin, eta, azkenik, 4) zer ondorio eta inpaktu sortzen dituzten bizitzetan, gorputzetan eta lurraldeetan.

Zainketen mataza askatzeko ahaleginean, erantzunak eman baino gehiago galderak egiteko unean dago: zaintza lanak mendekotasunari (adinekoei, adingabeei eta arreta premia bereziak dituztenei) bakarrik lotzen zaizkio? Gizakien bizitzan besterik ez da zentratzen? Munduko zein toki eta garaitan? Ordaindu ditzaketen eskura al daude soil-soilik? Beste salgai mota bat izan daiteke? Dena sartzen da zainketen “zakuan”? Zer dira zaintzak eta zer ez? Zein muga publiko-pribatu-intimok hartzen, gordetzen edo preso hartzen dituzte? Zainketek kulturako esparru guztiak zeharkatuko lituzkete? Zergatik ez da zaurgarritasuna onartzen?

Mari Luz Esteban antropologoaren arabera ezin dira espaziotik eta denboratik at definitu, antolaketa sozial eta ekonomiko zehatzean lurreratu behar baitute (Abasolo, 2010). Horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu Oñatiko errealitatean zaintza lanek izan dituzten esangurak aztertzea. Dena dela, akademian eta mugimendu feministan izan den eztabaida historikoaren ondorioz, baditugu hainbat esanahi analisirako baliagarriak zaizkigunak, baita termino zehatzak ere:

Batetik, zaintza lanak esanahi subjektibo eta emozionalak barne hartzen ditu, eta aldagai horiek bereizten dute lan neurtu eta ordaindutik. Horrek, era berean, zaildu egiten du horiek kuantitatiboki aztertzea, gero azalduko dugun moduan.

Bestetik, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) zaintza lanak garrantzi handiko lantzat ditu. Bi aktibitate nagusi lotzen ditu zaintza lanekin: zaintza zuzena, pertsonala zein erlazonala (ume bati jaten ematea, gaixo baten zaintza...) eta zaintza ez-zuzena (sukaldean aritzea, garbitzea...). Pertsona bat edo askoren behar fisiko, psikologiko eta emozionalak bermatzeko lanak barne hartzen dituzte zaintza lanek eta ordaindutakoak edo ordaindugabeak izan daitezke. Soldatapekoak diren lanak zaintza beharginek egiten dituzte eta ordainsari edo irabaziren bat jasotzen dute trukean. Askotariko zerbitzu pertsonaletan (haurtzainak, zainzaileak, zahar etxeetako erizain laguntzaileak) jarduten duten horiek sar ditzakegu kategoria horretan. Soldatapekoak ez direnek, aldiz, ez dute jasotzen ordainsaririk (nahiz eta Espainiako estatuan Mendekotasun Legetik eratorrita



Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Ona001756.

hainbat laguntza ekonomiko ere egon). Lanak dira, eta horrexegatik lanaren dimentsio osoan sartu beharrekoak (2018).

Zaintzak, finean, egunerokoan bizitza zein osasuna mantendu eta kudeatzeko lanak dira. Norberaren gorputzaren nahiz beste batzuen gorputzaren ongizate fisiko eta emozionalaz arduratzea dakar (P. Orozco, L. Gil, 2011), gure lurraldeak, komunitateak eta gorputzak gidatzeko ezinbesteko lanak dira. *Eztabaida feministarako kaierak: Zainketak* (Lleó, R., Santillan, C., Lopez, S., Perez, A., 2012) lanaren arabera, zaintzen barruan sartzen dira, halaber, afektuek eta afekturik ezak zeharkatuta dauden sexudun gorputzez arduratzeko hartzen ditugun askotariko zereginak. Zaintzaren ezaugarria da haragizko alderdi materiala izatea (gorputzak zaintzea) nahiz afektuzko alderdi inmateriala izatea (emozioak zaintzea). Jarduera bat eratzen dute, eta jarduera horren emaitza kontsumitu egiten da, egiten den aldi berean; horretan, garrantzitsuena prozesua da, eta baita sortzen den pertsonen arteko harremana ere” (ibidem:21).

Emakumeak dira zaintza lanez arduratzen direnak. Hala ere, badira zaintzekiko harremana definitzerako beste aldagai batzuk. Klaseak, arrazak edota migrazio esta-

tusak zaintza lanak gurutzatzen dituzte eta, nahiz eta emakume guztien eginkizuna izan, aukeratzeko ahalmenik izan ez dutenen esku gelditu dira zaintza lan zamatsuenak. Hala, zaintzaileen genealogiak aztertzeko, aintzat hartzen dugu feminismo dekolonialak egindako kritika: generoak soilik hitz egiten du gizon zuri esku-bidedun eta bere bikote emakume ugaltzailearen arteko harremanaz (Curiel, 2014). Klasea eta arrazak ere zeharkatu dituzte emakume zaintzaileak, eta hori gabe ezin da ulertu haien bizi-historia. XX. mendean zaindu duten emakumeak langile klasekoak izan dira, asko eta asko landa eremukoak edota herri txikietakoak, migratu zutenak/dutenak eta gazteak. Klase ertain eta altuko emakumeek negoziatu ahal izan zuten etxekotasun zikin eta neketsuaren eta emetasun natural espiritualearen arteko kontraesana (Anderson, 2000). Hala, askok uko egin izan diete zaintza lan batzuei, emakume pobreagoen esku utziz. Horrela sustatu ziren emakumeen arteko ezberdintasunak eta sortu zen neskametza. Eta



Jesus Mari Arzuaga argazki-tuntsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Oña015770.



Arl000722. 1988.

gaur egun herrialde txiroetatik Euskal Herrira etorri diren emakume txiroek dute zaintza lanen zama handia eta prekarioena.

Hala azaltzen du feminismo zuriaren logika koloniala Yuderkys Espinosa Miñosok: “Azken batean, feminismoarentzat emakume askea zer den ikusten dugunean, emakume hori bere garaiko emakumea da, modernitatekoa, hezkuntzarako sarbidea duena, profesionalizatzen dena... Oso modu lau eta sinplean esateko, familiarik, beraz, amatasunetik eta zaintzetatik askatzen den emakumea. Mundu globalaren parte den emakumea, kapitalismoak sortutako ondasunetara sarbidea duena. Eta horrek esan nahi du, jakina, nahiz eta ez dagoen hain argi, horri buruzko galderarik ez dagoelako, azpian ustiapen bat dagoela. Hori guztia zenbait izakiren esplotazioan oinarritzen da, munduko herri kondenatuetatik eta naturatik datozen emakume eta gizon gehien esplotazioan. Hitz gutxitan, feminismoarentzat lurra ereiten duen emakumea ez da inoiz emakume askearen erreferente izango. Seme-alabak izan eta seme-alabak hazi nahi dituela erabakitzen duen emakumea ez da askatutako emakumea” (Espinosa, 2019).

Neskamearen lanak emakumeentzat “egokiak” ziren lanak barne hartu ditu: garbitu, janaria prestatu, haurrak zaindu... Hala, XIX. mendean, Europan, emakumeen lan sektore garrantzitsuena neskametza izan zen: Hiru emakume europarretik bat neskame izana zen bizitzako uneren batean (McBride, 1984 in Higuera, 2014). Gaur egungo egoerak ez du oso bestelako egoera adierazten: bertan jaiotako klase ertain eta altuko gizon eta emakumeen zaintza ardurak bertako langile klaseko emakume edo txiroetako herrialdeetako emakumeen bizkar uzten baitituzte: EAEn etxeko langileen % 90 baino gehiago emakumeak dira. Erdiak baino gehiago etorkinak dira eta horien artean % 75 Hego Ameriketa-



Arl001482. 1990.

tik etorritakoak. % 25ek kontraturik gabe egiten du lan, eta gehienek *interna* gisa. EAEn lan egiten duten emakumeen % 10 etxeko langileak dira (Emagin, 2020). Horren ondorioz, esan dezakegu lan sektore oso garrantzitsu baten aurrean gaudela eta ezinbestekoa dela horien ibilbide historikoa eta gaur egungo esangurak aztertzen jarraitzea.

## 2.2. 1950-2020. Oñatin zer?

Askotariko aldaketak izan dira Oñatin 1950. urtetik gaur egun arte, eta horrek, zalantzarik gabe, eragin zuzena izan du zaintza lanetan zein zaintzaren ulerkeran. Industrializazio prozesuek, emakumeen gaineko kontzepzioek, mugimendu feministaren aldarrikapenek, erakunde publikoen politikek edota azken urteetako aldaketa demografikoek zaintza lanak eta zaintzaileen iruditeriak aldatu dituzte. Lanean zehar aipatutako aldaketetan sakonduko badugu ere, datozen lerroetan etnografiaren gako nagusiak bildu ditugu.

1950ean, frankismoaren bigarren aldiaren garai desarrollista deitu izan zaion aroan, emakumeen gaineko espektatiba zein kontzepzio ezberdinak zeuden Euskal Herrian: frankismoak urteetan bultzatutako misoginia tradizionalari aurre egiten zion baserriarekin lotutako emakume indartsuaren ideia oso errotuta zegoen, guk *basa* adiera atxiki dioguna, batetik; bestetik, pixkanaka Etxeko Aingeruaren idealetarako saltoa egiten zuen eredia zegoen.

Datozen kapituluetan ideal horiek garatuko ditugun arren, lehenek Euskal Emakume Indartsua (Llona, 2006) ordezkatzeko zuten, baserriari lotuta eta bertako lanak ez bairik gabe aurrera ateratzen zituena. Ez zen feminitatearen idealera gerturatzen, ez behintzat hedatzen ari zen etxeko aingeruaren idealera, baina euskal identitatearen ikur bilakatu ziren, euskal kulturaren adierazle gorena izan ziren landako emakumeak. *Mujer Vasca* liburuan aipatzen denez, "abertzaletasun historikoak" testuinguru erlijioso batean kokatutako euskal emakumearen irudia proiektatu zuen, landa eremu emakume idealizatu

eredutzat hartuta. Autoreak "abertzaletasun erradikala" deitu zuen horrek ere bere gain hartutako emakume eredia izan zen, nahiz eta mugimendu horrek zitu beharretara egokitzen eta sekularizatzen joan zen. Sistematikoki amaren irudiari lotua agertzen zen; hots, Ama, Amabirjina, Ama Aberria eta Ama lurra lotu zituen (Valle et.al, 1985).

Euskal Emakume Batza (EAB) izan zen idei horiek zabalteko erreminta ezinbestekoa. Funtzio erlijiosoa, politikoa eta soziala zuen elkarteak. Emakumeak familiaren balio kristauen gordailu izan behar zuen eta abertzaleak hazteko funtzioa zuen, euskara babestuz, morala gordez eta usadio onak goretziz. Horrela amatasuna abertzaletasunarekin estuki lotu zen Euskal Herrian.

Iratxe Retolazak horrela jasotzen du *Euskal Emakume Batza eta emakume idazleak* lanean: "Amatasunaren funtzio hori hiru norabidetan garatu zen EABren jardunean, beste hainbat imajinario nazionalistetan gertatu bezala: ama biologikoak, ama kulturalak eta ama simbolikoak" (Palau 2012:11, Duch 2012: 42 in Retolaza, 2012: 106). Nazioaren ikuskera abertzaleak emakumeen arduratzat jotzen zuen arrazaren iraupena. Horretarako XX. mende hasiera hartan, euskaldunekin ezkontzeko deia egin zen (eta ahal izanez gero, kanpotarrekin ez ezkontzeko aholkua hedatu), seme-alaba euskaldunak izanez arraza garbiaren biziraupena ziurtatzeko, odol garbiaren ideiarekin lotuz. 60ko hamarkadan, arrazakeria horren hondarrak soma zitezkeen euskal jendartean, hala euskal abertzaletasunean, nola espainiar nazionalismoan. Ez hori bakarrik. Ama biologikoak ere familien



Arl007998.

eta sistema ekonomikoaren sostengua ziren, haiei zegokien familiakide guztien zaintza, gerora ikusiko dugun gisara.

Ama kulturala hiru zutabe nagusitan egituratu ohi da: ohiturak, hizkuntza eta fedea (Duch 2012:42 in Retolaza, 2012: 107). Retolazaren ustez, emakumeengan jarri zen hezkuntzaren eta hizkuntzaren transmisioaren ardura. Horren adibide izan ziren etxean garatu ziren ikastoletan hizkuntzak, dantzek, kantuek eta ohiturek hartu zuten garrantzi handia (Retolaza, 2012: 107-108).

Retolazaren lanean jasotzen den legez, "ama sinbolikoaren funtzioak aberriaren ugaltze sinbolikoarekin du lotura. Ama sinbolo bihurturik agertzen da gizarte tradizionalan, Mariarekiko debozioari loturik (Ugalde, 1993:41) edo Mariren mitoarekin harremanetan (ibidem: 92). Baita bien arteko bidegurutzean ere, Aberria=lurra = herria = familia kontzeptuak pareko eginez, familiaren zaindari dugu ama, baina baita lurraren, herriaren eta aberriaren zaindari ere (...)" Ama identitatearen eta kulturaren zaindari den neurrian, harengan gordetzen dira eta harengan irauten dute euskalduntasunaren ezaugarriak. Horregatik amek (eta emakumeek) ohitura zaharren, hizkuntzaren eta fedearen ikur bihurturik, ez dute tokirik gizonen duten herritartasun eredian, ez baitute izango egiturak sortzeko edota ideiak eratzeko eskubide onarturik (Retolaza, 2012).

Zaintzaile, ama eta emazte onaren derrigorrezko rola-ekin ere du lotura Etxeko Aingeruaren idealak, baina hori ez da lurrarekin lotuko, ezta kultura zehatz baten

zaintzarekin ere. Eredu kaletarragoa da, urbanoagoa, garai desarrollista horrekin zantzu modernoagoekin lotzen hasiko dena. Etxeko egoera harmoniatsua mantentzeko ardura nagusia zuten, eta hori era bake-tsuan eta maitasunez egin behar zuten. *Oñatiko emakumiak erreka-tan* lanean jasotzen denez "Familiaren zaintza eta etxearen gobernua *misio sakratua* zen. Batetik zegoen senarra eta seme-alaben zaintza: emakumea zen seme-alaben integrazioaren eta garapen pertsonalaren arduradun nagusia. Senarrari ere bere denbora eskaini, kasu egin eta zoriontsu egiteko betebeharrak implizitua zuen" (Arrazola, Garai, 2019). Emazte, ama eta maitale on izatea zen haien zeregin gorena, eta seme-alaben zaintza zein gurasoen edo aita-amaginarrebena haien

funtziotzat hartzen zen; hots, horiek ziren emakumearen egunerokoaren ardatz nagusiak.

Hala ere, familia askok aitaren edo senarraren soldata bakarrarekin ez zuten nahikoa, eta etxetik kanpo lan egitera atera behar izan zuten. Horiek horrela, etxeko zerbitzuan aritzea izan zen haien feminitatearen mandatuekin guztiz ez puskatzeko aukera. Etxean garatu zituzten gaitasunak lan merkatura luzatu zituzten, eta genero rola ez zituzten guztiz arriskuan jarri. Orduko gizarte antolaketan, etxeko zerbitzua zen emakumeen enplegu egokiena. Askoren kasuan, gainera, hori euren etxeko eta zaintza lanekin uztartu behar izan zuten, lanaldi bikoitzaren ispilu.

60ko hamarkadatik aurrera, industria metalurgikoa zein txokolatearena garatzearekin batera, zaintza premiak ere aldatzen joan ziren. Pentsatu izan dugunaren kontra, Oñatin emakumeek presentzia publiko handia zuten eta ugari ziren etxetik kanpo, industrian, merkataritzan zein etxeko zerbitzuetan ere lan egiten zutenak. Horrek etxeetan hutsuneak sor zitzakeen eta horri aurre egiteko askotariko estrategiak erabili zituzten emakumeek: batzuek jardun amaiezinetan murgildu besterik ez zuten, eta beste batzuek, aldiz, senideen zaintza beste emakume batzuen gain utzi zuten. Aldiz, beste hainbat ezkondu eta etxekoandre bilakatu ziren, etxetik kanpoko lanak utziz; beste asko eta asko neskame joan ziren baserrietik ateratzeko, beste bizi eredu batzuk ezagutzeko (bai eredu askeagoak zein feminitate urbanoari lotutakoak) edota euren familiei ekonomikoki laguntzeko. Oñatin, garaiotan, emakume askok etxetik



Ona002317. 1983.

kanpo lan egiteko aukera izan zute; hala ere, horrek ez zituen etxekoandarearen iruditeriatik zein derrigorrezko zaintza lanetatik askatu.

1970eko hamarkadatik aurrera, emakumeen inguruko ulerkerak aldatzen hasiko dira, bereziki bi faktorek bultzatuta: bata frankismoaren amaiera, eta, horrekin batera, askatasun grina. Bestea, eta aurrekoarekin guztiz lotuta, mugimendu feministaren agerpena. Edozer egiteko ez zuten gizonen baimenik behar izango, eta arlo guztietan askatasun bila hasiko dira emakumeak. Lan merkatuan, goi mailako hezkuntzan –Oñatin, Institutua egonda, are gehiago– politikaren arloan... presentzia handiagoa izaten hasiko dira emakumeak, eta emakume eredu hiritarragoa gailentzen hasiko da, baita emakume langilearen irudia zein identitatea ere. Aurreko hamarkadetan hasitako tendentziari jarraikiz, zaintza lanak externalizatzeko joeran sakondu zen: hartzainak kontratatzeke joera zegoen, baina geroz eta emakume gutxiagok zuten horretan lan egiteko prestutasuna. Era berean, zerbitzu horrek publikoa izan beharko lukeela aldarrikatzen hasi ziren; alegia, hartzaindegia baten beharra azaleratu zen. Borroka horren emaitza izan ziren hartzaindegia ez ezik, zaharren egoitzak eta eguneke zentroak ere.

Horrek guztiak zaintza lanekiko posizioak mugituko ditu. Batzuek, lan merkatuaren aldeko apustuan, zaintza eta etxeko lanekiko katea pixka bat moztuko dute, baina beste batzuek, aldiz, ezingo dute lotura hori ekidin. Lanaldi bikoitzak, zaintza lanen externalizazioak, etxeko langileen kontratazioa, neskametzatik etxeko



Ona006550.

zerbitzurako aldaketak, familia migrazioak...izango dira garai horretan antzemango diren mugimenduak, besteak beste. Hala ere, erroan-erroan zeuden zimenduak ez dira gehiegi kulunkatuko. Erresistentziak erresistentzia eta oztopoak oztopo, Oñatiko emakumeek ere beren askatasunerako bidea abiatu zuten –horrek ez du esan nahi aurretik zirrikiturik topatu ez zutenik edo grina hori ez zutenik–.

Mugitzearekin eta mobilizazearekin batera konturatu ziren kateak bere horretan jarraitu ez arren, jendarte antolaketa ez zela errotik aldatu, eta independentzia ekonomikoak ez zela amestutako askatasunik eskaini; izan ere, etxeko aingeru izateko derrigortasunik egon ez arren, eremu pribatuak, eta, ondorioz, zaintza lanek emakumeen bizkarren gainean jarraitzen dute. Zaintzeko derrigortasuna dute emakume askok, izan bizirauteko estrategia gisa, izan horiek externalizatzeko aukerarik ez dutelako.

Horixe da XXI. mendearekin berretsiko duguna. Zaintza lanen ardurak guztiz feminizatua egoten jarraitzen du, eta horiek betetzeko askotariko estrategiak egon arren, urteetan ez dira oinarri batzuk aldatu; izan ere, zaintza lanetan nagusi izaten jarraitzen dute emakumeek, pobreek eta handik edo hemendik migratutakoek. Gainera, azken urteotan, iparralde globaleko zaintza beharrak bultzatuta zein hegoalde globaleko esplotazioak zein pobrezia bultzatuta, migrazio olatu berriak ezagutu ditugu Oñatin, eta migratutako zein arrazializatutako emakumeei eskaintzen zaien aukera bakarra zaintza lan pribatu eta prekarioetan jardutea da. Horrek zaintza lanen ardura lekualdatu bai, baina errotik eraldatu ez dela erakustez gain, zapalkuntza koloniala agerian utzi digu, eta erronka berriak mahaigaineratu.



Ona006254. 1960.

### 3. AMATASUNAK: Tradizioa eta askatasuna sokatiran

#### 3.1. Oñatiko andreen genealogia

Etxean lan egiten duen andrea edo etxeko emakumezko jabea da etxekoandrea. Euskal jendartean gehienbat lehen esanahiarekin erabili izan da adiera hori, XX. mendean, batez ere. XXI. mendean, jada ez du bere burua etxekoandretzat etxean lan egiten duen emakumeak, eta jendarteak ere ez du hala identifikatzen. XXI. mendean, ama identitateak ordezkatu du, nolabait, XX. mendeko etxekoandrearena.

Etxekoandreen funtzioak izan dira, betiere, etxeko oinarrizko beharrak asetzeari: janaria, jantziak, antolaketak materiala zein harreman emozionalak eta senideen osasuna. Baina baita familiaren egoera ekonomikoa planifikatzea eta kudeatzea ere: inbertsioak, alokairua, erosketak etab. Lehenengo elementuek osatzen dute "etxekotasuna" termino modernoetan, eta horietan inplikazio maila altua izan zuten etxekoandreek. Egoera ekonomikoa planifikazioa eta kudeaketa, aldiz, senarrarekin edo etxeko beste gizon helduekin batera kudeatu ohi dute (Del Valle, 1995).

Etxekoandreez ari garela, ezin da homogeneizatu, toki eta garai bakoitzean etxekoandreak ezberdinak izan direlako. Oñatiko etxekoandreen artean ere, XX. mendearen erditik mendearen amaiera arte, eredu anitz egon da eta horien atzerabegirakoa egin nahi dugu, lekukotasunetan oinarrituta. Etxekotasunaren ideologia hedatzearekin batera, bi ereduren arteko talka gertatu zen XX. mendearen bigarren erdian: landa eremuko



Ona000285.

ereduaren -basa deitu diogu- eta eredu urbanoaren artean lehia ekonomikoa izan zen, eta horrek isla izan zuen etxekoandreen bizimoduan.

Oñatin, landa eremuko ereduak eta eredu urbanoak izan zuten lekua, bigarren hori hedatuago bazegoen ere: landa eremuko ereduari dagokionez, landa eremuko etxekoandreen inguruan euskal antropologiatik egindako azterlanetan, irudi idealizatu eta erromantikoa eskaini da. Emakumeak kontraesanik gabe azaltzen dira, baina, era berean, arlo horretan egindako azterlan ekonomikoei (Etxezarreta, 1977 in Del Valle, 1995) baserri eremuan rol tradizionala duten emakumeen asebetetze maila eskasa azpimarratzen dute. Are, baserri eremuan horrenbeste goraiatu den lan banaketa idealizatuarekin kritiko agertzen dira, gaur egun, emakumeak.

##### 3.1.1. Basa

Landa eremuko ereduaren izendatzeko hainbat modu egon daitezke; guk eredu basa deitu diogu. Miren Amurizaren *Basa* eleberriko protagonista bizkaiko herri txiki bateko etxekoandrea da, baserria eta senideak gobernatzeko dituen. Lanari emana bizi da eta beretzat zaintzea betebeharra da, egin beharreko zerbait. Isilik egin beharrekoa, inori ezer eskatu gabe ahal dela, ingurukoek zer esango... Ez du zaintza maitasunarekin lo-

tzen: ongizate fisikoari lotzen zaio, apenas emozionalari. Ortuan lan egiten duen era berean prestatzen du bazkaria, egiten du garbitasuna edo zaintzen du mendekotasuna duen koinatua.

Pilar, Maria zein Naiak, 60 eta 70 urte inguruko auzoetako emakumeek, kontatzen dute, txikitari, euren amak ez zuela denborarik apenas eurekin egoteko, baina gertutik zaintzen zituela hala ere. Maitasun keinuak urriak izan ohi ziren ama eta seme-alaben artean, harreman hotza zela esan barik; estimua, maitasuna, beste era batera adierazten zien amak:

Orduan uhera eruateko, mantia ekonomikan berotu, mantan batu eta uhera eruan bai. Edo eztarriko miña dakotzu? Saixa txapa gañian berotu eta trapo baten batuta eztarrixan jarri. Maittasuna bai, denpora asko ez. Baina berba ittekua etzan. Maite zatatut etzan esaten, etzan demostraitten. Baina gero, zahartzaruan, gere amak, berekin egoten giñanian gau ta egun, esaten eben: ni Españako erregiña baño hobeto bizi naiz. Adorauta nau”. Berba horreikin eskerketan eben. *Maria eta Pilar*

Senideen ongizate fisikoaz (janariaz, higienez, arropaz) arduratzen ziren batik bat, horiek asetzen nahikoa lan izaten baitzen. Ongizate emozionalarekin lotuta, amek familia arteko gatazkak ekidin nahi izaten zituzten, birtartekari lanak eginez: *“pakia bihar dogu”*. Senideen arteko harremanak baketsuak izan zitezten lan egiten zuten, isilean:

Neretzat, txikitatik gertukuena nire aita izan da: asko txokau dot berekin, alkoholikua zalako eta autoritario jartzen zanian ez nebalako onartzen; baina guk elkar ulertu dogu, betidanik, gauzak aupergira esaten notsalako: “tirano bat zara!” Bea langile klaseko borrokalari bat izanda, sekulako amorrua emuten otsan! Amak, berriz, “ixildu, ixildu, pakia-gatik”, en plan martir. Onartu bihar ez eben gauzak onartzeraino. “Ume, zu zara doña perfekta. Zuk danerako daukozu” esaten nostan, hil artian. *Naiia*

Euren amen lan jarduna osasungaitza zela iruditzen zaie: jardunaldi amaigabeak zituzten eta etxeko zein baserriko lan gogorak egin ohi zituzten:

Ama beti lanian egon da. Ahizpetatik ni izan naiz afektibo gehixen bihar nabana, txikitatik, eta beak ez eukan denporarik: aittan arrebiak denda bat eu-



KO593882x. 1980. Olabarrietako emakume bat.

kan eta almagazentara faten zanian egoten zan, garbitzen zauan eskola batzuk be bai, plaza aldian... beti lanian zauan. Un poco huerfana de madre me he sentido.

Lanatik emakume askok osasuna galdu daue: fibromialgia, artrosis; baina cafecito y palante. Burukomina? Cafe y palante. Deskanso barik. Eta inportantzia asko emun xako “al que diran”, asko. *Naiia*

Atsedean barik lan egiten zuten: ohetik altxatzen lehenak izan ohi ziren, gosaria prestatzeko, eta sartzen azkenak, dena jasota utzita. Baserriko alabek kontatzen dute, nola bazkaldu ondoren, gizonak atsedean hartzen zuten, baina amak bazkaritakoa jaso behar izaten zuen eta jarrera arratsaldeko lanei heldu:

Baserrixan lan asko in bihar zan: gizonak domeketan be in bihar izaten eben ganauandako janak eruan. Eta guk ahal gebenian amari kuartuak garbiketara lagundu. Baina badakit zu zer? Guk behixak eta idixak eukitten geben eta gizakumiak faten zian basora eta ekarten eben tronkuak, etortzen zian kalera eta faten zian Kubara, eta neu be bai, lagunakin batera bokaillua eruatea; eta andria etxian, alabiak o semiak ganaua etxera eruan eta ha ganauari jaten emuten eta afaixa gertaketan. Gizona epel-epel indda etxera. Andriana zan un no parar...12:00xak arte souan ibili gizonakin batera, andria etxera eta gizona ganauari jaten emutera. Bazkaldu eta gizona siestara eta andria sukaldeko lanak ittera. Sukaldeko lanak bukatu orduko gizona jaikitten zan eta “benga, guazen soora”. *Pilar*

## BASERRIKO LANAK

Etxian nengonian, ittoian, ganauakin, gizakumiak itten euen. Zu goizian jaiki ta ba, armosua gertatu, ez euen mikroondasik, ez euen butanoik, ez indukziñoik. Sua in ekonomikan, gertatu armosua: beakasaldia. Beakatzopak aittari asko gustaitten xakon. Zelaira bearra ebatea fandakuan eruaten xakon beakazopak, hirugixarra peazotxo bat onduan dala, eta gero esnia. Esnia eukitten geben guk gura beste etxian. Behixak etxian eta pozalka esnia hartzen zan eta egun danian gura beste!


Gero etxeko lanak in, garbittu puskatxo bat eta hasta las 12:30 sorora: patatak sartu bihar dia, porruak in bihar daue...Horreik hemen, etxe onduan dauzen zelai honeik danok soua zian, gu ezkondu ginanian: garixa, artua, babia, patatia, erremolaxia, dana! Hortik pentsau zenbat lan euen! Etxeko jatekuak gertatuko eben amak; etorri itxea, bazkaixa ifini, lagundu amandriai be, ta...Arratsaldian igual, ilundu arte e! Ni oin pentsaitten egoten naiz: zela itten geben? Baina, sasoi ona.

Santalutziak pasauta etorri ginan biaje de nobiosian, 22 egun in gittuan, 16 de diciembre etorri ginan, garixak ereitteko euzen. Kontzeziño eguna zan ereitteko eguna. Eta gu kanpuan, aitta eta ama bakarrik etxian eta Kontxita etorten zan kaletik lagunketara: Artua egoten zan souan pillia e? Maastakaka jasota eukain hareik, kamarara.

Erremolaxia euen sartzeko. Ha sartu eta Felixakin, lau behikin, goldan, lurrari buelta emun. Eta garixa bota eta, gañetik, beste erraminta bat pasaitten zan behixakin. Eta hori in zan azkeneko aldiz gu ezkondu giñanian. Eta ez geben in labesurik etxian.

Labesuantzat be guk gari pillia erein bai! Baina hasi zan panaderua kaletik ogi-saltzen, zaldixan; eta kaleko ogixa gosua! Eta kitto, urten zan gari pillia txahalak eta behixak jan euein eta guk kalekua erosi. Oin bestekaldera da.

Ogixa ittia andran lana zan: guk garixa eruan eta errotatik etorten zan ixota. Etxian, eromaixa esan dun horretan, tabla bat eukitten geben batetik bestera eta salgixa/galbaia eukitten geben. Lehenengo pasadia zaixa kentzeko; bigarrena basilloiandako eta hirugarrenakin, zurixena ogixa. Basilloia jan bizan lehenengo eta ha jan orduko...ogixa, onenon hori, sikaketan! (barre) Eta ha jaten hasi eta akabo



KO5900119. Kortabarri baserria, 1995.

orduko? Bigotiak urtenda! Eztu ba eukiko kaleko gogua?

Puxetia be andrak itten geben. Puxetia da erropak garbiketia: geukan barrika haundi bat, azpixon zuluakin, haundixa bihar be asko ginan-eta. Su(g) ana bihar zan. Ifitten xakon inporta bako erropak lehenengo, en el fondo, sukaldian, ezkiña baten, eta jaboi pittin bat emun eta botiaz fan, eta bota, bete arte. Puntara ezin bete, ze hautsa dezente ipiñi bihar izaten xakon, ehunezko izara bat, oso zerraua egoten zan gañian, tapaitteko, izara haundixa. Hautsa ez pasaitteko. Behian gutxiu inporta zian erropak, erdixan izarak eta gañian arropa ontxuak. Sutik hautsa hartu eta haren gañera bota. Bota ura eta...oseake...egun erdi bat puxetia itten. Hori antxe geldi egon bizan. Askotan ilunkaran in eta hurrengo goiz arte dauela hantxe. Bero-bero berua egoten zan. Azkenian botaten xakon ur berua, eta hantxe egoten zian erropok. Goizian indda bazkalostian ataraten bozu lurruna daixola ataraten euen erropok.

Bakizu? Zuk ezeitten zebe goizian eta hasieran bustixak ez euen emuten zurixak, ahalein in arren e...bakizu zela zian lehenengo izarak? Lehenengo izarak ehunezkuak zian, harizkuak, sendo-senduak, gogorak. Baina gero euzki pittin batek urten eta sikaketan zianian, una blancura. Oso ondo.

Ezkondu nintzainerako puxetia kenduta euen, baina errekarera faten ginan, erropia jotera askotan: uretan ibili-ibili eta bla-bla! Jo, hiru-lau bat aldiz. Etxian jabonau eta haundixena kendu, eta akleariterra errekarera.

Don Bizentianian, berriz, eukain labaderua etxe behian, hiru aska euzen. Eta eukain labadora bat,

jabonau bakarrik itten ebena. Diferentzia galanta! Labadoria inok be ez eukan. Akordaitten naiz Kontxita eta Jexuxek ekarri bihar eueila labadoria; ta guk hasieran pentsau bez; ekarri ebeinian, ene, el cielo! Dauen onenarikua! Aldeik pez. Aldeik pez!

Koltxoiak ardi-ulezkuak izaten zian eta ulia jo in bihar izaten zan, urtian behin, udazken lehenengotan: jarri ulia zabal eta bi makillakin, bata luze-txuau eta bestia moztxuaua, puntan eukitten ebein burua, harixak urten ez dein, eta harekin emuten zan ondo! Makina batekin emutiakin baño...hobeto! Eta ulia harrotu itten zan. Koltxue azala gertu ipini eta josi.

Babia be holaxe jotzen zan: baina **baba jotzen kua-drillia ibiltzen ginan e**. Lau lagun, fuego! Kamaran, Zulatan. Jarri pillia bai? Martzelino, Pedro, Domingo eta neu...fuego! Garixa be jo itten zan. Babia eta artua irakurri be bai.

Hoixe zan etxeoandrian bizimodua, etxeo lanakin bakarrik etzan bizi; kanpoko lan asko inda bizi zan baserriko andria. Kalian be...guk gaur komodidade asko be gehixau daku kriada egon lekuan baino.... Garai hortan mutilak fan zian estuixaittera eta neskok kriara. Zerbait ikasixaz...

*Karmen*

### 3.1.2. Etxeko Aingerua

1936ko altxamendu militarrek eta ondorengo diktadura urteek errepresio urte gogorrek ekarri zituzten Oñatira, eta ernaltzen zebilen kontzientzia feministak lozorroan gelditu behar izan zuen. Emakumeen bizitzan emandako aurrerapausoak eten egin ziren. Horrekin batera, gailendu zen aurretik zetorren ama-emaztearena, hots, etxeo aingerua deritzoguna. Etxeko aingeruaren genero ideologiaren hedapena hamarkada luzeetan gertatu zen, eta toki guztietan ez zen berdin gertatu. XIX. mendean garatu zen etxekotasunaren inguruko ideologia Espainian, baina testuinguru anglosaxoietan ez bezala, oraindik bazituen nozio tradizionalak zein erlijio zantzu nabariak (Aresti, 2000).

Ilustraziora eta horrek ekarri zituen aldaketa politiko eta sozialetara jo behar dugu, garai horretan eta gaur egun ezagutzen dugun genero sistema ulertzeko. Feminitate eta maskulinitateak negatiboki kategorizatu ez bazituen ere, guztiz ezberdinak eta ia-ia kontrajarriak zirela aldarrikatu zuen. Eredu publikoa eta pribatua ezarri zituen

eta biak sexualizatu egin zituen: gizonak ez ziren moraliki indartsuak, baina eremu publikoko nagusiak izendatu zituen, eta emakumeak, aldiz, moraliki gailentzen ziren eta eremu pribatuarekin lotu zituen. Emakumeak emazte eta ama onak izateko balioen hezkuntza nagusitu zen, eta amatasuna loriatu zen guztiz: emakumeen bizi misio nagusia ama izatea zen, eta ezkongabe gelditzea eremu femeninoaren kontrakoa ulertzen zen. Amatasuna zen emakumeen babesgune nagusia eta espazio sozialean bestelako boterak izateko modua. Esan dezakegu garai horretan sortu zela gaur egun arte biziraun duen sexuen eta generoen ulerkera, aldaketak aldaketa.

Langile klaseetan etxekotasunaren ideal burgesa industrializazioak ekarri zituen arau moralen desagertapenarekin lotu behar dugu. Horrela, langile klaseko moral berria eta, ondorioz, etxekotasunaren ideal berria ezartzeko ahalegina egin zuten. Gizona familiaburu izendatu zen eta emakumeak (ahal zen neurrian behintzat) etxeo ardura hartzen zuen guztien hobe beharrez. Horretarako, familia soldata aldarrikatu zuten langile mugimenduek; era horretan, gizonak maskulinitatea berreskuratzen zuten eta emakumeek senar arduratsua eta familiaren ongizatea bermatzen zuten. Hala ere, kontuan hartu behar dugu familia harmoniatsuen ideal horietatik urruti eraiki zela errealitatea, emakume askok lan merkatuan jarraitu behar izan zutelako –eta lanaldi bikoitza, etxeo eta kanpoko, egin– eta familia barruko bakea emakumeen kontrako abusu egoera askok zeharkatu zutelako. Hala, emakumearen ugalketa betebeharra klase zein ideologia guztiek ezarri zuten, eta pentsalari, zientzialari eta medikuek ideia horretan sakondu zuten XX. mendean zehar. Amatasuna emakumeen egiteko gorentzat ezarri zen, eta eremu pribatuaren eta publikoaren arteko arrakala handitu egin zen, 1930. urtetik 1970. urtera arte.

Horrela, frankismoak, ideal hori sustatzeko, familia tradizionala sustatzen zuten lege natalistak hauspotu zituen eta lan merkatuan zein hezkuntzan diskriminazioak ezarri zituen. Emakumeek urteetan aitortu gabeko lana egin zuten: batik bat, etxeo eta zaintza lanak, abeltzaintza, nekazaritza eta merkataritza (Arrazola eta Garai, 2019). Lan egiteak ez zekarren emakumeen kasu gehienetan, ordea, independentzia ekonomiko eta autonomia pertsonalik (Duby eta Perrot, 1993), are gutxiago zaintza lanek.

Frankismo garaiko 1889ko Kode Zibilarri jarraikiz, neska eta mutikoen hezkuntza bateratua debekatu zen eta 12 urterekin eskola uztea erraztu zen, bigarren hezkuntza arrazoi moralak tarteko oztopatuz (Bussy Genevois, 1993: 218). Bigarren hezkuntza egin nahi zuten nes-

kentzat, errebalida lortzeko baldintza bat ezarri zen 1953. urtean, hain zuzen ere, Pilar Primo de Riverak zuzendutako *Sección Femenina de FET y de las JONS*eko (1934-1977) *Escuela del Hogar*-en parte hartzea eta “etxekotasuna” ikastea: irakasten zitzairen janaria prestatzen, josten, brodatzen, pasaratzen, lisatzen, errekadutan, erizaintza, kontularitza, ekonomia eta higieena, besteak beste. Hezkuntza hori klase ertain-altuko emakumeek jasotzen zuten, izan ere, landa eremuan gehienek 10-12 urterekin uzten baitzioten eskolara joateari.

Servicio Social-a ere norabide berean ezarri zen, 1937. urtean: 17-35 urte arteko emakumei zuzenduta zegoen eta sei hilabeteko formakuntza zen. Helburua zen emakumei formakuntza politiko eta soziala ematea, etxeko aingeru izaten irakasteko: etxeko lanaz, janaria prestatzeaz, josteaz eta etxeko ekonomiaz oinarritzko nozioak irakastea, alegia.

XX. mendearen erdian, bizitokiaren eta ahalmenaren arabera joaten ziren haurrak eskolara. Baina hezkuntza formalaz harago, bazegoen informala edo etxean jasotzen zena, oso garrantzitsua haurren garapen pertsonal eta profesionalean. Hala, haurrak lanerako enplegatzen ziren eta lanean ikasten zuten ofizioa. Neskame joan eta ezkontzeko, neskei etxeko eta zaintzako lanak egiten irakasten zieten. Beti ere amaren, izebaren edo amonaren altzoan, horien lanak ikusiz ikasten zituzten, eta poliki-poliki, egin zitzaizkien lanak ematen zizkieten.

Euskal Herrian gailendu zen emakume eredia hone-lakoa zen, Teresa Del Valle zuzendutako ikerketaren arabera (1985): euskal emakumeak balioa irabazten du ezkontza eta amatasunaren bitartez. Beraz, etxeko lan eta harremanek balio altua zuten beretzat. Finean, ama ona, garbia eta langilea izateak ematen zion prestigioa, 80ko hamarkadan, emakume euskaldunari, eta ezkontzak egiten zuen, hain zuzen ere, “emakume”. Esan daiteke, senarra eta seme-alabak zirela emakumearen prestigio emaile nagusiak. Hala, 30 urteren ondoren ezkongabe segitzen zuen emakumeak estatusa galtzen zuen; hortik zetorkien *neskazahar* deitura.

Familiaren zaintza eta etxearen gobernua “misio sakratua” zen, maitasunez egin beharrekoa. Alde batetik, senarra eta seme-alaben zaintza zegoen: etxekoandrea- ren ardura zen seme-alaben integrazioa eta garapen pertsonala arrakastatsua izatea. Senarrari ere bere denbora eskaini behar zion eta haren beharrak asetzeko prest agertu, izan materialak, psikologikoak zein



Andrés Arlanzon argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Arl001332.

sexualak. Hori neskatoei irakatsi, iradoki eta ulertarazten zitzairen gaztetatik, ezkondu arteko espero luzean zehar. Beste aldetik, besteei emanak bizi behar zuten emakumeek, eta hori guztia maitasunagatik egin. Besteak zaintzearen rol sozial, ekonomiko eta politiko hori guztiz esentzializatu eta naturalizatu egiten zen eta egiten da.

1960tik aurrera ezarri zen desarrollismoak landa eremuko bizitza tradizionala gutxietsi eta urbanismoa goraiatu zuen: jendartean nagusitu ziren etxeko aingeruaren eredia lehenik, eta emakume hiritar eta modernoaren eredia bigarren. Emakumeen tokia jada ez da baserria, kaleko pisu bat baizik. Etxeak funtzio produktiboa galtzen du eta, beraz, etxekoandreak jada ez du azienta eta familia zabala gobernatzeko; bi edo hiru seme-alabako familia nuklearra zaintzen du, rol emozionalagoa du eta etxeko lanak teknologia berriarekin arintzen eta bikaintzen saiatuko da, (Romo, 2005: 98). Azken horri deitzen dio Arestik ama kontzientea.

Oñatin, XX. mendean, emakume ezkonduen, ama zirenei, oro har, etxekoandre izendatzen zitzairen, emakumezko familiaburuaren esanahiarekin. Etxean soilik lan egin edo hortik kanpora enplegurik izan, ez zen bereizten; guztiak ziren etxekoandreak. Betiere, kanpoko enplegu horiek bere etxeko jardunaren osagarritzat jotzen ziren: esate baterako, nekazaritzako eta baserriko produktuen salerosketa, joskintza, haurtzaintza eta garbiketako lanak.

XX. mendearen erdian hazitako emakumezkoek, Frankismoaren ideologia katoliko patriarkalari jarraikiz heziak izan zirenek, alegia, haurtzarotik barneratu zuten “etxeko aingeruaren” patua: asko neskame edo fabri-

kan aritu ondoren, ezkondu eta gehienentzat aukera posible bakarra zen lana utzi eta "etxean geratzea". Ondorengoek, aitzitik, 60ko hamarkadan, garai desarrollistan, hazi eta heziak izanik, beste ikusmira bat izan dute: batzuek ikasteko aukera izan zuten institutuan, bulegoetan lan egiteko trebatzen ziren partikularretan, monjetan; hala, gehienak 20-30 urte bitartean ezkondu arren, horrek ez zekarren enplegua utzi behar izatea eta, horrekin batera, "etxera bueltatzea", gerora ikusiko dugun modura.

Eredu aldaketok arian-arian gauzatu ziren, landa eremuan urbanoan baino astiroago gauzatu ere. Era berean, emakumeen eskubideen aldeko kontzientzia pizten hasi zen, eta etxeoandreen bizimodua zalantzan jartzen. Hala, etxeoandreen azken belaunaldikoak etxeo aingeruaren eremuan hazi eta hezitakoak dira. Belaunaldi gazteagoak emakume hiritarraren eredia sustatu zuen, gero azalduko dugun modura, eta bi belaunaldi horien arteko elkarbizitza, elkarriketa, aliantza eta gatazka mugarri bat da zainzaileen genealogia honetan.

1992an egin zen Oñatin emakumeen egoera soziologikoen lehenengo azterketa kuantitatiboa. Iturri horretatik dakigu garai hartako emakumeen hezkuntza, enplegu, familia eta sozializazioaren berri. 90eko hamarkadaren hasiera hartan, bi belaunaldi horien arteko trantsizioa eta ikuspegiaren arteko ezberdintasuna ikus daitezke hainbat alderdiri dagokienez: ezkontza adina, seme-alaba kopurua, hezkuntza eta enplegu aukerak, etxeo eta zaintza lanetarako zuzendutako ordu kopurua, gizonen "laguntza" ataza horietan, bakardade sentipena, sexualitatea, denbora librea eta emakumeek dituzten arazo eta beharrak.

1992an, Oñatiko emakumeen % 30,2 etxeoandreak ziren eta ez zuten soldatarik. Euren profila honako hau zen: 35 urtetik gorako emakumeak, ezkonduak, eta ekonomikoki senarraren menpekoak. 2 seme-alaba zituzten gehienek, batzuek, 3. Emakume horien % 90ek lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak maila zuen eta inork ez unibertsitate ikasketarik. Haietatik % 46k industrian lan egin zuen ezkondu eta seme-alabak izan aurretik; % 29k administrazioan eta gutxiengo batek ostalaritzan edo etxeo eta zaintza lanetan. Emakume horien % 74k ezkontzagatik edo seme-alabak hazteko utzi zuen enplegua.

Egungo 70-90 urte arteko emakumeek bi plan zuten garai hartan: A plana, gazte ezkondu, 25-30 urte inguruan; edo B plana, monja edo neskame sartu eta ezkongabe geratu, *neskazahar*. Azken horien hautu eta bizimoduaren inguruko azterketa egiteke dago eta oso interes-

garria litzateke ikertzea, arauaren salbuespena izateak jendartearen ertzean bizitzera kondenatu baitzituen, baina sarri, ertzetan izaten dira genero arauen arrakala interesgarrienak.

Etxekoandre basatik etxeo aingerurako jauziaren ezaugarrietako bat seme-alaben kopuruan emandako murrizketa da: familia ugaria 6 senidetik gora izatetik 3-4 izatera igaro zen 60-70eko hamarkadan. Familia nuklearraren idealean 2 seme-alaba izan zitezkeen, asko jota 3. Hala, emakume hiritarraren belaunaldian, are gehiago murriztuz joan zen kopurua: 1983an EAEn, batez beste, emakume bakoitzak 1,5 haur zituen. 1986an, berriz, 1,2. Lehen haurra 26-30 urterekin izaten zuten eta 31-35 urte bitartean bigarrena. Azterketa soziologikoen arabera, familiaren tamaina eta ama izateko adina aldatu zen, hainbat arrazoi medio: batetik, emakumeak etxetik kanpo soldatapeko lana zuelako. Bestetik, antisorgailuen gaineko ezagutza eta erabilera gehiago zegoelako; azkenik, krisi ekonomikoak enpleguan ezegonkortasuna sortu zuelako.

1992an, Oñatiko emakumeen % 30,2 etxeoandreak ziren eta ez zuten soldatarik. Hala, Oñatiko emakumeen % 50ek ez zuen diru iturri propiorik: % 42 langabezian zegoen eta horietatik gehienek hilean 75.000 pezeta jasotzen zituzten prestazioagatik. 90eko hamarkadan, etxeoandreen % 11 prest zegoen etxetik kanpo lan egiteko. Alegia, etxeo aingeru izatetik emakume hiritar izatera igarotzeko grina zuen 10etik 1ek.

Hezkuntzari dagokionez, Oñatiko emakumeen % 65,4k ikasketak utziak zituen, lehen edo bigarren mailako ikasketak burutu ondoren. Adinaren arabera arrazoi ezberdinak zeuden: nagusienek inguruak hala behartuta egin zuten. Nagusiek zioten euren inguruan ez zela normala ikastea eta arazo ekonomikoak zituztela, ikasten jarraitzea oztopatzen zietenak. Kulturalki, semei ikasketak ematea lehenesten zuten familiek eta emakumeek etxeoandre izateko prestatu behar zuten. Gutxiengo batek adierazten du ezkontzeko utzi zituela ikasketak. 60 urtetik gorako emakumeen % 24k soilik egin zituen goi mailako ikasketak (Astigarraga, 1992).

## AUZOTIK KALERA

Txikitan bizi nintzan en plan comunidad: auzoko danok harremana zaukoun, beste bizimodu bat, oso ezberdina. Oso haurtzaro ona eduki neben, eta klaro, bizitzan horrek asko lagundu dost, balore onak eduki dot: maitasunakin dana lortu lekela uste dot.

Poztasuna. Libertadia eta naturarekin harremana.

Joaten ginan ume danak eskolara, fila indian. Apenas 2 kilometro. Akordatzen naiz lehenengo zinia auzoko eliza onduan dauen frontoian ikusi ginuan, de Marisol. Eta bueno, lehenengo telebista, ikusi giñuan beheko bizilagunak etxian: etxe atzera emuten eben bentana batetik ikusi geben.

Eskolara bidian Bentatik pasaitten ginan eta kartak hartzen neben amandriari ekarteko. Sua itteko piñaburuak batu, oreganua txoixuak itteko eta oiluari aza-ostruak emun ... Ortua zaukoun: alberkan garbittuta direktamente jaten geben tomatiak, zanaoixak; bizi rurala. Joaten ginan frutak batzera: pikuak eta madarixak batu, mallukixak...Peskan be itten geben. Iturrira joaten ginan pitxarrakin metal ura hartzera; ez euen apenas desperdiziorik, sobrak botaten geben errepara eta arratoiak ikusten geben han. Eta jokuan itten giñuan danok, mutilak eta neskak, parra-parra eta zaintzen ginan elkarri. Belaunaldi ezberdinetako jentia bizi ginan eta hola asko ikasten da.

Neretako gogorra izan zan 11 urtekin Oñatira etortia: nire aitta Altos Hornoseko langilia zan, pasau zan krisis bat eta orduan hasi zan Ulman. 1969an, errekaldeko auzua in zanian etorri ginan hona bizitzera. San Prudentzion atiak zabalik bizi giñan. Hemen, berriz, bakoitza bere pisuan eta de puertas pa dentro. Atia itxita. Etorri ginan amandriakin: batzutan bajaitten giñuan amama, bankuan jaritzen giñuan, baina lehengo aldian nire sensasiñua kaiola izan zan.

*Naiia*

### 3.1.3. Emakume langilea

70eko hamarkadaz geroztik, Mugimendu Feministak hala bultzatuta, emakumeen eskubideen aldeko kontzientzia hedatu da Euskal Herrian, eta horrek kritika eta autokritika eragin ditu: emakumeen askapen borroka klase ikuspegia barneratu zuen, lanaren irakurketa feminista egin zen, eskubide erreproduktiboak aldarrikatu ziren eta zaindu ahal izateko baliabide publikoak lortzearen alde borrokatu ziren.

1975ean, Frankismoaren amaierarekin aro bat itxi zen. Azken urteetan, nazionalkatolizismoaren doktrina eta misoginiak geroz eta oihartzun txikiagoa zuen eta erregimenaren amaiera inflexio puntu bat izan zen emaku-

meen bizitzetan; haatik, genero harremanak ez ziren gauetik egunera aldatu eta, egiari zor, emakumeak ez ziren etxekotasunetik askatasunera igaro.

Agi denez, urte gutxiren buruan aldatu ziren emakumeen hezkuntza, enplegua, aisialdia eta erlijioa bizitzeko moduak, Euskal Herri osoan, baita Oñatin ere. 1970eko hamarkadan, emakumearen eredu hiritar eta langilea nagusitu zitzaion emakume "etxeko aingeruari", arian-arian nagusitu ere: eskubidedun herritar sentitzen hasiko dira emakumeak, eta espazio publiko eta pribatuak eraldatuko dituzte (Romo, 2006:94). Espainiako estatuan, trantsizio demokratiko izeneko aro politikoa abiatu zen eta 1978an, Espainiako Konstituzio Demokratikoa ezarri zen, Euskal Herriko Mugimendu Feminista aurka izanda ezarri ere (Emagin, 2015).

Konstituzioan emakume eta gizonen arteko lege ezberdintasunak ezabatzeko oinarriak ezarri ziren. 14. artikulua legearen aurrean berdintasun printzipioa ezarri zuen Espainiako herritarrentzat, eta tartean, euskal herritarrentzat. Esaterako, zigor zuzenbidean, maiatzaren 26ko Legeak, 1978an, 449. eta 452. artikulua baliogabetu zituen, adulterioari eta ohaidetzari zegozkienak. Urte bereko urriaren 7ko 45/1978 Legeak 4.3 eta 416. artikulua aldatu zituen, eta antisorgailuen zabalkundea eta propaganda egitea zigorgabetu (ibidem).

Garrantzitsuak izan ziren, era berean, ezkontza, dibortzioa eta gurasotasuna arautzen zituzten lege aldaketak: lehenik, 1981eko maiatzaren 13ko Legeak emakumezkoa eta gizonezkoa parekide egiten zituen ezkontzaren barruan, bai erregimen ekonomikoari zegokionez, baita guraso ahalmen edo guraso agintearen titulartasunari zegokionez ere. Bigarrenik, 1981eko uztailaren 7ko Legeak ezkontzaren baliogabetzea, banaketa eta dibortzioa arautu zituen, emaztea eta senarra ezkontzaren betebeharrak eta eskubideei dagokienez berdinak direla adieraziz.

Lege berri horiek ez ziren borroka barik etorri: Euskal Herrian sona handia zuten aldarrikapen abertzale, sozialista eta feministek. Jada 60ko hamarkadaren amaieran, nazioarteko askapen borroka inspirazio iturri izanda, Euskal Herrian egituratzen ari zen erregimen frankistaren aurkako borroka, eta abertzaletasunaren aldeko mugimendua. Frankismo garaian, klandestinitatean garatu zen jardun politikoa eta jendarte abertzaletasunaren bilgune garrantzitsuak izan ziren hainbat talde eta elkarte: mendi taldeak, erlijio erakundeak, herri elkar-teak eta guraso elkarteak.

Gehienek euskara eta euskal kultura berreskuratzearen aldeko ekimenak sustatzen zituzten, eta emakumeen



Ona012117.



Elz000406-NEG-16-022 w.



Arl003913.

parte hartzea ere izan zen. Lehen lerroan baziren emakumeak, nahiz eta kasu banakak izan. Adibidez, euskara sustatzeko edo ikastolen sorreran, “ama kulturala”ren rolaekin jarraituz. Beste batzuek eremu pribatuan jardun zuten, etxeetan nahiz haurren heziketan euskara eta euskal kultura transmititzen. EMK alderdiak jaso zuen: “Garaiko borroka ideologikoaren lorpen asko emakumeen ekarpen, pazientzia eta ekiteari esker lortu ziren”. Ez bairik gabe, familiaren eta aberriaren zainzaile ziren Euskal Herriko eta baita Oñatiko euskal emakumeak.

Hala, Oñatiko familia eredu ohikoena 4 kidek osatzen zuten: senar-emazteek eta bi seme-alabek. 10etik 6 kaleko pisuetan bizi zen eta 1 landa eremuko baserrietan. Lehen, gazte ezkontzeko arrazoi nagusia zen etxeoandre lehenbailehen bilakatzea. 90eko hamarkadan, berriz, gazteak beranduago ezkontzen ziren, 30 urteren bueltan: bikotekidea izan arren, ezkontzeko presarik ez dute. Are, enplegu faltak ere etorkizunera begira ziurgabetasuna sortzen du eta ondorioz, ezkontza atzeratzen da (Astigarraga, 1992).

Banandutako emakume bakanak zeuden, guztiz gaitzesten zen sozialki eta kasu gehienetan, senarrarekiko dependentzia ekonomiko tarteko, ez zen aukera bat etxeoandrentzat. Hurrengo belaunaldian, hiritarrenean, banantzea aukera izaten hasi zen apurka-apurka; horren adibide da gero aztertuko dugun Naiaren kasua. Banantzeko joera horren berri ematen du azterketa soziologikoak: 90eko hamarkadan, banandutako emakume bakanak 26-30 urte bitartekoak dira.

Oñatin, geroz eta emakume gehiago lanbide heziketa edo unibertsitate ikasketak egiten hasi ziren. Oro har, ezkondu eta ama izan arren, lan merkatuan jarraitzeak emakumeei hauspoa eman zien libre izateko eta kulturalki euren burua jantzi eta pertsonalki has-teko: 1992an, emakumeen % 43,2k etxetik kanpo lan egiten zuten: 22-50 urte artekoak ziren gehienak. Azterketaren arabera, etxetik kanpo lan egiten zuten erdiek ezkondu ere enpleguari eutsi zioten, bi arrazoi nagusirengatik: gastu ekonomikoei aurre egin eta seme-alaben kopurua jaistearekin batera, zaintza ardurak txikiagoak zirelako.



NEG10974.

Era berean, gehienek ama izateko hautua egin zuten: seme-alaben zaintza eta etxeko lanak besterenganatzea izan zen horietako askoren hautua, ibilbide profesionala zein amatasuna kontziliatu ahal izateko. Emakume hiritar deritzogu emakume belaunaldi horri. Testuinguru horretan, etxekoandre nagusiagoak, etxeko aingeruak, lan-merkatutzeko abagunea sortzen da: haurtzain eta garbitzaile gisa jardun izan dute, hala, behin haurrak hazita, etxetik kanpo lan egiteko gogoia edo premia zuten etxekoandreek. Ama belaunaldi berriek haurren zaintza partekatu izan dute, amatasun baimena agortu eta berehala: askok zaintzailea, neska gazteago edo emakume nagusiago bat, kontratatuta eta, urteak igaro ahala, geroz eta gehiagok, aitona-amonekin utzita. Gero sakonduko dugu euren amatasuna bizitzeko moduan.



AGG-GAO OA06221. 1943.

Emakume hiritarrak munduan egoteko modu berri bat aldarrikatu zuten: Oñatitik kanpoko mundua ikusi eta ezagutzeko betak areagotu zitzaizkien. Gainera, Elizatik harago, kultura elkarteetan eta politikaren baitan antolatzen hasiak ziren emakumeak. Are, Ipar Euskal Herriko emakumeen borrokaren oihartzuna Hegoaldera iritsi zen eta hala sortu zen 1976. urtetik aurrera Mugimendu Feminista Hego Euskal Herrian. Noski, horrek askatasun grina ekarri zuen, pixkanaka, herrira.

### 3.2. Mugimendu feminista: sorrera eta errotzea

Diktadurapean bizitako 40 urte luzeren ostean, Mugimendu Feminista indartsu agertu zen. Galdutako askatasuna berreskuratu nahi zuten emakumeek; batzuek inoiz ezagutu gabea zen. Mundua eta eguneroko bizimodua aldatzeko esperantzaz hasi ziren antolatzen: enpresetan, unibertsitateetan, autokontzientzia taldeetan nahiz auzoetan. Diktadura frankistak ezarritako eredu femeninoarekin hautsi nahi zuten, diskriminazio eta bazterkeria egoerekin eten. Aldaketarako grina hori kutsatzen zihoan apurka-apurka Euskal Herriko hiri eta herrietan, baita Oñatin ere. Hala kontatzen digu Naiak orduko lekukotza:

Emakumia eta gaztia izanda, destakaittia, oso liberala izatia, etzan ondo ikusten, orduan beti ezkuttaitten ibiltten nintzan nire izaeria. 16 urtekin nire ahotan euen ya la emancipacion de la mujer. Nire aittapuntakuari aitatu notsan eta begiratu nontan: “bueno, pero que palabras son esas!”. Yo tenia esa conciencia ya... *Naiia*



Feministek hainbat esparrutan egin zuten lan: sexualitate askearen alde, adulterioa zigorgabetzearen alde, antisorgailuak legeztatzearen alde, haurtzaindegien eskaeraren alde, hezkuntza sexualaren alde, dibortzio eskubidearen alde, soldatapeko lana aldarrikatuz, edota Espainiako estatuko kartzeletan zeuden 350 emakumeen amnistia eskatuz. Azken batean, oinarrizko eskubide asko ukatzen zitzaizkien, eta horien defentsari ekin zioten. Behar horietatik mugimendu bizi eta eraginkorra garatu zen, lege aldaketan alde jardun zuena: esate baterako, abortuaren eta dibortzioaren lege alternatiiboak idatzi zituzten, eta emakumeentzako zentroak ireki zituzten, salaketa eta trebakuntza ideologikoa egiteaz gain, antisorgailuak lortu ahal izateko. Gainera, ordurako, Europako zenbait herrialdetan legeak jada berrituta zituzten, eta hori ere zilegitasuna eskuratzeko bidea zen.

Badirudi mugimendua erreferentziarik gabe hasi zela: aurretik emakumeek egindako borrokak ahazturik zeuden; frankismoak gogor egin baitzuen amnesiaren alde. Hortaz, Mugimenduaren lehen urratsak gorabeheratsuak izan ziren: batetik, lege askori egin behar zioten aurre, oinarrizko eskubideen defentsan; bestetik, aldi

berean mundu berria asmatu behar izan zuten. Azalean bizi zituzten arau zapaltzaileak, bizipenetatik ari ziren, sufritutakotik. Hasieran, haserrea eta adorea etorri ziren, eta, ondoren, irakurketak nahiz teoriak (Varela, 2005).

Herrietako emakumeak bat-batean hasi ziren elkartzeko, arazo pertsonal gisa bizi zituztenak patriarkatuaren ondorio zirela jabetuta (laneko bazterketa, sexu plazaren falta, jardun politikoan zeregin «femeninoetara» mugatzea...). Autokontzientzia taldeetan elkartzeko hasi ziren, tokian toki. Taldeko emakume bakoitzak zapalkuntza nola bizi zuen azaltzen zuen. Horrela, nork bere bizimoduaren interpretazio politikoa eraikitzen zuen, eta aldaketarako oinarriak zehazten zituen. Talde horien bidez, emakumeak bere zapalkuntzaren aditu bilakatzea zen helburua, eta bizipen pertsonaletatik eraiki zuten teoria, ez hainbat aurreideologiatatik. Historikoki bazterturiko kolektiboari ahotsa, argudioak eta indarra eman zizkieten talde horiek (De Miguel, 2000).

Bide horretan, emakume asanbladak sortu ziren non-nahi, zeinak berdintasunean oinarritu nahi baitzituzten, eta alderdietako hierarkietatik kanpoko jarduna abia-

razi zuten. Feministen aktibismoa ikusgarria izan zen: manifestazioak, martxak eta ekimen jendetsuak antolatzen zituzten. Aldi berean, emakumeentzat oso baliagarriak ziren zentro berriak sortu zituzten, babesak eta autolaguntza oinarri zituztenak. Baina baita euren bizi baldintzak hobetzera bideratutako bestelako espazioak ere, han-hemenka: besteak beste, haurtzaindegiak, tratu txarrak jasaten zituzten emakumeentzako zentroak, defentsa pertsonala lantzeko tokiak.

Plangintza zentroen bidez, esaterako, auzoetako emakumeenganaino iritsi ziren; ez mezu intelektuala helarazteko, izan ere, askotan emakume horiek feministen ikuskera estereotipatua baitzuten. Feministek, ikasteko eta antolatzeko espazio propioak eraikitzeaz gain, osasun eta ginekologia ez-patriarkala sortu zuten, emakumeak beren gorputza ezagutzera animatuz.

Bestalde, ikusezinak ziren gaiak ikusgarri egitea zuten helburu: adibidez, espazio publikoan emakumeek duten bazterketa, baita Parlamentuan edo alderdietan ere. Bide horretatik, feminismoaren funtsezko eztabaida piztu zen: kontzientzia feminista kontzientzia politiko bihurtzeko zer-nolako harremana artikulatu kideen artean, alderdiekin, sindikatuekin, bestelako mugimendu politikoekin...

Mugimendu erradikala eratu zuten, herritarra, autonomoa, borroka oinarri zuena, anitza. Erradikala, jendartearen ordena sozialaren aurka sortu zelako, sistema kapitalista eta patriarkala errotik iraultzeko asmoz. Mugimendu herritarra izan zen, auzo eta herrietako batzarretan, lantokietan elkartzen ziren emakumeek osatuta zegoelako (batzuk alderdietan zeuden emakumeak ziren, besteak alderdietatik independente ziren feministak). Autonomoa izan zen jaiotzatik, alderdi, sindikatu eta mugimendu sozialetatik at funtzionatu zuelako, horiekin elkarlana sustatu zuten arren. Borrokalaria zen, hitzetatik ekintzetara abiatu zelako. Borroka-molde ugari erabili zituzten: asanbladak, itxialdiak, manifestazioak edota bide mozketak. Anitza zen mugimendua, iritzi eta jarrera askotarikoak zeudelako tartean. Diferentziak egon arren, mugimenduak batasuna lehenetsi zuen guztiaren gainetik, emakume izatearen baldintzak sortzen zizkien urraketek aurre egiteko asmoz. Pixkanaka, subjektu politikoaren eztabaidari hasiera eman zitzaion arren, emakume guztiak batuta abiatu zuten borroka, batasunaren ideia eta balioa gailendu zen, eta batasuna bururaino eramanez bete zituzten bilera gelak, kaleak, elizak... Edonola ere, eztabaida ugari sortu ziren, militantzia ereduaren inguruan, borroka moldeen inguruan, instituzioekiko jarreraren inguruan, gizonen parte-hartzearen inguruan, edota gainontzeko herri mugimenduekin izan beharreko harremanen ingu-

ruan. Urte gutxiren buruan abangoardiako mugimendu bihurtu zen, kalean eta herritarren ideologietan eragin zuzena izan baitzuen (Emagin, 2015).

40 urte luzeko erregimen frankistaren ondotik, erreforma politiko berriaren egonkortze urteak etorri ziren. Lege eta erakunde zaharrak desegin, eta erakunde berriak sortzeko prozesua jarri zen abian. Espainiako estatuan Konstituzioa onartu zen 1978an, euskal herritarren gehiengoak onespenez eman ez zion arren. Espainiako estatuko Mugimendu Feministak ere ez zuen bat egin, ez baitzuten biltzen emakumeen oinarrizko eskubideak eta Mugimendu Feministaren aldarrikapenak.

Aurrera eramandako borroka ugari lege erreformak ekarri zituzten. Hala nola, adulterioa despenalizatu zen 1978an, baita antisorgailuen erabilera ere. Dibortzioko eskubidea lortu zuten 1981ean eta 1985ean abortoa partzialki despenalizatzen zuen legea onartu zuen PSOEren gobernuak, nahiz eta lege horrek gorabehera asko izan dituen harrezkero. Eremita instituzionalean ere pausoak eman ziren: 1988an Emakunde sortu zen. Baina erreforma eta urrats horiek ez zuten sistema ez-baian jartzen: euskal patriarkatua, familia heterosexuala, sexualitatearen errepresioa nahiz sexuaren arabera lan banaketa gailentzen ziren jendartean.

Horrela, 80ko hamarkadaren hasieran, krisi ekonomiko, moral eta politiko larria izan zen. Oraindik ere diskurtso nagusia familia eredu tradizionalaren, etxeko mistikaren, bizitza pribatuaren eta amatasunaren gainekoa zen. Honela azaltzen zuten, esaterako, Euskadiko Asanbladak eta Aizan!-ek:

Egungo legeek harremanak izateko eredu bakarra babesten eta sustatzen dute: familia patriarkala. Eta gainerako eredu alternatiboak baztertu egiten dituzte. Harreman afektibo sexualen kasuan ere, eredu bakarra: bikote heterosexuala. Modu horretan, guraso-eredu horri esker, ugalkortasun-eredua bermatzen eta sustatzen dute, eta guraso-egitura horien bidez transmititzen dira familia lotura guztiak. Jabetza pribatuaren igorle bihurtzen da familia, herentziaren bidez, gurasoengandik seme-alabengana igarotzen dena (1986:126).

Sistema patriarkal eta kapitalistaren oinarriak arrakalatzeko asmoz sortu zen Mugimendu Feminista, eta ukazina da kolokan jarri zuela ordura arte nagusitutako emakume ereduak: euskal etxekoandrea. Horretarako, batez ere, aldaketa sozialerako bi prozesu eragin zituen: 1980tik aurrera, batetik, lan merkatuan emakumeek gora egin zuten, eta bestetik, ugalkortasun tasa asko jaitsi zen. Etxekoandreei zuzenean eragiten zien,

berritasun gisa, goi mailako hezkuntza jasotzeko aukera gehiago izateak, ibilbide profesionala izateak, prekarioa izan arren, edota sexualitate askerako aldarriek.

### EMPODÉRATE

Transmutación.  
Transformación.  
Trasmisión.  
Recordando quien soy,  
Recorriendo el túnel de la noche,  
En el vacío de la Nada...  
Acertando a saber  
Aflorando mi Ser.  
Entrando en lo profundo,  
Recordando registros.  
Descubrirme en lo oculto  
Hacia la primera piel.  
Hace 6 millones de años  
Los secretos de la mujer indomable  
Se perdieron;  
Ahora van llegando mensajes sublimes,  
¡escuchemos la voz del corazón!  
¡¡¡ Bienvenida seas de nuevo corazón  
Latente, creación consciente  
Sabia amante !!!

*Naia*

### 3.2.1. Lanaren banaketa sexuala

Generoaren araberako lan banaketa du oinarri patriarkatuak, gizonen eta emakumeen eginkizunak bereiztea, hain zuzen. Gizonek esparru publikoan jardutea bihurtzen da arau, boterearen kudeaketara lotzen dira, eta onarpen soziala duten jardueretan aritzen. Emakumeak, aldiz, esparru pribatuari loturiko jardueretara lotzen dira: etxeko lanak, zaintza lanak, ugalketa lana eta abar. Ordaindu gabeko lan bakar batek ere ez du onarpen ekonomikorik, ez du onarpen sozialik. Gainera, lan banaketan genero rol horiek iraunarazteko, izaera naturala egotzi nahi izan zaie funtzio horiei: emakumeek berez dute zaintzarako joera, jaiotzez halako gaitasunak dituztelakoan.

Lanaren banaketa sozial horrek, gainera, hierarkia argia ezartzen du. Soldata jendartearen funtsezko neurri bihurtzen da, soldatak egiten du bat herritar, soldatari esker lortzen dira eskubideak, eta soldatak ematen du estatus soziala. Lan merkatu horretan ugalketa lanek edo

etxeko lanek ez dute aitortzarik, eta jarduera ekonomikoetatik kanpo kokatzen dira, argudiatuz emakumeen berezko zereginak direla, eta maitasunez-edo egiten dituztela. Feministek adierazten dute sistema kapitalistak doako eskulana behar duela zaintza lan horiek egiteko, sistema kapitalista bera sostengatu ahal izateko.

Horregatik, feministek pentsatu zuten lan munduan sartzeko eta soldata eskuratzeko autonomia ekarriko zuela; hots, etxekoandre izateari uztean askatasuna lortuko zutela, edo, behintzat, aukera berdintasuna bermatzeko urrats garrantzitsua izango zela. Gainera, familia eredu ere auzitan jarriko zuela pentsatu zuten, harreman ekonomikoak eta gizonen pribilegioak baldintzatuko zituztela. Baina ez zen horrela izan.

70eko eta 90eko hamarkaden artean, emakumeak lan munduan sartzeari ekin zioten. Emakumeek berehala salatu zuten soldatapeko lan horietan kapitalak erabili egiten zituela. Eskulan merkea ziren, zabalkunde ekonomikoa zegoenean erabiltzen zena, baina krisi garaietan lehenak ziren kaleratzen. Bigarren mailako langileak ziren: enplegu askotan aritzea ukatzen zitzaizkien, eta lanpostuak hartzean, emakumeen estatusa eta soldata txikiagoa zen. Espezializazio handirik eskatzen ez zuten lanpostuetan jartzen zituzten emakumeak, errutina handiko lanpostuetan.

Zaintza lanarekin edo etxeko lanekin harremana zuten enpleguak lortu ohi zituzten emakumeek sektore feminizatu izendatu izan direnetan: haurtzain, etxeko langile, adinekoen zaintzaile, etab. 1992ko azterketaren arabera, 16-20 urte bitarteko nesken % 60 etxeko laguntza edo garbiketara enplegatzen zen, % 20 merkataritzan eta % 20 ostalaritzan. Emakume horiek ikasketak utzi zituzten eta beste esparru kualifikatu batzuetan enplegatzeke formakuntzarik gabe, etxeko eta zaintza lanetan soilik lan egiteko aukera zuten. Lan mota hori orduakoa zen, eta 3tik 2 lan kontratu barik zeuden (Astigarraga, 1992).

Esan bezala, 70eko hamarkadatik aurrera, ezkondu edota seme-alabak izan arren, enpleguari eusten hasi ziren emakumeak, bai independentzia ekonomikoa izateagatik, baita familiako gastu ekonomikoari aurre egiteko beharagatik; era berean, aipatzen zuten enplegua ere bazela etxeko monotonia eta asperduratik ihes egiteko modu bat, jendearekin harremanak izateko. Independentzia ekonomikoaren garrantzia gazteenek aipatzen zuten (Astigarraga, 1992).

Azkenik, etxeko aingeruek garaira egokitzeke eraldaketa gertatu zen: hala, 41 urtetik 65 urtera bitarteko emakumeen artean, bi errealitate zeuden: lan finkoa zute-

na, batetik, eta ezkutuko ekonomian enplegatzen zirena, bestetik. Azken horiek ibilbide profesionala gazterik hasi zuten, formakuntzarik gabe, baina ezkondu edota ama izatearekin batera, enplegua utzi zuten, seme-alaben zaintzaz arduratzeko. Behin seme-alabak hazita, lan merkatura bueltatzeko beharra eta gogoa zuten: lehen arrazoia familiari laguntza ekonomikoa emateko beharra zen, eta bigarrena independentzia ekonomikoren premia; gutxiengo batek aipatzen zuen enplegua “behar zutela bizitzeko” edo gustuko zutelako egiten zutela. Hala, enplegatze aukera bakarrenetako etxe eta zaintzaren arloa zuten.

Garaiko lan merkatu ezegonkor horrek eta, zaintzaren alorra aukera bakartzat izateak ondorioak zituen emakumeengan: gazteenen kasuan, gurasoen etxetik ateratzeko aukerarik gabe aurkitzen ziren; hala, bikotean bizitzeko edo ezkontzeko adinak gora egin zuen, baita ama izateko adinak ere; era berean, independentzia ekonomikoa eskuratzeko zailtasunak zituzten. Bestalde, emakumeak ziren fabriketan kanporatzen lehenak, edo lana uztera behartzen zituzten presio eginez, ezkontzean, amatasun baimen edo eszedentzia eskatzean eta abarretan:

Ba ni txokolateixan hasi eta han 2 urte ingo neben? 22 urtekin ezkondu in nintzan. Orduan ezkonketako lana isten zan. Hori aldatu da, hoixe aldatu dala...Txokolaitehan gebitzela gallega bat euen, gizonak han itten eben lana eta beak be bai. Euren estauan, eta itten zan txokau pill bat emakume ezkondu bat txokolateixan lanian egotia. Eta orduan, urten? Por supuesto que baietz. Eta denpora gutxixan aldatu zan...*Pilar*

Nire denporan hasitta euzen fabrikan geraketan, Fagorren eta...Baina akordaitten naiz nik jarraitu nebenian, neri gizonak esan nontan: “zetako? Nik manteniuko zaut” “Baina nik neria be gurot eukitia”. Lehenguak ondiok inddarra eukan...*Maria*

Dena den, klase ikuspegiak eta enpleguak euskal emakumeen belaunaldi berriaren identitatea baldintzatu zuen: Emakume Abertzaleen Batzako emakumeek jarritako oinarrien gainean lkastoletako andereñoek irakatsitakoaren ondorengo ziren, identitate kultural eta politikoko heldua zuten, baina ez zuten bat egiten “ama kulturalaren” ereduarekin. Genero eta klase borroka garrantzi nabarmena hartuko du, eta emakume feministek ama eta zaintzaile roletik aldentzeko saiakerari ekin zioten.

Funtsean, enpleguarekin –hori prekarioa izanik ere– autonomia ekonomikoa lortu eta senarraren zein seme-a-



laben aurrean beste toki bat hartu zuten emakume horiek, jendartean. Hori horrela, belaunaldi berdintsuko emakumeen artean ezberdintasun sozioekonomikoa nabarmen handitu zen: soldatapeko lana zutenak eta ez zutenak. Ekonomikoki independenteak eta gizonaren mende zeudenak. Hori horrela, urteak pasa ahala, etxetik kanpo lan egitea nagusitu zenez, egun, 60-70 urte bitarteko emakume asko damu dira ezkondu ondoren enplegua utzi izanaz. Arrazoi nagusia da euren dirua irabazteko premia sentitzen zutela, hipotekaren gastuei, seme-alaben unibertsitate kostuei edota aisialdi eredu kontsumistari aurre egiteko. Hala, etxeak garbitzeari, haurrak zaintzeari edo zerbitzari modura enplegatzeari ekin zioten:

Umiak behin hazitta haurtzain ibili gara, bixok. Lana etxian be baeuen, baina, onena, hilian azkenian dirua zeukala. Umiak eskolan, etxia pagaitten...dirua bihar zan. Alabak kanpora estuixaittera urten ebeinian eurei emuteko dirua eskuan eukitete be, ondo etorten zan. Oin eskolan be lehenau hasten dia umiak eta hobeto konponketan dia familixak, baina lehen ez euen gardeixa eta istoixarik. *Pilar*

Enpleguak emakumeen identitatean eragin zuen aldatetari erreparatuta, esan daiteke klase zapalkuntzaren kontzientzia areagotu zela 80ko hamarkadan. Kontraesanak kontraesan, emakume belaunaldi gazteak irmo defendatzen zuten etxetik kanpo lan egiteko eskubidea, baina, askok euren amek izandako bizimodua gaitzesten zuten: alde horretatik, mendearen erdialdeko “emakume basen” alabek dioskue, ama etxetik kanpo lanean ikustean, lotsa edo atsekabea sentitu izan dutela: langile klasekoa izatearen lotsa, “ama kontzientearen” rola gauzatzeko zailtasuna, ezbairik gabe. Mendearen



erdialdean, ohikoa zen emakumeek han eta hemen lan egitea, baina 70eko hamarkadan, “emakume hiritarraren” eredia zabaldu artean, euskal landa eremuan “etxeko aingeruaren” ereduak pisua hartu zuen: urbanizazioa gertatu zen, baserriatik kalera bizitzera joateko joera, familia nuklearra osatzea zen emakumeen nahia, eta etxekoandre izatea zen euren patua. Horregatik, lanaldi bikoitza zuten emakumeei, batez ere haur txikiak zituztenei edo adinekoei, interpelatzen zitzairen.

Ama ezberdina zan: beti lanian egon da. Ahizpetatik ni izan naiz afektibo gehixen bihar nabana, txikitatik, eta beak ez eukan denporarik: aittan arrebiak denda bat eukan eta almagazetara faten zanian egoten zan, garbitzen zauan eskola batzuk be bai, plaza aldian...mozten zauen jerseyak, puñuak eta eztakit zer, galtza finak arreglaiten eben...beti lanian zauan. Un poco huerfana de madre me he sentido. *Naia*

Garrantzitsua da, aipatzea, enplegua dirua irabaztea baino gehiago izan dela emakumeentzat: *Oñatiko emakumiak errekadutan* ikerlanean aipatzen da komertzio txikian enplegatzeak zer ekartzen zien dendariei: familiaz harago sozializatzeko eta nortasun indibiduala garatzeko espazioa. Agi denez, ordainsariaz harago, enplegu horretan, etxetik ateratzeko aukera, lagun taldea egin eta familiaz haragoko sarea egiteko abagunea ere izan da emakume askorentzat.

Esan dugu, 80ko hamarkadan ere, euskal emakumearen identitatearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat langilea izatea zela (Del Valle, 1985). Alde horretatik, Oñatiko landa eremuan zein eremu urbanoan, emakumezko gehienak etxean zein kanpo lanetan enplegatu izan dira, modu agerikoagoan edo ezkutukoagoan, kasuan kasu. Goizetik gauera lan egiten irakatsi zieten mendearen erdiko neskatilei; 70 eta 80ko hamarkadetan, ondotik, euren alabek berdina egin izan dute, baina bestela: langile eta ama izan dira, baina egoteko, ulertzeko, izateko moduak berrasmatu dituzte, eta, batez ere, lanaldi bikoitzaren izaera injustua salatu dute, etxeko aingerua eta amatasun intentsiboa zalantzan jarri eta, era berean, emakume hiritarraren kontraesanak azalarazi. Nola zaindu besteak nire desioak errespetatuta? Nola zaindu neure burua, eta errespetatua izan? Nola zaindu, beste emakumeak zapaldu gabe? Nola azaldu zaintza ez dela emakumeon kontu bat? Nola ulertarazi gizonei eta Estatuari, zaintza jasotzea eskubide unibertsala bada, halaberharrez familiaratik atera eta baliabide publikoz hornitu behar dela?

Arazoak izendatu zituzten, sistema patriarkal eta kapitalistan kokatu lehenbizikoz, eta eskaerak egin: 90eko hamarkadan, emakumeei euren beharrez galdetuta, hau erantzun zuten: haurtzaindegiak eskatzen zituzten, 26-40 urte bitartekoek batez ere, tratu txarrak jasandako emakumeentzako zentroa, gazteek eta helduek;



emakumeentzat formazio eta informazio puntu bat herrian; baita errehabilitazio zentroa, kultur etxea zein emakumeen kultur zentroa, azken hori egun lantzen ari dena.

Laburbilduz, lanaldi bikoitza emakumeen bizitzako konstante bat izan zen XX. mendean, baina betebeharrak zela ulertzetik, emakumeentzat injustua eta gatazkatsua zela esatera igaro ziren emakumeak. Hala, zainzaileak izan dira, betidanik, emakumeak, baina, garaian garai, garrantzi ezberdina izan dute amatasunak eta etxeko eta zaintza lanak: ezberdin ulertu eta egin izan dira, eta, nola ez, ezberdin uztartu izan dira kanpoko eta barruko lanak. Horretaz jardungo dugu datozen lerroetan.

### 3.2.2 Feminismoak eta amatasuna

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, 1945etik aurrera, Mendebaldeko munduan amatasunaren glospena eta familia nuklearraren eredia ezarri ziren, sexu moral kontserbadorea zuen gizarte baten esparruan. Bigarren olatu feminista, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadakoa, garai hartako mugimendu sozial eta politikoen babesean, behar zen moduan matxinatu zen horren kontra. Gudu zelaian kokatu zituen amatasun santuaren ideala eta familia patriarkala, ugalketatik kanpoko sexualitatea aldarrikatuz eta, emakume gisa, gure gorputzaz erabakitze aukera emanez, ugalketarako eta abortatzeko eskubidearen arloan aurrerapen garrantzitsuak lortuz, bai eta aldaketa soziokultural garrantzitsuak ere.

Hala ere, mugimendu feministaren matxinada hura ez zen guztiz ebatzi: amatasunarekin tirabira sortu zuen, ama izatea bera ere ukatzera iritsi zen, ugalketaren aurkako diskurtsoa sortuz, zenbait eremutan. Ez da harriztekoa, ulertzen bada amatasunaren zein erabilera interesatu egin duten historian hala patriarkatuak, nola kapitalismoak, elkarren eskutik. Amatasuna erabili dute emakumeak menderatu eta kontrolatzeko tresna gisa, eta etxeko eremu pribatu eta ikusezinera zokoratu dituzte. Amatasuna, betebeharrak gisa, emakumeen nahi eta desioentzat balazta eta oztopo izan da, finean, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta azken horien autonomia oztopatu ditu. Gizonak, ordea, zainketetatik aske agertzen dira, loturarik gabe, eta bizitza publikoan esku hartzeko aukera dute (Vivas, 2019:105).

Mendebaldeko feminismoaren bigarren olatu horren arabera, emakumeen askapena etorriko zen etxetik irteetan, haurren hazkuntza alde batera uztean eta lan munduan sartzean. Independentzia ekonomikoa lortuz

gero, amatasunaren arazoa desagertu egingo zela uste zen, eta horri buruzko hausnarketa sakonagoa egiteari uko egin zitzaion. Hori horrela, amatasunaren dilema eta kontraesanek feminismoa astindu zuten (Vivas, 2019:106).

1963an, Estatu Batuetan, Betty Friedanek *La mística de la feminidad* liburua idatzi zuen, eta azaleratu etxekoandreak bizi zuten isolamendua eta indarkeria psikologikoa zein ekonomikoa. Ustez ideala zen "etxeko ainguruaren" irudiari maskara kendu zion. Mendebaldean gerora sona handia izan zuen bere obrak eta, lehen aipatu modura, amatasunaren kontra altxatutako diskurtsoen oinarri izan zen. Generoaz gain, ordea, klase eta arrazaren arabera hainbat errealitate zeuden orduko Estatu Batuetan zein Europan. Aipagarria da, ikuspegi dekolonialetik, Friedanen obrari egin zaion kritika: Friedanen belaunaldiko emakume afroamerikarrak ez ziren etxean, zokoratuta, bizi ziren etxekoandreak. Gehienek lanaldi luzea egiten zuten enplegu prekarioetan, eta komunitate sareak eta auzo sare zabalak izaten zituzten, elkarri laguntzeko. Euren arazoa ez zen amatasuna, baizik eta arrazakeria, pobrezia eta lan prekaritateak. Alde horretatik, feminismo beltzak, beste bizipen subjektibo baten ondorioz, ama esperientziaren beste ikuspegi bat agerrarazi zuen. Eurentzat amak komunitatearen eta familiaren aldeko borrokalariak ziren. (Vivas, 2019:109).

Hori gurera ekarrita, esan daiteke, klasearen arabera eta landa urbanitate botere harremanaren baitan, amatasun esperientzia ezberdinak zeudela 70eko hamarkadan: batetik, landa eremuko etxekoandrea, nekazaria, abeltzaina eta ama zena; bestetik, kaleko pisu batean bizi zen etxekoandrea, zeina ofizialki soilik haurren eta gurasoen zaintzaz arduratzen zen, baina ezkutuan hainbat enplegu zituen: jostuna, saltzailea, aterki konpontzailea, etab. Azken horien ondorengoak izan ziren haurtzain edo etxeak garbitzen aritu zirenak.

1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, feminismoak amatasuna positiboki pentsatzeko erronka izan zuen. Amatasuna helmuga gisa bazterturik, intelektual eta ekintzaile batzuk beste gako batean hausnartzen saiatu ziren. Eurentzat erronkak ez zen amatasuna ukatzean, harago pentsatzean baizik: hazkuntzaren zama Estatuan jartzeaz edo ugalketa kanporatzeaz hitz egiten hasi ziren (Vivas, 2019:112)

Amatasunari buruzko hausnarketa feministak jarraipena izan zuen laurogeiko hamarkadako feminismo kultural eta feminista italiarrarekin. Desberdintasunaren feminismoa berdintasunaren feminismoaren hegemoniari kontrajarrita sortu zen. Berdintasunaren feminismoa liberalek, sozialistek eta erradikalek osatzen

zuten, eta bi sexuen arteko eskubide berdintasuna aldarrikatzen zuten. Desberdintasunaren feminismoaren eta berdintasunaren feminismoaren arteko eztabaidak goia jo zuen laurogeiko hamarkadan, mugimendu feministaren atzeraldiak eta pixkanakako instituzionalizazioak markatutako testuinguruan.

Amatasunaren aferari ekarpena egin dion beste korronte feminista aipagarria ekofeminismoa da. 70eko hamarkadan sortu zen, hasieran planteamendu esentzialista eta espiritualetatik abiatuta; laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, haatik, jarrera konstruktibistetatik abiatuta, feminismoa eta ekologismoa, genero ezberdintasuna eta krisi ekologikoa lotzen saiatu zen, amatasunari eta zaintzari berriz ere balioa emanez eta praktika horiek eta haien balioa unibertsal bihurtzeko beharra adieraziz (Vivas, 2019: 113).

Ama izan edo libre izan, dikotomia horretan planteatu da feminismoaren baitan eztabaida. Mugimendu feministaren gehiengoak zainketa lanak kolektibizatzea, desfamiliarizatzea, banatzea eskatzen du, ideia eta praktika antikapitalista gisa. Horren baitan, sistemarentzat haur europear eta zuri gehiago sortzea ez dela lehentasuna iristen diote beste batzuek: alegia, ildo anti-maternalistakoak. Feminismo liberalenak askatasuna eta berdintasuna soldatapeko lanarekin lotzen dituenean, etxeetan (eta etxeetatik kanpo) gertatzen den beste guztia gutxiesten du. Amatasuna pakete horren parte da. Badaude diferentziaren feministak: emakumezkoen ikuspegi esentzialistatik, amatasuna jendartearen askapenerako bidean emakumeen egiteko onena dela uste dutenak. Azkenik, badaude amatasun feministaren alde egiten dutenak: izan ala ez izan erabakitzeke eskubidedun sentitzen diren neurrian, ama izateko desioa dute eta hori ikuspegi feministatik egin nahi dute.

Azken horiek salatzen dute, besteak beste, soldatapeko lanaren mitoa errealizazio pertsonaleko bide bakar gisa, lan prekarietatea nagusi den testuinguru honetan. Enpleguak ez gaitu aske eta berdin egiten. Jakina, horrek independentzia ekonomikoa emango digu, baina horrek esan nahi al du hobeto sentituko garela lanpostu prekarioan, nahi ditugun pertsonak zainduz edo gure zaletasunak praktikatu baino? Jakina, lan merkatuko berdintasun helburuari ezin zaio uko egin, baina, zoritxarrez, enplegua, gehienentzat, poztasun iturri izatetik urrun dago eta ez du soldataz haragoko interesik.

Feminismo instituzionalizatuak esaten duenean, gutxi gorabehera esplizituki, lan egin, lehiatu, gora egin, arrakasta lortu... egin behar dugula, irudimen liberala onartzen du. Jarrera feministetatik amatasun neoliberal defenatzen da azkenean, non bizitza, zainketa eta

hazkuntza merkatuaren mende geratzen baitira. Nancy Fraser filosofoak dioenez, hori feminismoaren eta kapitalismoaren arteko adiskidetasun harreman arrisku-tsuan datza.

### 3.2.2.1. Presio bikoitza

Mugimendu feministatik salatzen denez, gaur egun, emakumeok presio bikoitza dugu: alde batetik, mantra patriarkalak agintzen duen bezala ama izatea eta modu jakin batean ama izatea, eskuliburu oso batekin, askotan kontraesankorra dena, besteek gugandik espero duten guztiaren presiopean. Bestalde, kapitalismo neoliberalaren mandatuari jarraituz, lan merkatuan arrakasta izan behar dugu, eta ibilbide arrakastatsua izan behar dugu, nahiz eta kasu gehienetan ahal den bezala bizi behar den, lan prekariopean, uko egin gabe, hori bai, haurrak edukitzeari.

Erditzen bazara, ia ezinezkoa da eguneroko malabaris-moen ariketa, alegia, hazkuntza, bizitza pertsonala eta enplegua bateragarri egitea. Kontziliazioa fartsa bat dela agerian geratu da: haurren zaintza lan merkatu prekarioaren menpe jartzera behartzen du, ordutegi aldakorrekin, soldata baxuekin eta lanaldi amaigabeekin. Emakumeak, gainera, gizonen aldean baldintza okerragoetan enplegatzen dira.

Amatasun patriarkal zein feminismo liberalaren idealak amak itotzen jarraitzen du, baina ama izatea, era berean, jendartearen begietara, emakumeen loria goren da. Geroz eta emakume gutxiago da ama, ordea; aukera hori, aitzitik, ez dator bat emakumeengandik espero denarekin: "kalkulatzen da hirurogeita hamarreko hamarkadan jaiotako lau emakumetatik batek ez duela ondorengorik izango, gehienetan ezin izango duelako, arrazoi ekonomikoengatik, arlo profesionalengatik, bikotekiderik ez izateagatik, etab." (2019:23). Izana ukatzen zaielako, ez dute izenik: ondorengoak dituen emakumeari ama deitzen zaio; bikoterik ez duenari, ezkongabea; bikotekidea galdu duenari, alarguna. Maria Fernandez-Mirandak dioenez, "seme-alabarik ez dugunok ez dugu izen propiorik, beraz, garena bezala definitu beharrean, ez garenetik egin behar dugu: ez-ama gara".

### 3.2.3 Hazkuntza naturala gaur egun

Badira gaur egun ere ama esperientziari dimentsio nagusia ematen dioten emakume gazteak. Ama izateko bulkada izan dutelako eta desiratik egin dira ama. Batzuk feminismora gerturatu ditu hautu horrek, beste

batzuk aldendu. Hazkuntza naturalaren ereduari jarraitzen diotenen artean ere, bada aldea: badira ezberdintasunaren feminismoaren aldekoak, baita feminismo erradikalarekin bat egiten dutenak ere. Aldeak alde, haurraren eta amaren behar fisiko, psikologiko eta emozionalak lehenetsiko dituen eredu baten alde egiten dute. Nola? Haurrak 0-3 urte dituen bitartean amarekiko lotura lehenetsiz, erditze naturalarekiko apustu eginez eta edoskitzea haurraren eskaerara eginez, besteak beste. Horrek dakar, kasu askotan, amak aldi batez enplegua uztea eta hazkuntzara dedikatzea.

Eredu zahar-berri horrek badu aurretik aztertu ditugun etxeoandreenarekin antzekotasunik: lehengo etxeoandreen ondorengoak dira, eta gaur egun ama gazte horiek eszedentzia hartu, lanaldia murriztu edo enplegua utzita hazkuntzara dedikatzen dira. Bien arteko genealogia ez da, ordea, lineala eta gatazka barikoa. Hain zuzen, hari horrek muturrak, etenak, korapiloak eta segidak ikusaraziko dizkigu.

Hazkuntza intentsibo ere esan zaio eredu horri, modu mespretxagarrian. Horren kontra daudenak sinistuta daude hazkuntza eredu horrek emakumea etxera zokoratzen duela eta independentzia ekonomikoa kentzen diola. Hala, feminista gisa hamarkadetako borrokari esker irabazitako eskubide eta askatasunetan atzerapausoa dela uste dute. Beste joera baten arabera, hautu hori hartzen duten emakumeak despolitizatu edo infantilizatu nahi dituzte. Epaia, iraina, errespetu falta eta nagusitasun moral zein intelektuala jasan behar izaten dituzte emakume horiek sarri askotan.

Hazkuntza naturala hautu pertsonal zein politiko gisa ulertzen duenik bada: euren aburuz, hazkuntza naturalak ez du ama etxera kondentzen, hazkuntza eredu hegemoniko, deshumanizatu, teknifikatu eta merkantilizatuaren aurrean alternatiba gisa ulertzen dute. Baina, badira dimentsio politikorik ematen ez diotenak: ama-haur lotura estuaren (apego) defendatzaile horiek inguru kontserbadore, familista, erreazionariotik datoz. Haatik, egun, Euskal Herrian hazkuntza eredu horren alde egiten dutenak ez datoz ingurune horretatik: gehienak edoskitze eta zaintza partekatuko talde eta espazioen baitan antolatutako pertsonak dira, eta amatasunaren esperientziari ikusgarritasuna eta zentralitate politikoa emateko helburuz egiten dute. Horiek, amatasun askatzaile bat defendatzen dute, kontserbadurismo tradizionalistatik urrun dagoena.

Hala ere, aipatu behar da hazkuntza idealizatzeko dagoen arriskua, izan iraganeko kulturen ispiluan begiratzaren direlako, izan amatasuna eta aitatasuna mitifikatzen dutelako, naturarekin harremanetan jarriz. Finean,

eredu horren helburua da hazkuntzaren balioespen feminista eta askatzailea egitea eta amatasun patriarkalarekin zein liberalarekin apurtzea. Era berean, emantzipatzeko amatasunak bat datoz kontsumo ekologikoko ekimenekin, autoritarioak ez diren hezkuntza ereduak, ekonomia sozial eta solidarioko sareekin... eta horien indarguneak eta mugak, seguru asko, mugimendu horien antzekoak dira. *Txantxiki* familia elkarteak eta *Jo-lastera!* dira Oñatiko adibideetako bi, azkena, oraintsu sortutakoa.

Finean, amatasun feministen ikuspegitik, hazkuntza eta amatasuna bergizarteratu egin behar dira, ez dira norberaren edo familiaren kontuak. Garrantzitsua ikusten da norberaren edo familiaren hazkuntza ereduak eredu sozialera pasatzea, amatasunean ere generoaren, klasearen eta etniaren arabera zapalkuntzak daudela azalaraztea eta berdintasunezko praktikak abiatzea. Kontua ez da ama edo aita jakin batek nola zaintzen duen zalantza jartzea, gure erabakiak oso baldintzatuta baitaude testuinguru sozioekonomiko eta lan giro arrotzengatik, baizik eta planteatzea zein sistemak bermatzen duen zainketarako eskubidea (2019:125). Gai arantzatsua ezbaierik gabe, hala edo nola guztiok bustitzen gaituena.

### EMAKUMEOK ZAINZEN DUGU

Emakumeek egiten dituzte etxeko lanen % 67,2 Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gainera, datuak okerrera egin du, 2013an etxeko lanen % 66,7z arduratzen baitziren emakumeak.

Badago aldea gizonen eta emakumeen egiten dituzten etxeko lanen artean ere. Zaintza lanei dagokienez, emakumeek egiten dituzte hezkuntzari eta haurren, adinekoen nahiz gaixoen zaintzari lotutako lanen % 65. Janariari lotutako eginbeharren (erosi, kozinatu, ontziak garbitu...) % 69 ere emakumeek egiten dituzte, baita etxeari lotutako (erosketak egin, garbitu, konponketak egin...) % 62 ere. Desoreka are nabarmenagoa da arropari lotutako lanetan (arropa erosi, garbitu, lisatu...), emakumeek egiten baitituzte lan horien % 83.

Egoera horrek isla du gizonen eta emakumeen etxeko lanak egiten igarotzen duten denboran. Gizonen % 89k bi ordu edo gutxiago igarotzen dituzte etxeko lanak egiten. Beste muturrean daude emakumeen % 27,5ek egunean hiru ordu edo gehiago pasatzen baitituzte etxeko lanak egiten. Desberdintasunak mantendu egiten dira 15 urte-

tik beherako seme-alabak euren kargura dituzten emakumeen eta gizonen artean ere. Batzuek zein besteek etxetik kanpora lan eginda, emakumeek 4,7 ordu pasatzen dituzte seme-alabak zaintzen; gizonak, berriz, 3,3 ordu. Gainera, emakumeen % 50,6k bost ordu edo gehiago ematen dituzte adin txikiko horiek zaintzen; aldiz, gizonen % 24,6k pasatzen dituzte hainbeste ordu. Menpekotasunen bat daukaten pertsonak zaintzea ere emakumeen gain geratzen da: emakumeak batez beste 2,3 ordu aritzen dira horretan, eta gizonak, ordu eta erdiz. Emakumeek egiten dituzten lan horiek guztiek barne produktu gordinaren % 18,6 izango lirateke; gizonak egindakoa, aldiz, % 9,1.

Etxeko lanetan ez ezik, etxetik kanpora egindakoetan ere badago aldea. Emakumeen % 60,5ek lanaldi jarraitua egiten dute, eta gizonen artean, % 50,3k. Gainera, askoz gutxiago dira zuzendaritza postuetan dauden emakumeak: % 34,23k dute gisa horretako lanposturen bat.

Eustat 2021eko martxoa



Arl005403. 1966

### 3.3. Ama naiz. Eta orain zer?

Atal honetan hiru belaunaldiren genealogia jaso dugu: badira emakume basak, 80 urtetik gorakoak, emakume langileak, 60 urtetik gorakoak, eta, azkenik, ama gazteen belaunaldia, 30 urtetik gorakoak. Soldatapeko lana eskuratzeak ez ditu sekula emakumeak etxeko lan eta zaintzatik libratu; ez 1950ean, ez 80ko hamarkadan, ezta gaur egun ere. Ama izatearekin batera, bizi proiektua euren bikote eta seme-alabekin partekatzea erabaki izan duten emakumeak, era batera edo bestera, besteentzat bizi izan dira: bikotea osatu, ama izan eta

senideen zaintzan inplikatu, egun eta gau. Amatasun anitzak, garaian eta tokian araberakoak daudela onartuta, etnografia honetan, haurren hazkuntzari lehentasuna eman dioten ahotsak gailendu dira. Jakitun gara, emakume langile askoren esperientziak ez daudela bere horretan jasota, baina ama horien esperientzia ulertzeko gakoak jaso ditugu ikuspegi feministatik.

Datozen lerroetan aletuko dugu zertan datzan amatasun biologikoa: haurdunalditik hasi, erditzearekin jarraitu eta ondorengo hazkuntza eta heziketak dakartzaten lan banaketan eta emozioetan arakatu dugu. Zer aldatu da? Eta zerk dirau?

#### 3.3.1. Ama ez da jaiotzen, egin egiten da

Emakumeok zaintzen ikasita jaiotzen garela uste duena oker dabil. Gaur egun geroz eta gehiago ulertzen da egitate hori, baina iragan mendean, oso errotuta zegoen uste hori. Gizon eta emakumeen izaera naturalean sinisten zenez, emakumeek berez ama sena zutela uste zen: adina iritsita jakingo zutela haurdun geratzen, erditzen, edoskitzen, zaintzen, arduratzen, hezten, maitatzen...Kontua da hori guztia ikasi beharra dagoela. Nola ikasi zuten iragan mendeko emakumeek, eta nola egungo gazteek?

Familia zabaletik familia nuklearrera emandako aldaketa gakoa izan zen ikasketa prozesu horretan. Familia zabalear hiru belaunaldi elkarrekin bizi ziren etxe berean: aitona-amona, senar-emazteak eta seme-alabak. Seme-alaba ugari izanda, alaba zaharrenak ikusten zuen amonak edo amak nola zaintzen zituzten neba-arreba txikiagoak. Ikusiz ikasten zen, apurka-apurka, ardurak hartzen. Panpinetan jolasteko beharrik ez zuen neba-arreba txikiagoak zaindu behar zituenak. Jolas hori, gerora, familia nuklearretako haurren artean ohikoa go bihurtu zen, familia ugarietako neba-arreben elkarzaintzaren imitazio gisa.

Izan ere, familia nuklearretan bi belaunaldi soilik bizi dira elkarrekin: senar-emazteak eta seme-alabak. Familia ugariak murriztu ziren 80ko hamarkadaz geroztik, eta gehienak bikoak izatera pasa ziren. Bi seme-alaben arteko adin tartea 2-3 urtekoa bada, batez beste, nola ikasiko du zaharrak gazteena zaintzen? Ikusiz eta eginez ikasteko aukerak murriztu dira, hamarkadak aurrera egin ahala.

70 urtetik gorako emakumeek neba-arreba gazteagoak zaintzen eta haurtzain ibilita ikasi zuten, gazterik, haurrak zaintzen. Gazteagoek, ordea, askoz zailtasun gehiago izan dituzte, zaintzaren kolektibizazioan eta transmi-

sioan eten bat gertatu zelako. Euren amekin harreman estuagoa edo hotzagoa duten, autoritate modura onaritzen dituzten ala ez, asko baldintzatzen du horrek bien arteko komunikazioa eta jakintzaren transmisioa:

*Amaia:* Nire amana jarraitu dot inkoszientemene, porke azkenian beak lana itxi eben dedikaitteko nire anaiari eta neri eta gero lanian hasi zan berriz, orduan, bueno, kao...ama ezta kotzunian gauza batzuk admirau itten dozu, eta informaziño danakin eta ondiok argixau geratu xaten, ostra ba igual nik gura doten bidia hau da; eta beak titixa emun nostan 3 urte arte, ne tiak esaten dost: “tu eres peor que tu madre!” osea imaginau, gaizki mouan hartzen da, a demanda titixa hartzeia. Barkatu, ¿como que peor? Umiantzako hori da hobeto! Baina negatibuan hartzen da. Edo zu umiari denpora gehixau dedikaitten baza, umia gaizki hezten zabitz!

*Maidar:* Nik hartu nebenian nire amak apollau nostan totalmente, esan nostan: “oso ondo ume!” Nere amak titixa ez nostan emun: emun nostan 2 hilabete, baina orduan hasi zan leche en polvo eta se la metieron, golazua, eta titixa emuten errespetau dost, totalmente. Eta nire ondoko jentia ez.

*Itziar:* Amakin pasaitten xat: “nik esaten dotena ingot edo zuk esaten dozuna in bihar da?” Batzutan da: nire semia da eta nik erabakiko dot. Baina zeatik sartzen da nire modutan? Bea autoridade mouan rekonozitu baneben, ba onartu ingo neben beak badakila eta bere rollua jarraituko neben, baina ez da hola. Hala ta be, ni Gasteizen bizi nintzan eta ez neben pentsaitten etortia ni de palo; gero hona bueltau ginan, pentsauaz momenturen baten laguntza bihar badozu, ze beti bihar izaten da, familia gertu eukittia...

XX. mendekoek ikusiz eta eginez ikasi zuten era berean, egungo ama gazteek, lagunartean, liburuetan, sarean bilatzen dituzte beste ama batzuen esperientziak eta horietatik ikasiz egiten dute bide propioa: nola erditu nahi duten, zein motatako *apegoa* eta edoskitzea hobesten duten, haurra nola tratatu, ama izateak euren burua nola eraldatzen duen, bikotekidearekin zaintza nola banatu eta negoziatu, etab.

*Itziar:* Hasierako erabakixak, ba haurdun neuela liburutan begira eta lagun batek esan nostan euela osasun mental-perinataleko formakuntza bat eta nik umiak eta familiakin lan itten dot, eta gehixau izan zan lanatik, baina total izan zala jota interesantia nerretzat ze hor irakurriarazi oskuen bes-

te emakume pilla baten partuak, esperientziak... horrek asko aportau nostan. Ikustia ze ezberdinak izan leken. Pedrada horrek emun nostanez,...Jonek esan nostan zuk erabaki eta nik apoyau ingotsut, ze zuk erditu bihar dozu eta ezpada hola zeoze oso...Beste alde batetik, parte komodia bikotiana da ba in zuk, baina..

*Amaia:* Ni gustora neuen hori itten, ta uste dot engantxau itten dauela, ze hasten za irakurten eta gauza bat eta bestia...luana eta ...eta umia txikiña dala ba hori, goizeko laurak, eta hasten zara irakurten...Ulerketako gehixau umiak itten dauen gauzak eta pasaitten dian gauzak, porke batzutan, porke azkenian, beste epoka baten, etxian bizi zian askoz gehixau, ikusten ze ben beste ume batzuk hazten, nahiz eta zuk ez...beste ume batzuk egon dia etxian eta ikusten ze ben, baina nire kasuan ezta hola.

*Itziar:* Hori danerako, ez? Erditzia, zaintza, osea... bueno, nik dakot akordaitten naizena neri zela zaindu dostain, baina ezta uena hola...bizitza indibiduala eta familiak nukleoka dauzenez, ez? Ez dosu hainbeste ikusten bestiak zer itten dauein.

*Amaia:* Baina bueno, ni alde batetik, pentsaitten dot, bueno, etxian egonda gu eta etxian hazitta umiak guk gurun mouan inddula be bai, ez? Alde batetik bentajia ikusten dot, ez eukittia eskola hori, ze bestela beste era batera ingo neben, eta oso pozik nau itten nabilen eriak, ezta kit zela esan. Osea, topau bihar izan dot bizitzia, irakurri etab, baina tendentzia globala jarraituko baneben, beste era batera ingo neben...

Lehenengo hilebetetan, osea segun zeñekin itten dozun berba: “eske nire amak esaten dost bi ordura titixa fuera o bi ordu ez badia pasau etxatela emun bihar, eta kao, kaso itten baxatzu influentzia horreiri, zabitz zure eredu hori jarraitketan planteau barik hori dan gura dozuna. Ezta kit, jentia zer in dauen (barre) dakoten sensasiña da, igual ezta realdadia, irakurri eta gehixau ibili dana indagaitten, beste era batera inddauela gauzak, ez igual gure modura hainbeste luzatuta eszedentziak, izan leke motzauak, baina beste era batera bideratu dauela gauzak. Eta igual hainbeste irakurri ezta uenak ba familixatik eta bean inguruko erreferentziatik jaso dauena in dauela.

Aipagarria da amatasunaren esperientziak trukatzeko, partekatzeko eta prozesu horretan babesa jasotzeko zein emateko sortu diren bitarteko berriak: edoskitze

taldeak eta Internet bidezko sare sozialak. Sare horietan, aukera berriak sortu dira informazioa eskuratzeko eta partekatzen. Gazteek aipatzen dute oso baliagarria zaiela bertan aurkitzen dutena eta hori gabe galduta leudekeela:

Umia eduki aurretik irakurri neben Lactivistas eta beste psikologa batzuk. Neretako inportantia izan zan laktantzia taldetan parte hartzea; adibidez Bersartean laktantzia eta hezkuntza taldea. Gasteizen dau eta bertara fatia zaila itten xaten askotan, baina Internetetik be konpartituen daue informaziñua eta lagundu dost. Ni haurdun neuela fan nintzan eta gura neben behatu, bestiak entzun eta sentiu, etorkizunian eduki ahal neben zailtasunetan eurrakin kontau nekela. *Itziar*.

Whatsapp talde baten be egon nintzan, 0-3 urte birtarteko amentzat. Osasun sisteman lanian dauzen Andaluziako emakume batzuk sortu ebein, Estatu mailan zabaldu da, 200 eta piku pertsona geuzen. Jaeneko neska baten bittartez, Oñatin bizi zala, hanguekin talde bat osatu geben. Orduan, sentituen neben jende asko euela nire moduan, ez naitzela la rara de turno subnormalana itten dabilena. Igual eztozu hemen inguruan ikusten baina beste jende asko dau. *Amaia*.

### 3.3.2. Haurdunaldia

Haurdunaldiaz geroz eta gehiago hitz egiten da; aurreko mendean, batez ere frankismo garaian, ugalketa goraiatzen zen, baina emakumeen gorputza guztiz ezkututzen zen, prozesutik baztertu, desagerrarazi. Helburua ez baitzen haurdunaren ongizatea, haur berri baten jaiotza baizik. Ikuspegi patriarkaletik, oraindik ere, haurdunaldia da emakumezkoen bizitzan garrantzitsua. Ugaltzea helburu ez duen sexualitatea ez da garrantzitsua jendartearen begietara, eta gaitzetsi ere egiten da.

Orain ez bezala, ugalketa prozesua tabua zen iragan mendean: nola jaiotzen dira haurrak? galderari gezurrekin edo isiltasunarekin erantzuten zieten gizon-emakume helduek:

Asko akordaitten naiz ni: “Ama, umia zela jaixo da ba?” “Don Bixentek poltsikan ekarri dau”. Egirik etzan esaten orduan, ezin lekien esan...Baina, Don Bixentek zela ekarriko eben ba poltsikan? Eta amak: “bai, bai, bai...barruko poltsikia haundixa dako eta hantxe”. Eta gero Jabier jaixo zanian: Zigueñiak ekarri ei eben. “Eztozu ikusten zela

datozen txori haundixak? Horretxek ekarte daue hankatan”. Edo “Zizurkildik”, nik repetituko zaila zalako edo... *Maria*

Tabua izaten zan hori eta andrazkuakin lotutako dana: reglia zer zan be ez oskuen esplikaitten. Bueño, nik suertia eduki neben: gure ahizpa zaharrena Garañen euen kriara eta harek beak zela oso gaizki pasau eben, ba neri preparau nontan danakin. Orduan paños higienikos eruaten zian, ez euen konpresarik ez ezer. Eta harek preparau nontan dana aurretik. Eta ba gero reglia etorri, kalia kriara nauela etorri xaten eta...Baina lotsatu amai esaten. Lehen gekuan bilddura gauzak esateko; nik uste dot eurak be ez euzeila gertatuta. *Pilar*

XX. mendean emakume gehienak lehenbizi bikoteki-dearekin ezkondu egiten ziren eta, ondoren, haurdun geratu. Arau sozial, moral eta erlijioso hori ez zen, baina, beti betetzen. Salbuespenak ziren, ezkondu baino lehen haurdun geratzen zirenak, baina, geroz eta gehiago ziren. Hala ere, estigma handia zuen ezkondu bariko emakume haurdunak, horregatik, euren buruak babes-teko, haurdunaldia ezkututzen zuten, ezkondu arte.

Lehen oso aguro ezkonketan zan: ni orduan gañera enbarazuta ezkondu nintzan. 1967an. Orduan, garai hartan bakizu zer zan? Ezkonketako egunian goizeko 7etan Agustiñotara konfesaittera. Komuniua hartu bihar zan, pekatu mortala zan orduan hori e? Amari esan notsan eta inori gehixau ez. Eske orduan ezin zekien esan, nik nire lagunari be ez notsain esan e. “que mujer mas fresca” esaten zan. Baina esangotsut gauza bat: orduan jente asko, empezando por la mujer de Julio Iglesias, habia tenido sietemesino. Baina hemen be pasaitten zan: “abanzauta dako...zazpikixa dako”. *Pilar*

Haurdunaldiak geroz eta gehiago planifikatzen dira eta horretarako baliabide gehiago egon da, batez ere 80ko hamarkadaz geroztik. 90eko hamarkadan, gehienek ezagutzen zuten planifikazio zerbitzua, baina oso gutxik erabiltzen zuten. Zerbitzu pribatuetarako joera handia zegoen, ginekologia zerbitzuan batik bat (Astigarraga, 1992). Hori baino lehen, ordea, urria zen antisorgailuen ezagutza eta erabilera, eta, hala, emakumeak nahi gabe haurdun gelditzen ziren.

Orduan banaka batzuk geratu giñan haurdun de penalti, Oñatin eta Mondrauen be bai: Paki, Meritxe, ni, beste mondrauetar bat...ze orduan ez gendun hartzen antikonceptiborik eta martxa atras ibiltzen ginan, itten giñuan...noizbehinka...oin hartzen dan moduan? Keba. *Naia*

Abortua, legez kanpoko ez ezik, moral kristauaren kontrakoa ere bazenez, emakumeek espero bariko haurra izan ohi zuten, batzuetan, euren desioaren kontra:

Lehenegua etorri zan, bigarrena etorri zan etorri in bihar zalako, hirugarrena bila fan nintzan, gura neben ze sensasiño eukitten dan...eta laugarrena sustuan etorri xaten! Eta kunan ikusi artian ixa ha sustua etxaten pasau. Ni akordaitten naiz esaten zebela: “nik laugarrena zertako ekarri bixonat, zetako?” Bai, orduan batzuk, abeatzak eta, orduan inglaterrara faten zian abortaittera eta nik ezto sekula buruan eduki holakoik baina, “zertako ekarri bixonat?” Zenbat ikusi dozun, hainbeste estimaitten dozu e, bai lehenengua eta bai azkena. Danak e. *Pilar*

### 3.3.3. Erditzea

Erditzea prozesu fisiko eta emozionala da, eta garaian eta tokiaren arabera ulerkerak, espazio eta izaera ezberdinak izan ditu. XX. mendearen erdira arte, gutxi gorabehera, auzoetako erditzetan emaginek laguntzen zuten Oñatin. Apurka-apurka, medikuaren esku-hartzea hedatzen joan zen eta gerora, osasun zentroan erditze-ko joera nagusitu da.

Erditzea medikuntzak bereganatu zuen XIX. mendean: ginekologia, pediatria eta obstetria gizonen diziplina bihurtu ziren; emakumeek ez zuten sarbiderik diziplina horietara. Emaginek euren lana alboratu behar izan zuten, medikuen esku-hartzea hobetsi zuelako jendar-teak. Bizitzaren jaiotza eta emakumeen gorputza botere erlijioso eta jakintza tekniko-mediko-merkantilen esku utzi zen. Medikuentzat erditzeak praktika serioa zirela ez dugu zalantza egin gura, baina bada pasarte bitxi bat herriko medikuarena, Amaiak kontatu nahi izan duena:

Nere amamak kontaitten doztan nere tio bat jaixo bihar zanian jain bat zala. Medikua etxera etorri zala juerga iñdda ta ondoko ohian sartu zala ta lo hartu. Iratzarri iñ bihar izan otzala umia ia urtetzen euela. *Amaia*

Hala, emakumeen arteko elkartasun eta jakintzaren transmisiorako modu bat galbidean dago. Pilar eta Mariaren ama emagina zen euren auzoan. Eurentzat, amaren jarduna elkartasun keinu bat zen:

Emakume oso ona zan: Elordu in umiak jaixo bihar dau? Ba gure ama fan itten zan partera. Urikon umiak jaixo bia dau? Ba hara faten zan partera. Sanloentzo eguna, garai hartan, ba egun haundi-



xa zan gure auzuan eta aldeku in umia jaixoten, eta konbidauak etorteko, gu umiak e? Eta bazkai-xa gertaketia itxi eta partera fan zan beste itxera. *Maria*

XX. mendean, amatasun zientifikoa hedatu da; ama ona da, nolabait, espezialisten gomendioak jarraitzen dituen:

Lehen danok medikuak esaten ebena itten geben. Gaur egun norberak erabakitten badau etxian gura dauela euki, etxian; gura badau bañeran, bañeran; norberak zer gura dauen hoixe. Baina nik ezta kot hutsuneik bapebe bezta hola euki dotelako. *Pilar*

Hala, hazkuntzari buruzko liburu eta aldizkari andana sortu zen, gizonak sortutakoak edo emakumeek ebatzita, jakintzaren transmisio interesatua egiteko. Emaginetatik medikuetarako aldaketa horren irakurketa feminista egin zuen Itziarrek, haurdun zegoela:

Hor ikasi neben transformaziñua emun zala, emaginetatik medikutarra. Andra batetik bestera pasaitten zan ezagutza bat izatetik, gizonan filteratik pasaittera eta zientziaren izenian erauzi indaueila amatasuna. Patriarkatuak ostu doskula amatasuna eta umian eta aman binkulua apurketiak eragina dakola gure garapen sozioemozionalian. Eta zela horrek onura itten xauen sistema kapitalista konsumistari: pulsiñuak dakulako, hutsune horreik bete guran...Hor badauz Casilda Rodríguez eta beste batzuk. *Itziar*

Haurdunaldia medikalizatu den era berean, medikalizatu da erditzea bera. Aurreko mendean, 80ko hamarkada arte, emakumeek bizitza normala egiten zuten,

edo saiatzen ziren, erditu arte. Erditu ondoren, aste bat ohean, osatzen igarotzen zuen amak, haurrarekin:

Gure amak lana, lana eta lana. Hau jaixo zanian julixua zan, souan ibilita, etxea fan, Don Bizenteridiar in eta jaixo in zan. Ama lehen aste bete egoten zan ohian. Ollua itten zan, ollo saldia hartzen zan. Ollo iztarra gizonak jaten eben (barre). Andriari saldia eta iztarra gizonari, esaera bat da. Oin berriz familixia euki eta segidan kalian dauz. *Pilar*

Erditutako emakumeek diotenagatik, erditze bakoitza ezberdina da: modu ugari dago eta aurreikusi ezin daitekeen prozesua da neurri batean. Erditze naturalak izaten ziren, iragan mendean, egun, ordea, aukeran ematen zaie haurdunei era naturalean erditu nahi duten edo epiduralarekin egin nahi duten. Erditze naturalaren ezaugarri nagusietako bat sufrimendua eta mina dira:

Lehen esaten zan emakumiak familixia izandakua baldinbada, sufrimentua eta konformidadia askoz gehixau dakixela zer dan. Natural euki dauenak. Eta esaten zan: Lehenengo umia andriak ta bigarrena gizonak ekarriko baleke, gehixau ez leke ekarriko iñok pe. *Maria*.

Erditzea prestatzeko bitartekoak berriak dira; adibidez, gimnasiak. Osasun zentroan egiten dira eta positiboki baloratzen dute baliabide hori emakumeek:

*Maria*: Nik sufriu neben, baina gimnasiatan ibili nintzan. Neri asko lagundu nontan. Han ikasi neben arnasia hartzen eta kontraziñotan ze posturatan egon bihar dosun. (44 urte ditu alabak)

*Pilar*: Ni ez nintzan ibili, ez euelako. 22 urtekin euki neben, oindala 52 urte.

### 3.3.3.1. Indarkeria obstetrikoa

Haurdunaldian, erditzean eta erditze ondoren, indarkerian oinarritutako jardunbide medikoei indarkeria obstetrikoko deritzo. Genero indarkeria mota bat da. Era askotakoak dira emakumea menderatzen edo gutxien duten osasun langileen jarrerak eta egiteko moduak. Horrek eragin fisiko eta psikologikoak ditu emakumearengan eta haur jaioberriarengan.

Haurdunaldia, erditzea eta erditze ondorena patologizat hartzen dira, eta haurduna gaixotzat. Amen gaitasunek egin izan dute jaiotza posible historian zehar. Prozesu horren medikalizazioarekin, jaiotzaren izaera aldatu eta osasun kontua bihurtu da, medikuek esku

hartu beharrekoa. Prozesu horretan emakumeen iriztiak ez du garrantzirik eta amak ikusle izatera zokoratzen dira edo haur baten eramaile hutsa izatera. Osasun sistema hierarkikoa eta patriarkala da, eta prozedura horiek emakumeen eta haurraren onurarako dirrela esanaz justifikatzen dira; jendarteak onartzen ditu, baita indarkeria hori sufritzen duten emakumeek eta euren gertukoek ere.

Espainiako estatuan, XX. mendearen bukaeran hasi zen indarkeria obstetrikoko hitz egiten. Lehen, indarkeriazko erditzeaz edo eragindako erditzeaz hitz egiten zen (Vivas, 2020:168).

Maila fisikoan, hainbat indarkeriazko prozedura daude: baginako ukipena, ohiko episiotomia, forzeps didaktikoaren erabilera, medikuntza ikasleek praktikatu dezaten; Kristeller maniobra, haurdunaren sabela umetokirantz gogor sakatzear datzana, haurra azkarrago atera dadin; beharrezkoak ez diren zesareak edo Hamilton maniobra: behatza umetokiaren lepotik sartzean datza, ur poltsaren mintza hautsiz eta hala, erditzea eragiten da. Praktika horiek guztiak, sarri asko, emakumeen baimen barik egiten dira eta zer ondorio dituzten haurdunari behar bezala jakinarazi barik. Itziar eta Amaiak, euren haurdunaldi eta erditzeetan, harreman ezberdinak izan zituzten osasun langileekin. Itziarrek bere haurdunaldiaren jarraipen saioetan izandako tratu desatsegina kontatzen du, eta kontakizunak Amaiarengan zalantza pizten du: ez ote zioten Hamilton maniobra egin, berak jakin gabe.

*Itziar*: Kontrolak allau zian eta monitoretara deiketan dotsue: zinturoia jarten dotsue kontrakziñorik dakotsun rebisaitteko. Eta, akabera hori gaizki bizi izan neben, ze fetxatik pasaitten bazara probokau itten dotsue. Ez neben gura interbentziñorik, eta horrek suponiuko eben hospittalian erditzia. Orduan presiño hori neukan.

Eta zintotan, tipia etorten xaten, que firmara los papeles del epidural. Insistiu nontan hainbeste, azkenian sinatu in nebela! Sentiu dot osakidetza-tik, hainbatetan, protokolo oso zurruna dakoila. Zu euran etxera zoiaz eta euran arauak bete bihar dozula.

Zintotara eztaueila jareten sartzen bikotia. Ze tontokixa? Gero, bideo bat grabau bihar ebeila eta aber baimena emuten neben...osea, ez nostain pakian isten.

Monitore ondoren, ginekologuana pasaitten otsuen eta entzunda neukan, batzutan, baimenik

eskatu barik taktua ittera oizen moduan, itten xaueila tactos dolorosos, maniobra de hamilton. Horrek errezten dau erditzia. Eta ez neben gura eta sartu nintzan tensa. “kendu frakak” esan nontan. “Pues no me voy a quitar los pantalones!” esan nontan. Tipia flipauta... “si me vas a hacer hamilton o esa movida, no pienso dejarte” (barre) “Hamilton no es ninguna movida. Hurrengo zatozenian bai edo bai...” Osea, ittia gura nostala...

*Amaia:* Ostras, ba orduan hori in nostain neri. Osea, kriston miña in nostain eta takto bat in bihar nostala esan nontan.

*Itziar:* Ezta seixua emakumia engañaittia, pentsaitten xat agresio bat ixa. Esplikau gauzak eta norberak erabakiko dau, ez? Gero osasun sistemian oso jerarkikua da eta pazientia da azkena. Erabakitteko eskubidia egon bihar da, ahal danian behintzat.

Epiduralaren onurez eta kalteez mintzo dira eta bat datoz: haurdunak nola erditu nahi duen, epiduralaren laguntzaz ala barik, aukeratzeko ahalmena izatea onuragarria da. Alde horretatik, osasun sisteman apurka-apurka indarkeria obstetrikoren kontzientzia hedatzen ari dela diote. Mugimendu Feministak egindako lanari zor zaiola gehiegi esaten ez bada ere, lehen eta oraingo haurdunek tratu ezberdina jasotzen dute. Egun, erditze eta edoskitze naturala sustatzearen alde agertzen dira geroz eta osasun langile gehiago:

Hospitaletan gauza asko dabitx aldaketan: saiketaren ez separatzen umia eta ama, edo laktantzia sustaketia, gure aman garaixan ez. *Itziar*

Hala ere, argi dute: oraindik ere, euskal osasun sisteman ez dago indarkeria obstetrikoa guztiz ekiditeko modurik; langilearen araberakoa da tratu ona ala txarra jasotzea.

### ETXEAN ERDITZEA

Beti eduki dot a ba...que guay etxian erditzia... Baina erabaki neben etxian ittia. Saiatu itten zara baina eztau zure esku, baldintza batzuk bete bihar dosu. Ereitta egotia komeni da, zentzu horretan. Bikotia apollau nontan eta seguridade asko emun nontan asistiuko nontan emagina ezauketiak.

Esango neke Osakidetzan bertan diferentziak dauzela, matronatik matronara. Suerte kontua da. Inportantiaua zan zeñekin, non baino. Nik horrea-

tik erabaki neben etxian ittia; banekixelako zeñek asistiuko nontan. Nik bihar neben pertsona hori ezautu eta elkarezautu. Nik bizitzan behin edo bittan erdittuko badot, eta parian borde bat tokau xatelako eztoz gura momentu hori gaizki pasau; bizitza danerako da. No me la queria jugar.

Ez pentsau etxian in nebelako kandelakin in nebenik. Etzan bapebe mistikua izan, batoi batekin... oso kutria izan zan. Batzuk min barik, orgasmo eta guzti...ze puto timo bizi du? Nik hori biot!

### 3.3.4. Edoskitzea

XIX. mendearen amaiera arte, haurren elikadurarako iturri bakarra amen edo inudeen bularra zen, baina ordutik aurrera, gauzak aldatzen hasi ziren herrialde industrializatuetan. Edoskitzearen kulturak izan ditu harrezkero gorabeherak: batetik, behi esnearen eraldaketan emandako aurrerapen zientifikoak, haurrentzat edangarri eginez. Bigarrenik, jendarte industrialen sorrerarekin, emakumeak etxetik at soldatapeko lanean hasi ziren, esne artifiziala naturala baino hobea zela iradokitzen zuten ahotsak gailentzearekin batera. Hirugarrenik, biberoiaren defentsan atera ziren medikuak eta esku hartzen hasi ziren bai erditzean, bai hazkuntza prozesuan ere. Emakumeek sinistu egin zuten, hein batean, biberoiak libreago egingo zituela eta lan merkaturako guztiz erabilgarri egotea posible egingo zuela. XX. mendearen erdian, bularra ez ematea modernitatearen eta garapenaren ikur bihurtu zen (Vivas, 2020:241). XXI. mendearen hasiera honetan, ordea, bularra ematea hobesten da, arau batzuen barruan, eta artifiziala gaitzesten da.

Historiari begiratuta, biberoi ematea oso praktika berria da. XIX. mendearen amaiera arte ez zen erabiltzen hasi. Ordura arte, emakumeek edoskitzeko zuten gaitasuna ez zen zalantzan ipini. Haurrak edoskitzen zituzten, izan amek, izan inudeek. Amaren ezintasun batengatik haurra edoskitu ezin zuenean, esnerik ez zuelako, lanagatik, nahi ez zuelako, gaixo zegoelako edo hil zelako, inudeengana jotzen zen: bularrean esnea zuten emakume haiek eta gertuko emakumeen haurrak edoskitzen zituzten, ordainpean edo doan. Espainiako estatuan inudeen tradizioa XVII. mendekoa dela uste da, nobleziako familiei ematen zitzaizen zerbitzu gisa. Estatuko inudeak Iberiar penintsularen iparraldekoak zirela uste da: Galizia, Asturias eta Euskal Herrikoak. Emakume nekazariak eta abeltzainak ziren (Vivas, 2020: 257). Egun, inudeen ofizioa desagertu bada ere, oraindik ere, besteren haurra edoskitzeko praktikak badira, modu informalean kasu gehienetan:

Oin dala zazpi urte nere koinatian aitta ospitalian euen eta bea aittakin. Bere umiak titixa gura eben larri. Ba kontaitten dau, aman etxia garbiketan otzanak emun otzala titixa ta umia lasai asko gelliditu zala. *Amaia*

Azken hogege urteetan, esne artifizialaren industriak bost aldiz handitu ditu bere irabaziak. Egun, sekula baino haur gehiago elikatzen dira biberotik. Biberoiaren erabilera hedatu zen, bere ordutegi zehatzekin, etxeko aingeruaren belaunaldian, 60 eta 80ko hamarkadan, haurra zaintzeko osasun gida berri baten eskutik: errezeta berriak iradokitzen zuen hurrek bakarrik lo egin behar zutela, nekatu arte negar egin behar zutela, txupetea eman behar zitzaizela eta eskuetan asko ez zirela hartu behar, bestela, gaizki ohitzen zirela:



Titixa lotua da. Lehen hiru ordutik hiru ordura. Bestela gaizki ikasten ebela pentsaitten zan. Eta lepuan etzala hartu bihar esaten zan. *Maria*

Hala hazkuntzaren modu konduktista sustatzen zen (Vivas, 2020:258). Uste zen hurrek ama manipulatu zutela, kapritxosoak zirela eta amak hori aldatzen ez bazuen, gaizki hezitako haurra izango zuela. Hala, batzuek gomendatzen zuten ez zela ona haurra gehiegi mimatzea, egoista bihurtzen delako. Hazkuntza eredu horrek bi interes zituen: bata, haurra helduen beharretara ohi-tzea; bestea, merkatuaren interesen alde egitea. Ordu hartako edoskitze eta heziketa ereduaz orain gogoeta eginda, Pilar eta Mariak uste dute biberoiarekin ziria sartu zirela, baina aitortzen dute, bularra ematea oso lotua dela eta biberioia eroso eta "seguruagoa" ere bazela:

Esne fabrika potentzialitateko izango zan inbentua. Orduan medikuak esaten eben: botikako esniak naturalak baino nutriente gehixau eukala. *Pilar*

Pasaitten dana da titixa ez badozu tiraketan, ezkutau itten da. Hilabetian emuten xatzu baina ez dakitzu zenbat hartzen dauen. Botikako esnia ikusten zebezen zenbat hartzen eben eta gero igual hiru ordu lo itten eben. Eta norberantzako trankilidadia. *Maria*

Spainiaiko estatuan, biberoiaren aldeko joera aldatzen hasi zen 80ko hamarkadan. Lehengo egiteko moduetarako itzulera hori partziala izan zen: sei hilabete arteko hurrei ematen zitzaizkien bularra eta, askotan, elikagai osagarri gisa erabiltzen zen formulako esnea. Noski, emakumeek etxetik kanpo lan egiten bazuten, behin amatasun baimena agortuta, edoskitze naturala zaildu edo ezinezko bihurtzen zen. Hala, edoskitzeak klase irakurketa argi bat du: zein emakumeek izan du bularra emateko aukera eta nork ez? Familien egoera sozioekonomikoak zuzenean eragiten du, lehen eta orain, erabaki horretan.

Edoskitze naturalaren onurez ohartuta, edoskitzea eskaerara egin duten emakumeak areagotu dira XXI. mendean. Itziar, Amaia eta Maiderrek hautu hori egin dute euren seme-alabekin, eta horrek inplikazio fisiko, psikologiko, ekonomiko eta sozialak ditu. Batez ere, asko epaitzen da adin batetik aurrera haurra edoskitzea:

*Itziar:* Nere amak ez nontan emun titirik, esaten otzailako ez eukala esnerik, eta hori nahiko gauza ohikua zan esatia, baina ze eukain? Pautauta 3 orduro, eta antza eztau funtzionaitten hola titi

asuntuak, osea...laktantzia asko fan dia pikutara horreatik. Oin a demanda esaten daue. Osea gauza batzuk eragina dakoi...amak hola itteko esaten badotzu- edo.

Nik in neben formaziñuan, erakutsi oskuen zenbat objektu dauzen, aman zaintza sustituittera zuzenduta: el balancin, txupetia, etc. Pertsona baten gorputza, eta hasierako hiletan, amana, bihar da, ez beste ezer.

*Amaia*: “Eske txupetia mouan hartzen da titixa”. “Ya, eske txupetia da titixa mouan”. Neri kalia eskotan esan dostai, eta ixildu itten zara...Baina, zer inporta dotsu? Nik titixa emun dot elizan, plazan, edozein lekutan. Jentia pentsaitteko gura dauena, nik klaro dakot zer gura doten. Bueno, eztozt inporta jentia: konturaketan naiz hasarre asko da kotela barruan horreatik.

“Ondiok titixan?” edo “oin be bai?”. “Itxiko zu bakian gurotena itten?” nik aurrekuan be esan notsan bateri: “Todavía toma teta?” “si, te molesta? Quieres un poco? Seguro que tu no pudiste...”. Eta kuriosua da, ze askotan jentia eztauenak euki esnerik, ikusten badau norbait emuten, ba molestau itten dia: igual ezintasun horren reflejua da?

Eta medikutan bi gauza pasau xat laktantziakin lotuta: batek ez nontan jare sartzan Aitorren kontsulta batera, umiakin egotetik. Eta beste batek, titixa emuten ikusi nontan eta esan nontan: “nire anaiak 6 urte arte hartu eben eta homosexuala da!” Traumatologo batek...zur eta lur geratu nintzan!

*Itziar*: Gizartia eztau pentsautu umiakin ibiltteko. Restaurantetara, bodatara, edo lagunakin...Umia ez neukanian pentsaitten neben: “jente hau beti umiakin!”, baina oin entenditten dot.

Haurraren beharretara egokitzeko, hazkuntza naturalaren aldeko hautua egin dutenek eskaerara edoskitzen dute: haurrak eskatzen duenean amak bularra ematen dio. Amaren hautu horrek prestutasuna ez ezik, disponibilitatea ere eskatzen du: haurraren eskaera lehenes- tea eta eguna horren arabera antolatzea. Gauak ez dira (aldi batez) lo sakonerako izaten, adibidez:

Laktantzia demandara iten badozu, umia gabetan iratzarri itten bada, urtietako nekia pillatu itten xatzu. Umiak 3 urte dakola hasi da, batzutan, gaba dana lo itten. Eta nik be oin lo gehixau itten dot. Atzo, adibidez, gaberdiko ordubittan fan in nintzen! Ikasten egon nintzela...Eta 7:00 AMetako

iratzarritta neuen. Osea asko ezto in. Kalkulaitten hasten bazara oso gutxi in dot...Baina Markel de 2 a 5 hiru aldiz behintzat iratzarri da. *Amaia*

Ni 2:00 AM iratzarri in naiz eta eduki dot la super idea de telefonua hartu eta gero ezto hartu lo tarte baten, baina ezta izaten tipikuena. Ohian nau eta iratzarten naiz hainbat bider batek itten dauelako hi eta bestiak ha, titi...eztakize...gero goiz jaikitten naiz...eztakot sensasiñua deskantsau dotena. *Itziar*

### 3.3.5. Inork ez zidan esan ama izatea zein nekeza den

Bizitza aldatzen zaio ama izatea erabakitzen duen emakumeari. Pilarrek gazte izan zituen haurrak, 30 urte zituenerako 4 zeuzkan eta argi du: gaztea zarela ama izatea gogorra egiten da:

Nik 30 in orduko 4 neukan: Lehenengo bixak 20 hilabeten diferentzian, gero 3 urte eta gero 19 hilabete. 22 urte indda ezkondu nintzan eta 32 urteako...eta norbera ondiokan gaztia.

Lehenengotan enkontraitten zara ume txikixakin lotuta eta norbera gaztia. Eta gizonak kalea urten... afaixa han eta hemen. Eta andria beti umiakin etxian, e? eta norbera gaztia dala hor asko sufritten da. Akordaitten naiz urte baten kriston hotza euen, errosaixoko gabian, erlañua sartu-sartu indda, gizona eta ni kalia gora eta kalia behera...nik hori ikusi itten dot e, libertadia norbera bakarrik ibilttekoa...gero hartu umia eta etxera. Nik beti esan dot: umia eukitten dozunian kanbixaitten xatzu bizimodua, totalmente. Gañea, ezta kitzu zer dan ume txiki bat...dia va y dia viene.

Haur txikia ardurapean, zure gorputzari itsatsita ordu luzez; eta zu beraren ama. Ezagutzen ez duzun izaki txikia, zure esku:

Hasieran batezbe, oso txikiña danian umia, egunerokua oso bakartixa da...Ni ez neuen Oñatin: bikotia kanpua lanian, hiri baten bakarrik neuen, umiakin. Umiak eztau itten barbarik, interakziño maila mugatua dako eta ordu pillia beakin. *Itziar*

Gazteak dira, batzuk feministak ere badira, eurek erabaki dute ama izatea eta gainera, lehen urteetan eginkizun nagusia hartzea. Emakumea eta ama: loria gorena bizitzen egon beharko lukete, pozik egon behar dute. Ezin dira kexatu.

Batzutan gogorra itten da, astuna, lotua da, kriston demanda maila altua dakola sentitten dot nik. Eta batzutan jo, kejaitten naiz kantzauta nauelako, baina nik aukeratu dot eta holako kortozirkuito bat eukitten dot.

Haurra hezteak lan zerranda luzea dakar: garbiketa lanak areagotzen dira, adibidez. Azken hamarkadetan, etxetresna elektrikoekin erraztu egin dira zenbait ataza: lehen eskuz garbitu beharrekoa makinak egiten du egun. Aldea handia dela azpimarratzen du Pilarrek:

Gaur ikusten dotena da andriak umiak egoteko denpora gehixau dakola. Ze dakotzu aukera danak etxian, labadoria, butanua...ipurdixa aldaketako pañalak dakotzu. Lehen garbittu, jabonau, sika-tu...Lan fisiko gehixau euen. Eta laguntasunik ez. Gabian umia erretirau eta erropak garbittu eta sekadoran pasau hurrengo egunerako. *Pilar*

Baina gogorra denik ez da esaten. Fikzio asko dago haurren hazkuntzari lotuta, eta jendarteak ez du ondo ikusten ama kexu agertzea, mila arrazoigatik: nekatuta dagoelako, espero zuena ez delako, asmatzen ez duelako, gain hartu diolako, aspertuta dagoelako... Ama ezin da kexatu: “nola, berak erabaki badu ama izatea?”. Amak pozik eta lasai egon behar du, baina hori fikzioa da:

*Pilar:* Oin gutxi gazte batek esan nontan: “bueno... neri iñok eztozt esan, umia eduki ta gero zertzuk pasaitten dian. Baina gogorra da e...” Ba zuk esan dozuna makina batek pentsauko geben, baina inork eztau esan, e?

*Maidar:* Bai, baina zuk aukeratu dozun arren, dertxua dakotzu esateko kantzauta nau eta hau gogorra da. Askotan ezin gara permitiu...Ni neri...pentsaitteot ama txarra naizela. De que? Zeatik betik jarri biu: ama txarra, ama txarra...Ni de coña, hau da tabu bat, realidate bat oin arte ezin zana esan. Eta yasta...Emuten dau gure artian be dauela...

*Itziar:* Nik uste dot psikologikamente gogorra dala e, egotia disponible umiandako 24 ordu. Bueno, zu haurdun zauzenian saltzen dotsue la moto de bueno, umiak karruan faten dia lo, itten dosu pi-pi hola eta lo dauz, eztakitzu, titixa da.. en plan, jarten xatzu eta segidan lo hartzen dau, teoria da pelikulatakua. Realidadia beste era batekua izaten da, nire kasuan justo kontrakua. A demanda, mucha demanda titixan, umiak oso mobiduak, karrua eztaue gura ikustia bez, beti fularrian, motxilan, ba beste alternatiba batzuk topau du egokixauak eta azkenian umia eroso ohianak, ba bueno, umia ero-



so badau zu be hobeto zauz. Ze ni ez naiz “ala karruan, in gurozun negar dana ta..” “ba eske loguria dako eta negarrez...” Eztakot filosofia hori. Haurdun neuela irakurri neben liburu bastante, eta ba gauza horreik argi neukan: umiak gure biharra dakola, eztozkula engañaitten azkenian dabilela bea seguridadia, biharrak lortzen. Gu saiatu gara hori aseketan. Baina zalantzak eukitten dosu, beste batzuekin konparaitten zara.

Eta, aparte, zu ikusi itten zara umiangan: zure ispilu bat da, bueno eta parejiana be bai, bixon ispilu bat da. Orduan, oso gogorra da zu ikustia zure karentzian, zure bilddurretan, zure biharretan, zuk eztozun eduki gauzatan. Horregatik da psikologikoki potentia. Horregatik uste dot be bai samurrena dala “uh, ni lanera noia eta eztoz gura ikustia gauza horreik danak” Ze hori afrontaittia ezta samurra.

*Itziar:* Ama izatia gogorra itten xat, batezbe, aspektu emozionalian: lehenengo urtetan laguntza bihar daue gauza pila baterako, pasaitten xakoin gauzak kudeatzeko, estanda emozionala, bata bestiakin hasarratu...eta hor zauz lagunketan; neri horrek gehixau kantzaitten dost. Pazientzia galtzen dot batzutan eta jokatu biharko ez neben modutan jokaketan dot, baina neri be gauzak pasaitten xat ez?

### 3.3.5.1. Erditze ondorengo depresioa

Puerperioa eta erditze ondorena, oro har, amarentzat momentu berezia da: aldaketa hormonal eta fisikoez gain, eguneroko bizitza ere aldatzen da, baita bikote harremana ere, eta horrek emozio kate bat sortzen du; amatasun patriarkalaren exijentzia guztiei aurre egiteko zailtasunak egon ohi dira: superamak izan behar direla esaten zaie, baina erditze ondoren, bat sekula ez da iristen denera, are gutxiago bakarrik zaintzen badu edo hazkuntza uztartu behar badu etxeko lan edo enpleguarekin. Egoera horrek frustrazio sentsazioa sor dezake emakumeengan, ezertarako balio ez dutela sinisten dute, ez dakitela nola egin, finean, ez direla ama onak.

*Itziar:* Eske saltzen doskue umia eukittia pelikula-takua dala, oso politta. Eta ez da hola. Eta mitiko: “Pozik egon biharko ziñan umetxuakin” horrek eztau lagunketan...

Erditze ondorengo depresioa da erditu berri diren emakumeek gehien sufritzen duten gaixotasuna. Herrialde garatuetan uste da emakumeen % 6,5etik % 13ra eragiten diela, haurdunaldian zehar edo erditze ondorengo lehen urtean. Are gehiago, erditu ondorengo hiru hila-beteetan emakumeen % 19k du aldi depresibo bat.

*Itziar:* Nik irakurri neben erditze ondorengo depresioan inguruan; oso gauza fuertiak in leizke, arriskua da norberantzat eta umiantzat...Eta adbertiu notsan bikotiari, sintoma batzuk ikusten baeben alarmiak saltaitteko beari. Jakittia pasau lekela, oso inportantia da. Eta ebitaitteko moduak: adibidez, lo ittia oso inportantia dala.

Depresioaren kausak anitzak dira: indarkeria obstetrikoa pairatu izana erditzean edo zailtasun ekonomikoak izatea. Emakume pobreegan gehiago ematen da gaixotasun hori, haur berri baten jaiotzak ardura gehitzen diolako amari, kezka eta estresa. Hazkuntzarako babes sarea izateak depresioa ekiditen laguntzen du.

### IHES EGITERA BEHARTUAK

Nire familixiak esan nontan jarraitzeko estudixaitten, eurek zainduko ebeila nire umia; baina ez, nik nahi neban nire umia nik zaindu. Eduki neben erditu ondorengo depresioa: gogorra da onarketia zaindu in bihar dozula, responsabilidadia; ze danok gura dogu eta bihar dogu bestiek gu zaintzia. Eta jo, aldaz gora itten da e. Akordaitten naiz baloian neuela, pentsau nebela umia eskutan neukala, begiratu eta: “hau betirako da e! Te cae una carga...buf...”. Ama guztiok egin dogu aurrera, umiak gobernau, ke si gaixorik, ke si eskolia...aurrera. Zu hauts indda egon arren, eztaikit nundik urtetan dan inddarra baina in!

Gizonari esan notsan ez neuala ondo, ez neukala ilusiñorik, eta berak ez otsan inportantziarik emun. Eta orduan vivi al ralenti, a la minima-minima: nire semiak gobernau, que en esa epoca les falto afectivamente mucho. Antzerki hutsa in neben: ezer pasauko ez balitz modura jokatu. Muerta en vida. “Ikusikozu, ondo jarriko zara!” Horrekin ez noian inora...Me querian mandar al psicologo o al psiquiatra, entonces, me las arregle como pude. Calladita.

Gaizki egon nintzen, eduki neben gogua serixo hiltzeko: ahizpa zaharrena konturatu zan gaizki neuela. Bulimia pasau neben...Azkenian, Aizkorri-ra begira, dezidiu neban bizitzia, nire semeengatik. Berriz haurdun geratu nintzen: “bueno aber beste ume bat eta beste modu bat...aber jasoten doten hau”... Baina bigarrenak 2 urte eukala hartu neben desizioak aldatu eben nire bizitza: nire gizona eta nire bidea ez zen berdina eta Lemoizko Jornada Anti armamentista eta nuklearretan geuzela hartu neben separatzeko erabakixa. Ikusten neben berak ez nostala maite, ikusten neben: ez nintzan konprendiuta, babestuta, apollauta sentitien. Nik baimena emun notsalako separau giñan, ze nire gizona oso leala da: bastante desgraciada era yo, no tenia derecho de hacer desgraciado a nadie. Akordaitten naiz negar malkuakin, jakinian hutsetik hasi bihar nintzela, tienda de campaña geuzen...

Nik Oñatitik fatia gura neben, ze hemen ez neben aguantaitten. Me estaban amargando entre todos: umiak in ia tira y aflojak hasi zian “zein zan hobia” eta ambientian entzuten zan ni ama txarra nintzala. Nik neukan danan kulpia, separaittiana. El marido es ejemplar: trabajador, limpio...y la culpable yo! Nire autoestima oso baju neukan, eta gañera dana kontra: ni ondo egon bihar nintzan ante todo, eta inork ez nontan babesten, ulertzen. Familixiak ez nontan ulertzen eta beste aldetik konpetentzia bat. Eta holaxe, lagun bat eta bixok fan ginan Malagara. Kunatxuan umiak pasiatten elkar ezautu geben San Martinen, beak eukan arazo haundixa ze gizona zan heroinomanoa (garai hartan arazo haundixa euen). Era el verano azul de Nerja, eta lana egongo zala pentsautu fan giñan.

Udia pasautu, kurtsua hasi zanian fan giñan eurakin: nagusixak 7 urte eukala eta 4 txikixak. Nere familixiak zoraturta neuela uste eben, azkar bueltauko nintzala, damututa. Baina nire askatasunatik ez neben holakorik ein. Andaluzian aurrera egin neben lan askotan: ostalaritzan, prostituziñuan, de cortijera, etab. Prostituziñuan hasi nintzanean Naia izena hartu neben.

Umien aittak pasaitten nontan pensiuakin, langabeziakin eta gurasuen laguntzakin aurrera egin neben. Baina egixa da, laguntzia hartzera obligau dostai beti familixatik: “zer esango daue, disgustoka be...” Por el que diran!

Umien aittakin be dibortziau giñan por mutuo acuerdo. Ez geben *regimen de visitarik* jarri, arreglauko giñala. Hala, ni Andaluziara fan nintzanean, amenazau nontan ez nontala pensiuorik pasauko. Halaxe, 2 urtian ez nontan pasau, baina gero hasi zan. Etorri zekien gura ebenian, oporretan umiak hona etorri edo...neri parra nontan, nik gura nebena ingo neben. Eta beak hori baekixen. Udan, nik gura izaten neben berekin elkartu umian inguruan berba itteko merenderuan; uda baten, esan nontan esaten zala, ni puta modura nebilela hortik zihar... Esan notsan jentia esaten ebenak inporta baotzan, hortik aurrera jentia emungo otsala nire berri. Harrezkero ez nintzan berekin geratu.

Eduki neben bilddurra umiak kenduko nostaila, *sindrome de persecucion* eduki neben...Aittak: “Ze ibiliko da zoro hori han!”...Ez eukain inolako konfiantzarik nigan, zoro bat nintzan eurentzat! Nik ulerketan dot euran partia, baina eurak ez eben inongo ahaleginik itten ni ulertzeko, eta hor eztau konponbiderik. Aitta etorri zan baten, esaten

eurak hartuko ebeila umian kustodia. Entzun zoztan... “Nire semiak dia nire bizitza, eurengatik bizi naiz eta kendu ingostazue? Saiatzen bazai eztoztazue sekula gehixau ikusiko”.

*Naia*

### 3.3.6. Kontziliazioaren tranpak

Etxeko eta zaintza lanen lan banaketaz luze hitz egin daiteke, atazen zerrenda luzea baita, eta, garaian eta tokiaren arabera aldakorra. Haur txiki bati lotutako lanei lotuko gataizkio atal honetan. Etxekoandre basaren eta etxeko aingeruaren belaunaldietan, hots, 80ko hamarkada arte, generoaren arabera lan banaketa argia zen: emakumeek etxe barruko atazak euren gain hartzen zituzten, eta horren barruan zegoen senideen zaintza, izan txikiena, izan nagusiena. Gizonak lan horietatik salbu zeuden, neurri handi batean. Hori jendar-teak normalizat ikusten zuen eta emakume gehienek hori hala zela onartzen zuten:

“Neriak esaten notsanian biberioa berotu, besterik eztau in. Orduan gizonak garbiketan lagundu? Ezta pentsau be. Gaur egun gehixau inplikaitten dia umiak in. *Pilar*

“lagunakin afaixa dakot eta soziedadera fan biot, eztakit zer dakot eta bakizer dakot. Kazara be faten zan. Afaixa baldinbaeuen gizona faten zan. Andria etxian. *Maria*

Orduan normalizat ikusi eta onartu arren, egun bestela ikusten dute: argi dute, gaur egun beste era batera antolatuko lituzketela gauzak, beste nonbait jarri marra gorriak. Badakite emakume askok gaizki pasa zutela elkarbizitza horretan, lanen desoreka izugarria zelako. Baina etxekoandrea gizonaren soldataren menpeko zen eta horrek kate motzean lotzen zuen; egun ez da horrela, eta horri egozten diote banantze kasuen gorakada:

Berriz jaixo bagiñake, oin dakigunakin, beste postura batetik hobatuko gotsake bizimoduari. Ezta? Baina pasau danakin...eztot pentsaitten hain desgraziauk izan garenik. *Pilar*

Gizonakin hasarratu, lehen, oin eta beti. Hori konbientzia da. Oin zela bi sueldo dauzen ba...Lehen berriz sueldo batekin geuntzen eta holaxe zala bizimodua. Horretxek asko mantenitten eben andria etxian. Pa lo bueno, y pa lo malo. Gaur beste postura baten. *Maria*

Emakume hiritarraren agerpenarekin batera, eta zaintza lanak banatzeko mugimendu feministak egiten duen aldarriari jarraikiz, 80ko hamarkadaz geroztik, gizonak, apurka-apurka, seme alaben zaintzan inplikatzeko hasi ziren: betiere lan puntualetan, emazteak antolatutako agendaren baitan eginkizun txiki bat betez, askotan, aisialdira mugatzen zena: haurrak entretenitu. Ukaezina da amen bizkar erortzen zela zama gehiena. Horren isla da gizonak egiten zuten ekarpena, kasurik onenean, "laguntza" gisa ulertzen zela eta ez euren betebeharrak modura.

Gazteen kasuan, etxeko eta zaintza lanak era parekidean banatzeko saiakera gehiago egiten da; hala ere, emakumeek denbora gehiago eskaintzen diote, bai etxeko lanei, baita zaintza lanei ere. Desoreka ukaezina da gaur egun ere. Alde horretatik, gazteek galdera zahar-berri bat mahaigaineratu dute: lehenengo hila-beteetan haurarentzat onuragarria al da zaintza aita eta amaren artean % 50 eta % 50 banatzea? Non dago parekidetasuna edoskitze naturalerako hautua egiten denean?

*Itziar:* Jaixo barrixa danian itten xat anti...osea hasarratu eta dana ingo nintzan jaixo eta umia batenbategi hartuko banoztan, osea etxat jaixoten banaketia, ba nik emungo xat biberioia erdi eta zuk emun titixa erdi, osea ezin dot. Da zeoze fisikua... zuk be gura dozu egon beakin, hasieran.

*Amaia:* Berrirori presio soziala da. Ze umian biharrik horrekin dia eta guraso bixak ados baldinbaduz hola itteko gauzak be, ni egongo naiz oin gehixau umiak.

Haurren hazkuntzan guraso bakoitzak zein funtzio izango duen eta zein denbora eskainiko dion planifikatzea, esplizitatzea, urrats bat da erantzunkidetasunean. Agerian uzten delako bien kontua dela. Lehen hilabeteetan ohikoa den zerbait gerora galdu egiten da, ordea. Denbora igaro ahala, lan banaketa inplizitua bihurtzen da: joerak nagusitzen dira, adostu barikoak. Horren arriskuaz ohartarazten du Itziarrek:

*Itziar:* Lan banaketa garbi bat egon dan momentu bakarra izan zan lehenengo haurdunaldian: beste batzuk kontau ebeinatik, erdittu osteko momentu horretan bisitak murriztu neben, lasai egoten saiatu, arduratu umiaz eta ahal bada bikotia ittia beste dana (bazkaixa, erosketak, garbittu...) hori bai planeau geben. Lehenengo hilabeteetan ume-ama diadia zaindu bihar da. Bikotia beste funtzio bat dako. Lagunketia gura badozu garbittu komuna, ekarri jana tupper baten...baina umiak amakin



egon bihar dau. Laguntasuna bihar da, lo eztozu itten...jota zauz, kantzaut! Biharrezkua da bea hor egotia, baina umiak amakin egon bihar dau.

Nik entenditen dot kanpotik ulertu lekela, andria etxian, bikote heterosexuala...eredu ranciu emuten dau. Baina nik hau inddot, uste dotelako lehen urtetan lotura fisikua egotia lagunketia dauela garapenian, eta nik be desio nebela hor egotia. Baina etorkizunerako eztoz gura ni de palo. Gauza batzuk egonkortu dia, etxeko lanari begira eta ez nau prest onarketako. Excel taula bat inbiot, zenbat bider garbiketun dun ikusteko. Ze, nik uste dot ezta gura batzuk ezta garbittu in bihar diala. Bi bider segido inddaelako ya muturrak jarten dost. *Itziar*

*Amaia:* Bixok ados geuzen nik etxian jarraiketia, nik bai neukan ideia ba igual 2 urteitten ebenean bueltauko nintzala, baina gero ikusi neben 2 urte eta si, ondiokan nire biharra dako, gure biharra dako...Bat iruan neben 3kin eta bestia be 3kin hasi da, azkenian...2kin ikusten neben, eta irakurri neben ba ondiokan eztauela asko interaktuaiten beste ume batzukin, eta gehixau dala zaintza, baina hasten diala gehixau interaktuaiten euren artian 3-4 edade horretan. Erabaki hori hartu geben eta ados geuzen, aukeria baldinbaeuen nerekin egoteko ba...ni Itziarren moduan gehixau egon naiz etxian Aitor baño, eta gehixau bazauz ba gehixau itten dozu.

*Itziar:* Peligrua da...lanera bueltaitten naizenian, hor ondo banatu bida...ze oin goiaz 4 urte, entre baten zaintza eta bestiana, hola funtzionaiten... e, barkatu, kumunak garbittu inbiozu, urtian behin

eztau balixo (barre)”. Zu lanian zauz eta ni be bai, umiak haundixauak dia, eta beste rollo bat da...nik bilddur hori dakot, lanak adjudikaittia, “hori zuk itten zeben...”

Amak haurrarekin denbora gehiago igarotzen badu, hobeto ezagutuko du haurra. Aitak, aldiz, tarteka zaintzen badu, esku gutxiago izango du. Haurrak harreman ezberdina garatzen du bakoitzarekin, amarekin bat, eta aitarekin beste bat. Ez dira alderagarriak. Ama zaintzaile hobea dela? Itziarrek argi du ezetz, besterik gabe, denbora gehiago eskaini badio, normala da berak hobeto identifikatzea haurraren beharra zein den.

*Itziar:* Ordu pillia pasaitten dozulako beakin e, ez? Gauza batzuk, ordu kopuru gehixau egon zara, probau dozu gauza gehixau. Eta horrek batzutan gatazkak eragitten dau, ze bestia dabil eztaikit zer itten eta “Ander...(ez da hola)” eta Anderrek: “Ni nabil...”. Bale, bale, bale. Bea dabilenian sartzen naiz, nik dakittelako edo, probau dotelako gehixau...baina jare in bixako.

*Amia:* Askotan pentsaitten du umian “como un ente raro”. Ba pentsau helduan moduan... adibidez, 9 hilabete egoten bada tripa barruan eta baldinbazau 9 hilabete konbibitten pertsona batekin piso baten, normala dan moduan konfiantza gehixau eukikozu horrekin eta... dalako bizilaguna ya ondo egon bida. Ba ez... azkenian bea amakin egoten bada 9 hilabete, beak emun baxau jaten, egon bada zuzenian hor, ba normalena da beakin hobeto egotia, eta ez “aita da, eta zela igualak garen, e, ba aittakin egon bidau.” jolin...ba igual eztau hola izan bihar, lehenengo hilabetetan desdeluego ez, eta progresiboki nahiz eta zuk iguala in... umia al daketan doia eta ume horrek eskatu itten dau beste gauza batzuk osea. Ni saiatu naiz umian ritmua eruaten, bea adaptau biharrian gure erritmora, saiatu errespetaitten hori be bai, azkenian pertsona bat gehixau da eta saiatu ahal dan neurrixan.

Eta instintua? Existitzen al da? Eztabaidagarria da? Mainerrek uste du instintua existitzen dela eta ama izanda konturatu dela uste zuena baino askoz pazientzia gehiago duela. Aldiz, bere bikotekidea inoiz ez bezala ikusi du pazientzia galtzen... Itziarrek dio, lo egonik ere haurrak zarata egiten badu, segidan esnatzen dela; bere bikotekidea, bien bitartean, konturatu ere ez da egiten. Zergatik den? Instintua deitzen diote; alegia, aitek ez duten zer bait:

*Amia:* Gabaz etxatzu pasaitten, umiak zarata bat ataraten badau zuk entzuten dozula eta tirua mo-

duan zauz jaikitta...albokua berriz enterau be ezta itten! Zentzu horretan, kriston barreuria emuten dost gaba baten pare bat bider jaikitten dianian eta: “jo, ze gaba txarra, ez?”

*Itziar:* Hoi da, bai! Edo, “gaur ondo, ez?” “Barkatu, osea eztoz in ezebe lo! Zuk bai baina beste batzuk ez...”. Igual ezta biologikua e... ze garbittasunakin be pasaitten da, *resistencia a la mierda!*

Baina, zergatik ez du egiten umearen aitak? Lan hori ez dagokiolako, lana ikusten ez duelako, egiten ez dakielako edo beharra sortu baino lehen ama aurreratzen delako. Berdintasunaz hausnartu dute emakume gazte zein helduek, atzera begiratu eta gogoeta egin: Ondo egiten ari al gara? Egin daiteke hobeto? Badira amek euren gain hartzen dituzten ardurak, gainkarga sortzen dietenak eta partekatu edo delegatu daitezkeenak. Adibidea jartzen du Itziarrek:

*Itziar:* Nik ama izan aurretik bai pentsaitten neben gehixau berdintasunaz, bueno, ba sekula ez naiz jarri pentsaitten ume bat eukitten dotenian zela ingot, titixa emungot o ez, gañian eduki arte, baina bai eduki ahal nebela “jo, ba hori zeatik ezin dau in aittak?” Ba lagunak edo “jo, horrek umia eduki dau eta oin ezta etorri be itten ezetara”. Oin konturaketan naiz, eske noiz fan bihar naiz? Saiaketan garelako, gehixenak uste dot, umian biharretara egokitzen, parkera fan... eta gauza horrekin beteten badozu, gero ezta kotzu hainbeste denpora. Zu bakarrik nunbaittera fatiana oso noizianbehin pasaitten dan gauza bat da.

Baina egixa da: batzutan eurak eztaue ardurak hartzen, guk hartzen dogulako. Adibidez, eskolako emailak nire korreora allaitten dia, eta nik rebotau itten xat, baina aber, mentalki hor zauz pendiente zuk hartzen dozulako, etxian nauelako hartzen doten moduan... Gaur egun da “muy de madre”: “eruan bidau maskarillia, eztako garbi”; kontrolaitten dot gauzak gehixau etxian nauelako baina beak badako delegaitteko joeria...

Ezezagutza handia dago hazkuntzaren inguruan: zer den, egun eta gau haurren ardura izatea, etxe bat duin mantentzea eta etxekoen hartu-emanak osasuntsuak izatea. Lan eskerga da eta ez da ikusten. Bikoteek eurek ere, sarri, ez dute ikusten, eurei egitea egokitzen zaien arte; orduan etorri ohi da harridura, kexa edo aitortza:

Gure lana ez da baloraitten. Esaten xat Anderreri: “akordau, zu kanpuan egoteko, ni hemen nau printzaitten egun dana eta gaba dana”. Gero egun bat

egoten da 8M dalako eta tipua ittota. Ba oin hasi naiz egutegixan asterisko bat jarten, egun dana bakarrik itten dotenian. Hemendik aurrera kontau ingot.

### 3.3.7. Ibilbide profesionala eta diru kontuak

1950etik 70eko hamarkadara, emakumeen artean ohi-koena zen, haurrak txikiak ziren bitartean, hazkuntza lehenestea; hala, etxetik kanpoko lanak bigarren plano batean geratzen ziren, tarte batez edo betirako, alboratu egiten ziren. 80ko hamarkadan, Mugimendu Feministaren aldarrikapenen haritik, hasi ziren emakumeak ibilbide profesionala lehenesten; ama izatean, baimena igarota enplegura bueltatzen ziren gehienak. Haurrak belaunaldi zaharragoko emakumeekin edo zainzaileekin uzten zituzten: hazkuntza besterenganatu egin zuten.



Arl004025. 1970

Joera horri eutsi zaio gaur egun arte euskal gizartean: lanmerkatuan jarraitzea, zure tokiari eustea edo, are gehiago, ibilbide oparoa izateko lanpostuetan gora egitea saritzen da. Enplegua eta haurren zaintza uztartze-ko kontzilioz neurriak garatu dira, helduen ikuspegitik eta logika kapitalistatik: ahal bezain laster itzul zaitez produkzio lerrora, zure lanpostura eta haurra haz dezatela hezkuntza zerbitzuetan. Bestalde, haurrak, lehen urteetan, amarekin harreman estuan egon behar duela sinistuta zeuden bai etxeoandreak, baita hazkuntza naturalaren aldekoak ere:

Neretako legiak ez dauz pentsauta umiari begira. Gizarte honek umiak eztau bapebe errespetaitten, eta azkenian ume horreik gero heldu izango dia eta eztu inbertitten horretan. Gero eta okerrau goiaz... Uste dot helduen mentalidadetik pentsaitten dala, eta zentzu horretan, berdintasuna teoriar oso politta da, baina errealidadia beste bat da. Gurasotasun baimenak parekatu daue, gizon eta emakumiek enpresa mailan aukera berdinak eukittek. Eta non geraketan dia umian biharrak? *Amaia.*

Alde horretatik, eztabaida dago amatasun eta aitatasun baimenen inguruan: berdinzaleak izateko berdinak izan behar dute? Hazkuntza naturalaren alde egin dutenak bat datoz ezetz: puerperioa bizi duen pertsonaren prozesu biologikoa da, bere bereizgarri fisiko eta psikologikoekin, eta hazkuntzan inplikatzan den beste edonorena bestelakoa da. Hala, 16 asteko baimena motz gelditu zaie:

Uste dot ume bat eukitten dogunian, aitta eta amak biologikoki dakon inplikaziñua ezberdina dala. *Amaia.*

Zela izango gara berdinak guk eukitten bu tripia, guk erditzen badogu, guk emuten badogu titixa, nun dau hor berdintasuna? Amatasun baimena 16 aste dia. 16 aste, gehi laktantzia, gehi oporrak...6 hilabetetan? Ostia...Nik ixa 2 urtekin ezto ikusten gauzia! *Maidar.*

Egungo guraso batzuek baimenak nahikoa ez direla iristen diote; are gehiago, hezkuntzako eta zaintzako zerbitzu publikoak haurraren lehen hiru urteetara egokitzen ez direla uste dute; horregatik, guraso bietako batek lanaldia murriztu edo eszedentzia hartzea baloratzen dute: hazkuntza naturalaren aldeko hautua egiten dutenen kasuan, hazkuntzaren ardura nagusia amak hartzea lehenesten dute. Hautu horretan sinistea, apustu egiteak, ikuspegi berdinzale edo feministatik, gatazkak eragiten ditu: bai, norbere buruarekin, bai bikotean,

baita inguru sozialean ere. Izan ere, haurren hazkuntza ez da balioesten:

Nik badakitt beantzat inportantiaua dala beak itten dauena nik itten dotena baño. Ezta baloraitten, eta guk be ezta baloraitten: ez nabil ezer itten... Lanera bueltau bihar naiz ze ez nabil ezertan! Oso bakartixa da be bai...Autokonbentziu in bihar zara askotan, zaila dalako eruateko, gehi gañera jente danak esaten badotzu “noiz hasi bizara”...ez, nik hau inbiot, enfokauta nau eta jare bakian! *Itziar*

Ikusten daue zu umiari dedikaitten eta ba, ya, zurekin oiazenak gimnasiara eta danak inkorporaitten, jente dana aittaitta eta amama, umia beste batzuketan eta “etzara hasi bihar lanian?”, zuk hori itteko be bai. Eta, ba ez. Nire ustez umiak eukitten dogunian, gure arduria dia. Eta dedikaziñua eskaintetia erabakitten badozu, emuten dau gaizki itten zabitzela. Emuten dau oso ondo dauela bestian esku istia ardura horreik eta hori dala in bihar dana. Nik beste era batera ikusten dot...*Amaia*

Emakumeak enplegua uzteak eragina du bere autonomian ez ezik, bere autoestiman ere: logika produktibistatik ateratzeak sistematik kanpo sentiarazten ditu amak. Etenaldi hori, epe ertainean, euren buruarentzat onuragarria, aberasgarria eta osagarria izan daitekeela onartzen dute. Baina bizitzaren erritmoa aldatzeko erresistentzia asko topatzen dituzte euren baitan:

Sorprendiu nostan, hasieran, netorrelako formakuntza eta lanan bizi erritmo oso azkar batetik, eta derrepente zauz 20.000 siglo, gauza txiki batekin, eztoztula itten berba (isiltasuna). Denporian beste bibentzia bat da, geratu ingo bazan moduan. Neri inpaktu in nostan, zela inportantia zan momentukua: pertsona hori titixan eta iasta. Inguruko dana zaratia zan eta etzan inportantia. Sinplifikau in zan dana, eta oso gauza oinarrikuak bakarrik itten neben. Autoestima aldetik gogorra da: fisikoki demandantia da, emozionalki be bai, bakartixa da. Garai baten kakamokordo bat sentitien zara.

Hasieran nik pentsaitten neben, sentitien neben biharra: “ba eztoz ingo lana baina karrera bat ikasikot”... osea, ez nau baina hor nau e? Banoia, e? apur bat presiño hori nire buruan jarten notsan, lanan garrantzia... Nik be lehenengua eduki nebenian ikasketa batzuk in neben, eta bigarrenakin ba ez: “ba lasai, bueltauko naiz!” Baina kostau xat bizi erritmo horretatik desengantxaittia. *Itziar*

Emakumeak enplegua uzteak eragina du bere autonomian; hori aintzat hartu eta problematizatu zen 80ko hamarkadatik aurrera. Horren kariatara, gaur egun ama gazteek enpleguan etena egitean bikotekidearekin adosten dituzte diru kontuak. Adostasun ezberdinak bi-latzen dituzte, kasuan kasu:

Umia zainketia gizartiak ezta babesten, baime-nak dauz baina agortu itten dia. Horrek bikotia-kin gatazka batzuk dakar: gizona lanera doia eta ni etxian nau. Erabaki geben etxera sartzen zan dirua bote baten jartia, bai bere soldatia eta puntualki nik itten doten lanen dirua. Horrekin ados geuzen eta gauz. Ni independentia naiz neri beak pagaitten dostelako. Bere soldatan erdixa nire kontuan sartzen dau. Eta hortik sartzen dot botera X. Independentia naiz, ze ezta kotipo hau aguantau biharrik diruatik: gurako banek, antelaziño minimuakin, lanera bueltau neke. Baina oin ez naiz independentia...eta gatazkak sortzen dost horrek. *Itziar*

Neri ondo pentsaitten xat soldatian parte bat amantzat izatia. Baina bueno, nik badakot aurrez-kixak eta ni independentia naiz ekonomikamente, oingoiz, eta aportau itten dot, bere moduan. Bai erabaki dot jaso dogun dirulaguntza bat neretzat hartzia, uste dotelako merezi dotela. *Amaia*

Esan bezala, lehen hilabete zein urteetan amaren rola berezia dela uste dute, alegia, ama ordezkazina dela. Hori horrela izanda, euren funtzioa besterenganatzea ez da aukera egokiena. Lehen hilabeteetan ama haurra-rengandik aldentzea “antinaturala” dela iristen dio Itziar-rek; hazkuntza nagusiagoen esku uztea “injustua” dela deritzo Maiderre; Amaiak, berriz, lehen sei urte kritikoetan “bere onena” ematen saiatuko dela erabaki du.

Zuk deskantzaitteko, askotan dabil kargaitten bat ezta kona edadia; neretako ezta deretxoik. Baina danok ez ga igualak, igual batzuk dauz honaño sartuta (ekonomikoki estu). Guk soldata batekin tirau geke, itxi itten du gauza asko. Punto. Baina dauz gauzak eztaianak munduko diru danakin pagaitten, dala zure umia hazteia. *Maidar*

Gehixen gurozunetariko pertsonak, umiak... eta beste baten esku itxi biot hau? Nabilenian formaitten heldu bat. Bizitzako lehenengo sei urtiak kritikuak dia gure bizitza danerako, neretako inber-siño bat da, nire denporiana. Ahal doten onduen in bihar dot hau. Gero bideratu leke era batera o bestera, igual eztozun gura moduan... baina dakoten onena aportaitten saiatuko naiz. *Amaia*

Eukittia aukeria eszedentzia bat hartzeko ondo dau, osea, mundu laborala gero be hor egongo da, o ez... Baina bueno, beti dau hemen edo han eta umiak txikiñak izango dia urte gutxi batzutan, oin gure biharra dakoi. *Itziar*

Amek diskriminazioa pairatzen dute lan munduan; Oñatin, kooperatiba alorrean, pertsonak helburu diren neurrian, nork esango luke amatasunagatik emakumeak zigortzen direla? Amaiak kontatzen du:

Neri kooperatiban entrebista baten, Oñatiko neska gazte batek, galdetu in noston aber umiak eukittia pentsaitten neben. Eta uste dot hori ez litzakela galdetu bihar. Gero, enpresia itxi zalako, rekololau bihar nostonian, haurdun neuelako inork ez noston hartu gura. Urten nintzan, indemnizaziño batekin, ze nintzan “de difícil reubicación”: zaintzan urte batzuk egon nintzalako eta nere ikasketatik. Eta ikusten dozu “pertsonak helburu!”...fan por sako hartzera! Amorrúa emuten dost. Pertsonak lehenengo esaten da, baina gero errealitatia beste bat da. Eta zeñek ordainduko dotsu ba zuri jubilaziñua? Humanidadiak aurrera jarraiketan dau dauzelako pertsona batzuk umiak eduki eta hazten. Hori balorau in bihar da, dirutan be bai.

Hazkuntza naturalean, lehen hiru urteen ondoren amen rola aldatu egiten dela diote: zaintza partekatua goa bihurtzen da, haurraren aitak edo gainerako arduradunek presentzia eta garrantzia irabazten dute. Une horretan, amak lan mundurako itzulera prestatzen hasten dira: lehengo lanpostura itzultzen dira batzuk, baina euren burua berrasmatu, “birziklatu” behar izaten dute beste hainbestek. Curriculumera begiratu eta ataza zailena “hutsunea” onartzea izan ohi da:

Neri orientatzailiak gomendatu noston denpora hau aprobetxaittia formaziñorako. Kosta xaten erabakixa hartzia baina azkenian bai, master bat in dot, lagunduko dostena berriz lan munduan txertaketan. Oin, kurrikuluma itten nabilela, ikusten dot urteetako hutsune hori eta esaten dot, galdeketa badostai aber zertan egon naizen urte honeittan, garbi dakot: umiak hazten egon naiz eta uste dot oso gauza responsablia itten egon naizela. Baina zaila da...Oso konbentziuta egon bihar zara, ze gauza asko dauz kontran.

Errealitatea konplexua da eta amak, emakumeak diren neurrian, epaitu egiten dira; bata edo bestea egiteagatik epaitzen dituzte ingurukoek; amen artean epaitzen dira, konparatzen dira, on eta txarren lehia dago; gizonen bestaldera begiratzen dute edo ez dituzte ulertzen.



Arl008937. 1950.

Epaittu itten da asko: guk bestiak, bestiak gu... Ohikuenan danez lehenabilehen mundu laboralian berriz txertaketia eta umiak eskolan jaretia o beste zaintzaile batzuekin, aiton-amonakin o...Hortik urten eta zeoze rarua itten bozu ya esplika inbiozu. Baina uste dotela dala tema delikaua: batzutan gu epaittuak sentitten garen moduan, beste batzuk be sentitten diala, emuten dauelako nik erabaki dotenez hau hola ittia, neri etxatela ondo pentsaitten bestia: “orduán, ni ez naiz ama ona hola in dotelako?” ...Nik in doten puzzlia indot ni naizelako, beste bat banintz beste bat ingo neben...

Mosura eztotzue esaten bez, ez? Kuadrillako batek esan noston behin, beste batek esan otsala “jo ba, egon in bida e, hainbeste denpora lana in barik, e? ze klaro, lana ittera fan in bida ze oso gauza inportantia da, ze bestela pelotaundi bat zara!, ez? Ni lanian oso goiz hasi nintzan, urte pilia in neben eta lana ittia badakit zer dan, etxian be itten dot eta bueltauko naiz, lasai mundu dana. Baina, “egon in bida e, etxian denpora dana...”. Nik flipau in neben, harritu in noston eta penia emun noston, ze esan



Arl009229.

neben, ai ama, zela? Tristoria eta gero amorrua. Ze inporta xako beste bati ni lanean oian o ez? Ni ez naiz hasten pentzaitten, pertsona hori zela fan leken lanera, ez? Ba...jentiari inporta xako. Ta gero pentsaitten dot, zeatik inporta xau ni ez fatia lanera? Igual molestau itten xau? "zu ama ona zara, eta ni ez?"... eztatik, arrarua da. Umiak dia, zure seme-alabak dia... zu arduraketan zara gehixau eta ni ez?

Azalpenak eman behar izaten dituzte: azaldu behar izaten dute haurrak zaintzeko eszedentzia ez direla oporrrak; ez direla nagiak; ez direla atzerakoiak; eta entzun: *hau ondo bizi da lanea fan barik!* Aho txikiarekin kontatzen den egia da: enpleguan atsedean hartzen dute batzuek. Batetik, hazkuntza nekeza delako; bestetik, lan mundutik kanpo egotean, presioa jasanezina delako:

Ni fabrikan nabil lanian 18 urtetatik. Eszedentzia bat hartu neben, umia jaixo zanian, motibo batzuetatik. Eta bai ikusten dot, igual hartzen dozu tarte txiki bat, kafe bat lasai hartzeko, segidan datorrela komentaixua: "hau ondo bizi da lanea fan barik". Osea, zauz 24 ordu, eztatotzu zapaturik,

eztatotzu domekarik: 24 ordu hor. Eta gañera zu zuri, exijitten zara gauza batzuk inork eztatotzuna inponiu, e? zu zuri exijitten zara hostia "bestia lanea doia, ba gabetan ni iratzarri bihar naiz, ni jaiki binaiz, egun danian ni nau, ze bestia lanea doia... eztat ez balorauta, ez pagauta, ez dozu zentimo puta bat ikusten, etza geatu be itten, da jota gogorra eta geo zoiatz zure umiak, dakotzula momentutxo bat terraza baten jasarteko, kafetxo bat hartzeko eta "joder, como vive la peña!". Hostia... neri horrek xehetu itten dost. Bakitt etxatela in bihar kasoik jentiari eta hori dana, baina apurtu itten dost. Ze zauz txoimala puta baten moura, igual gaba danian inddozu 3 ordu lo, a ratos, urteten za kafe bat hartzea eta entzun biozu "hau ondo bizi da lanea fan barik".

Molestau itten nostan. Ya ez, e...ya ikasi dot, baina hasieran zan hostia..." ze, ezin naiz permitiu hau bez?". Bakarrik ikusten da momentu hori, beste dana ezta ikusten. Nei jente askok esan dost: "Ondiok etza hasi lanian? Nik lanian deskantzau in neben." Eske hola da...*Maidar*.



Ona003441. 1987.

## Laburbilduz

XX. mendearen erdian jaiotako belaunaldiak inposizio patriarkalagatik izan ziren ama; egungo emakume gazteak, ordea, euren buruari galdetzen diote: ama izan edo libre izan. Dikotomia hori antzua dela defendatzen du Esther Vivasek: “Hazkuntzak, egia da, askatasun-maila jakin bat galtzea dakar, bai emakumeentzat, bai hazten duen edozein pertsonarentzat, baina arazoa da askatasun galera hori larriagotu, instituzionalizatu eta instrumentalizatu egiten dela, emakumeak menderatzeko. Arazoa ez da amatasuna, sistema sozioekonomikoa baizik, hazkuntzari eta zainketari bizkarra ematen diena, eta ukatzen duena elkarren mendeko izakiak gara”.

Zainketaren etika feminista orok salatu behar du emakumearen zaintzeko betebeharrak morala. Ikuspegi emantzipatzaile batetik, zaintza giza beharrak asetzearen funtsezko osagaia da, elkarrekikotasun iturri gisa; genero hierarkiarik gabe egitea da egungo jendartearen dugun erroka. Zainketaren etika feminista defendatzeak ez du esan nahi idealizatu behar denik; haren konplexutasun eta kargak ulertu behar dira: etxekeo trapeak izen-

datu, zikinak eta ederrak, denak ahoskatu, partekatu, sozializatzeko beharra dago. Memoria eta transmisio ariketa hau horretara dator.

Amei entzunez gero, ohartzen gara hazkuntza prozesu konplexua dela: tentsio anitzen, plazeraren eta haserreen, alaitasunaren eta nekearen iturri da. Zainketa bizitzaren parte da, baina zati bat besterik ez da. Nola eman berriz balioa zainketari, harreman afektiboen idealizazio neorromantikoa egin gabe? Nola egin hori, emakumeak zaintzara kondenatu gabe? Nola egin zaintza, ahalduntze eta errealizazio pertsonaleko iturri izan dadin emakumeentzat? Borroka feministak argituko digu bidea.



Ona003736. Agerrena-Gomendio etxeko familia, 1962.

## 4. ZAHARRAK BERRI: etxetik kanpoko zaintzaileen ibilbideak

### 4.1. Neskametzta: feminitatearen katean gora

Arestian aipatu bezala, etxeko aingeruaren idealetik errealtatera jauzi bat zegoen, kasu bakoitzean ezberdina. Baina, ukalezina da, klase ertain eta altuko emakumeen iparra eredu hori zela. Oñatin, emakume guztiek ezin zioten etxekotasunaren idealari jarraitu, bereziki baserriko emakumeek zein ekonomikoki zailtasunak zituztenek. Horregatik, etxetik kanpo lan egiteko eta feminitatearen idealaren soka ez mozteko aukerari heldu zioten askok: neskametzari.

Neskametzta edo etxeko zerbitzua emakumeen lanbide hedatuena izan da azken mendeetan Euskal Herrian. Lan feminizatua izan da historikoki, betiere emakumeei, langile klaseei eta arraza gutxietsiei atxikia. Datutara etorrira, XIX. mendean Europako hiru emakumetatik bat bere bizitzako aroren batean neskame izan zen (McBride, 1984:128). Espainiako estatuan, XX. mendearen hasieran, lan baimena zuten emakumeen % 75ek etxeko zerbitzuan lan egiten zuten. Era berean, sektore horren % 85 emakumezkoek osatzen zuten, alorraren feminizazioaren erakusle (Borderias, 1993). Aitzitik, datuak ez digute errealtatearen argazki osoa ematen, mendearen hasieran lan egiten zuten gehienek ez baitzuten lan baimenarekin egiten.

Neskame lanak, Carmen Sarasuaren ikerketari jarraituz, "emakumeentzat egokienak diren jarduera asko biltzen ditu: garbitzea, janaria prestatzea, haurrak zaintzea, emakumeen izaeraren luzapenak dira" (1994:269). Izan ere, XX. mendearen erdian gailentzen zen diskur-

tso politikoa, aipatu bezala, emakume etxekotuen aldekoa zen, eta generoak asko markatu zituen edozein harreman sozialekin lotutako eremuak. Hala, ezkondu artean, etxetik atera eta etxekoandarearen ofizioa ikasteko abagunea zen neskametzta, baita mugikortasun sozialerako eta autonomiarako aukera ere. Hau da, ezkondu nahi ez zuen horrentzat lanbide eskuragarria zen, etxekoandre izan gabe, garaiko emakumetasunari men egiten ziona eta "naturak" ezarritako funtzioekin bat egiten zuena:

Etxeko lanak itten neben eta umiak zainddu. 3 neskatilla eukain. Ni baino lehen egon zanak monja fan bihar ebela-ta. Maxi. 2 kriada egon ginan: bata zan edadekua, Konkena eta urte asko oian han. Ha zan kozineria eta lagunketan nontan etxia garbiketetan. Bixok batera itten geben goizetan. Eta gero nik erropia garbittu ta plantxau eta beak bazkaixa gertatu. *Pilar*

XX. mendearen erdian, eraldaketa sozial eta politikoko garai hartan, euskal landa eremuan, oso hedatuta zegoen emakumeak, ezkondu aurretik, neskame joatea. Eider de Dios Fernandezek adierazi du neskametzta landa eremuko emakume pobreak hirira migratzeko estrategia izan zela (2014:30). Migrazio prozesu hori euskal landa eremutik, besteak beste, Oñatitik, hirietarakoa izan zen; era berean, Espainiako landa eremutik Euskal Herrirako migrazioa ere bazen:



Pea000953. Neskameak erromesaldian Arantzazuko santutegira, 1916.

Eske gu pobriak oso pobriak giñan, eta han neri batia eta amantala ipiñi nostañ. Eta batenbat etorten bazan atera esaten nostañ hola urteteko! Eta klaro, nik ez nekixen lanian, nik enekixen. Ezpalkipa nik, umezain oso ona nintzala esaten nostañ, baina etxeko lanetan ez nintzala hain ona (barre) baina kurioso in neben e. *Maria*

Neskame asko eta asko ez ziren lan egiten zuten toki-koak, eta horregatik lotu da historikoki migrazioa eta etxeko zerbitzuetako jarduera. Gainera, Euskal Herrian diktaduratik eta emakume eredu itogarritik ateratzeko aukera ere izan zen beste eredu batzuekin amesten zuten horientzat, bederen:

Oñatira etorten giñanian, domeketan, plazan pasuan ibiltten giñan. Nik baserriko ogixa eruaten neben poltsikan eta kaleko laguna desiaitten egoten zan haxe jateko. Egun baten, pasuan gebitzela etorri zan bat: “hay alguna chica que quiere ir a francia?” galdezka. “Si, yo” nik kontestau. Urteteko gogua neukan, por lo visto. “ Ah, pues vas a ir a tal sitio a coger la dirección y tal día tienes que ir” esan nostañ. Etxera fan nintzarian esan notsan amari: “Frantziara fateko okasiñua dakot eta banoia”. Ahizpiak ez nostañ kasorik ein, Natic bez. Amak

esan nostañ eurengatik: “zer esango dotsue oin Frantziara bazoiaz?” Baserrixan lanerako eskuak bihar zian-eta. “Zer esangostai, ba? Ezer, ez dost inporta. Nik nere bizitzia eingot”. Eta holaxe gertatu nintzan eta fan nintzan. *Esperantza*

Guztiak ala guztiak neskame sartzen ziren emakume gazteak ziren, ezkongabeak: gehienek ezkondu bitarteko lan gisa ulertzen zuten hura. Orokorrean, neska gazteak sartu ohi ziren neskame, 16-22 urte bitartekoak batik bat, eta Aritza Saenz del Castilloren arabera “17-19 urte artekoak gailentzen ziren” (Saenz de Santamaria, 2019:24):

Nik 14 urtekin eskolia jare eta umezain etorri nintzan kalea. Pozik urten nintzan baserritik e? Ze neri kalia gustaitten xaten. Etorri nintzan umezain. (...) orduan euzen, inginierua dala, kimikua dala, hareik hartzen ebein kriadak, bertako familiak. *Maria*

Ezkontza askorentzat jarduera hori eta besteen etxea uzteko unea zen. Adierazgarria da familiek ezkontza hartzen zutela alabaren irtenbide ekonomiko eta sozial bakartzat. Ezkongabetasuna gutxietsi egiten zen, eta arrarotzat jo. Adin nagusitasuna 25 urterekin ai-

tortzen zitzairen emakumeei, eta, ezkontzen ez baziren, ezin zuten etxea utzi aitaren baimenik gabe. 1972an, adin nagusitasuna 21 urtean ezarri zuten, neska zein mutilentzat (Larumbe, 2002:144 in Emagin, 2015). Horiek horrela, ezkondu bitarteko lantzat hartu zen neskametza:

Handik urten in neben aspertu in nintzalako. Gure ahizpa zaharrenari, urte bat umezain in ondoren, aittajunak esan otsan: “bueno ume, urte bat in dosu etxetik kanpora ta eztau lotsarik etxera etorteko”. Ha etxera fan zan eta gero Garaian sartu zan, in eben 8 urte, ezkondu arte. *Maria*

Baina bazegoen bizi osorako lanbidetzat izan zuenik eta ezkontzeko hautua hartu ez zuenik ere:

Sekula be eztoz eduki nik gizon baten biharrik. Nik ez neben bihar ezkonketarik, bizitziak ez nontan hori eskaketan. Mutilak atzetik? Bai, atzetik edo albotik... lotsatuta. Behin etxea lagundu nontan mutil batek eta esan nontan: “las mujeres con la faja no os sentis apretadas?” Ez xaten bapebe gustau komentari xua eta halaxe esan notsan: “ya te puedes ir porque yo contigo no quiero saber nada”. *Esperantza*

Neskametza uzteko arrazoiak, hala ere, askotarikoak izan zitezkeen. Familietan, behar ekonomikoak ez ezik, zaintzari lotutakoak ere bazeuden, eta horietan emakumeak ziren nagusi:

Zenbat denpora ingo neben? Ama hil zan eta etorri bihar izan neben etxea. Derrior fan bihar nebela laun ittera, derrior. Ama hil eta ume txikiñak euzen; geatu zan situaziño bat... Tia Malen artian etxeatu baik euen, ha be kriara euen Donostian; planteau xakon etorri biharko ebela eta con mucha pena. Tia Malen etorri zanian etxea, guretzako libertade haundixa izan zan, laguntza haundixa. 12 geuntzen, 12!!! *Pilar*

Gainera, nahiz eta gogorik ez izan, familia-ko autoritateak, aita gehienetan, etxera bueltatzera derrigortzen zituen, familiaren zaintzaren hobe beharrez:

Beste udaldi bat pasau neben Izalden, aman etxian: beste hainbeste han be. Tia ume itteko euen eta ia lagun ittea fango nintzan. Hau da hau! Nik gogoik ez... “esan dexela besta batei”. Aittak esan nontan, “hara, ezta jakitten zerren biharra

izan dan, bai? Eta hareik laguntasuna ointxe bihar daue! Eta fan biharko zara”. Ugarteko tia be etorri zan eta “hala, bixak fango gara. nik lagundukotzut”. Noiz jaixo zan Miel Mari? El 14 de Septiembrian jaixo zan eta diciembre arte. *Pilar*

Baserrian zein kalean bizi, neskok landa eremuko familia zabaleko alabak izan ohi ziren, eta familiok, langile eta nekazariak izanik, seme-alabak lanerako enplegatzuten zituzten, txiki txikitatik. Gurasoek ez zuten izaten baliabide ekonomiko nahikoa seme-alaba guztiak mantentzeko. Hala, 10 urte bete ondoren, alabak besteen etxeetara neskame bidali egiten zituzten. Neskame egon zitezkeen soldatapean edo tripa-truke, enplegatailearen arabera. Senideak izan ohi ziren batzuetan.

Horretxeatik esaten dotsut, ni 16 urtekin gustora etorri nintzan Toki Ederrera, etxetik urten behintzat. Ahizpa zaharrenak be umezain urte neben, behera, kalera. “Alpargatak erosteko lain be ez neben irabazten”, esaten eben. Ez euen pagaitten. Eta esaten daue, orduan, naiz da umiak zainketa etorri, egoten ziñan oso peian, ugazabak esaten daueñan oso peian. *Maria*

Neskametza eta horrek kasu askotan zekarren migrazioa “familia plangintzaren barruan kokatzen da, eta, horren ondorioz, familiako ekonomiaren zorigaitzoak arindu nahi zituen, kide batez askatuz, eta, aldi berean, beste diru iturri bat bilatuz” (Saenz del Castillo, 2019:58). Gaur egun gertatzen den bezalaxe, familia askoren kontaktu bilakatzen ziren neskameak (gaur egun etxeko langile aritzen direnen gisara), eta soldataren parte bat etxera bideratzen zuten etxeko ekonomia hobetzeko.



Patxi Elorza argazki funtsa-Oñatiko Oñati Artxiboa

Horiek horrela, neskametz landa eremuko neska gazte askorentzat etxekotasunaren kateetatik askatzeko aukera izan zen. Beste askorentzat katea tenkatzeko eta lotura horiek estutzeko bidea izan zen.

#### 4.1.1. Nagusi eta etxekoandrearekin harremana

Gazterik, etxetik ateratzen ziren lehen aldia izan ohi zen neskameentzat. Hala, ezezagunen etxe hartan egokitze-ko eta atseginak izateko ahalegina egin behar izaten zuten. Etxekoandrearekin izaten zuten harreman estuena, haren funtzioa baitzen neskameari aginduak ematea. Denetariko jarrerak izan ohi zituzten etxekoandreek neskameekin: batzuk adeitsuak ziren eta neskameen lana aitortzen zuten, baina, kasurik onenean ere ez zuten behar beste balioesten eta ordaintzen. Ezin dugu ahaztu enplegatzaileak askotan klase sozial altukoak zirela, eta neskameak izatea, besteengandik ezberdintze-ko estrategiak zirela. Horrela, harreman autoritarioak eraikitzen ziren askotan, neskameak gutxiestera bideratuak, eta euren klase soziala besteen gaintetik jartzeko ahalegina egiten zuten.

Bertan, bizimodu dana, bertan. Goizian jaiki, eta mezetara faten ginan kriara pillia! Gomendionian be baguazen eta Garañian be bai! Kriara pillia goizeko zazpietako mezetara, zazpi tardittan urten, zortzietako armosua gertatu eta hala! A trabajar! Baina gustora han! Ez geukan ta aspiraziñoik! Sano-sano hantxe gu, gustora e...Eurak oso onak zian, bai Don Bizente eta baitta andria. Etzan bapebe kiskillosia. Mas bien normala, oso normala. Hori bai, berori in bihar izaten gotsan: neri Don Bizenter berori esatia etxaten kostaten, andriari berori esatia gehixau kostaten xaten, hain zan sensillia...



Ko590073. Ugarte Erdikoa labaderoa.



Ona001900. 1982.

baina, berori. Eta etorten zianak, meriendaittera, Garañak eta, a todas se les trataba de usted. Bai, gaur hori eztau. *Pilar*

Emakume langileen zapalkuntza eta esplotazioa normalizatuta zuten, emakume ona izateko baldintza baitzen lana gogotik egitea eta egoista izan barik, besteen zerbitzura egotea. Euskal jendartea matxista eta misoginoa zen, eta hori iraunarazten zuten autoritate anitz zegoen: neskameentzat, ez bairik gabe, etxekoandrea eta nagusia ziren agintariak. Horiek horrela, sektoreak zuen gutxiespena eta diskriminazioa lanarekiko lotsan ere islatzen zen, eta neskame ibiltzen zirenen artean zenbait gauza sekretupean mantentzeko joera zegoen:

Iparraldian ondo egon nintzan, baina neriak pasau neben. Eztot esango ez nebenik pasau, ze zoiazen lekura zoiazela pasau in bihar izaten da... Etxian ez neben esaten egixa, neskak zainketan neuela kolegixuan. Matrimonixo batekin neuela esaten neben. Baina behin San Juan de Luzera fan zan Olabartako Tabernakua, ni han nenguelakuan. Han nereatik galdezka ibili ei zan, baina ni ez nenguen han. Sekretuan neukan. Kontua da bi egun beranduau allau nintzala hartu bihar nindduein etxera eta “no, no, no, ya hemos encontrado a alguien” esan nosta. Eta nik hori ezin neben esan etxian. Orduan, topau neben kolegixuan lana: han egoten nintzan, errekreotan neska gaztiari kontu hartzen, para que no fumaran. Pero si yo tambien habia fumau? Son esas cosas que hay que hacer cuando eres joven. Las chavalas con ganas de fumar...Zela esango nosten ez fumaitteko? Nik be eurekin erreten neben! No sabes? Lo que es la juventud. *Esperantz*

Neskame guztiek garbi dute behar ekonomiko batengatik jardun zutela neskame, eta diru gutxi irabazi arren, bizirauteko modu bat zela. Enplegatzaileekin harreman ona edo txarra izan, guztiek aitortzen dute ordainetan jaso zutena oso gutxi zela egiten zituzten lan guztiak kontuan hartuta:

Nik orduan 2000 pezeta irabazten neben. Goizian saloia, komedoria, hall-ian hautsa kendu, garbitu. Armosau eta galeixia eskobatu. Gero gora faten ginan gere kuartora, amantalak aldatu eta sartzen giñan euen pasillora, euren ohiak in, aspiradoria, mopia pasau, hautsa kendu...ittera. *Maria*

Gainera, beste lan batzuekin konparatuz gero, alde handia zegoen soldatan, nahiz eta batzuek neskame bizimodua fabrikakoa baina gehiago nahiago, neska gazteei garai horretan egokitzen zitzaizkien funtzio eta desirekin lotura handiagoa zutelakoan:

Gero txokolateixara fan nintzan lanera: Loiolanien orduan planta barrixa indda euen eta jende asko sartzen zan. Kriadantzan 2000 pezeta irabazten baldin baneben, ba han irabazten neben 3200, hortxen. Eta makinia zela barrixa zan, makinian maneja ikastiarren, sobre zurixa 500 pesetakin. Diruan bai, igarri notsan, baina neri kriarantzako bizimodua igual ordenaua, garbixa da. Han ikasi geben guk azazkalak arreglau, azazkalak pinttau ta itten be baitta. Eta ulia bata bestiari: zapatu gabetan, gora ioten gebenian, kuartotan, bata bestiari ruluak batu. Eta gañea, ulia gogorketako, zerbezia botaten geben uletan. *Maria*

Batzuek garaiko ekonomia eskasari egozten diote errua, baina beste batzuek garbi dute neska gazteen lana zelako ordaintzen zela horren gutxi. Emakumeak infantilizatzeko joerari jarraikiz, neska gazteei subjektu izaera ukatzen zitzairen, eta haien iritzi eta beharrak gutxietsi. Gainera, haien izaera ezabatzeko, eta etxeko nagusiekiko ezberdintasunak antzemateko, kasu askotan uniforme eramatera behartu zituzten, nahiz eta gaztetan batzuentzat zerbait atsegina ere izan:

Hilian domeka bat be etxian, euren uniformia jantzizta, afaixa preparau eta afaixa emun. 21.00tan afaixa zerbitten geben, gere uniformiak, zapata-takoiakin. Un invento e, 16 urtekin uniforme eta zapata takonakin mahaixa zerbittia? Una gozada! Uniforme grisa, amantal baltza, gero bazkaixa zerbittia fateko puño zurixa, kuello zurixa eta amantal zurixa. Eta takue zapatakin! Una gozada... *Maria eta Pili*

Beste askotan tratu ona izaten zen eta etxekoandreak eta neskameak elkarri laguntzen eta eskertzen zioten. Erraz kontatzen diren kasuak dira horiek. Beste kasu askotan, ordea, neskameak gutxiesten zituzten eta etxekoandreak jarrera autoritarioa hartzen zuen: uneoro agintzen eta kontrolatzen zuten neskamearen lana. Ezin dugu ahaztu neskameak lan egiten zuten etxean bizi zirela, atsedetik gabe kasu askotan, beraz, elkarbitza halabeharrezkoa zen:

Iparraldetik Parisera fan nintzan eta 11 urte in neben, segidan. Parisera fateko gogua neukan, garai hartan de Gaille eguen eta eskolako mojairi esanda neukan ha ikustera fateko gogua neukala, eta batek esan nontan: “tengo una prima en Paris y necesitan alguien para casa”. Estaziñora etorri xaten gizon bat. Nik papel bat neukan eta emakume bat espero neben, baina gizon bat allau zan. Matrimonio bat zan, aberatsak: etxekoandria jatorra zan, itten eben dana ona zan; gizona, berriz, oneixa. Ni oso ondo neukan hartuta. Sastria etxera etorten zanian esaten otsan: “que mire la esperanza como me queda”. Hori etxakon gustaitten señoñari, baina nik bista ona neukan itxuria. *Esperantza*

Egunaren buruan lan asko egin behar izaten zuten, janaria prestatu, garbiketa egin, seme-alabak zaindu, etab. Garbiketa lanak, adibidez, egungoak baino gogoragoak izaten ziren mendearen erdian, eta jatekoa ez zen beti guztientzat izaten, neskameen kalterako, noski:

Jan be ondo itten geben: normal. Egunero potajia eta berduria, ta gañian zeoze. Eurek jaten ebein letxe kriarak pe bai. Beste leku batzutan ez, 5 bat kriara badauz eta 3 ugazaba...ba ugazabantzat ipititen zan lapiko bat eta kriarandako beste bat. Ni etxian letxe egon nintzan, gustora! *Pilar*

Denbora ere askorik ez zuten izaten beste jarduera batzuetarako; izan ere, “kriada” izaerak besteen etxean bizitzea zekarren, eta familiaren ohiturak eta eguneroak guztiz errespetatzea eta jarraitzea. Horrela, ostegunetan eta igandeetan izaten zuten aisialdirako edo bestelakoetarako tartea, eta oso denbora laburrak izaten ziren:

Señoñiak zainketan ginttuen e...domeka arratsaldetan zinera edo jaittara fateko permisua eskatu bihar izaten gotsan: bea itten zan responsable eta gu gaztiak giñan. *Pili*

3 lagun egon ginan kuadrillan, batea, Olabartako kuadrillakuak. Domeka arratsaldian da batzutan itxea etorten ginan eta besta batzutan Uribarri

aldea pasiora ...domeka arratsaldia libre eukitten geben. *Pilar*

Inazio Munduatek XVI. mendetik XXI. mendera bitarteko lanbideez ondutako liburuan (Imaz, 2019) neska-meei atal bat eskaini zien, eta adierazi neskameen sorreran zerikusia izan zuela, XIX. mendearen amaieran, Espainiako gizarte talde aberatsaren oporraldiak; “izan ere, euskal kostaldera etortzen hasi ziren. Hasiera batean lana uda garaikoa izaten bazen ere, denborarekin urte osoko jarduera bihurtu zen. Horrela, bada, udatiarrei zerbitzua emateko, lanpostu berriak sortu ziren: garbitzaileak, lisatzaileak, sukaldariak, haurtzainak...” (ibidem: 117)

Horiez gain, Euskal Herrian ere bazeuden oporraldiak kostaldera pasatzera joaten zirenak, eta familia guztia-ekin batera neskameak eramaten zituzten. Egun horiek ziren haien estatus sozialaren erakusle hioa, bereziki haien klase sozial berekoak ziren besteen aurrean. Neskame zeuden neska askorentzat, hiria, hondartza eta udara gozatzeko aukera ere bilakatu zen, eta Oñati-ra bueltatzea zaila suertatzen zen:

Garai hortan, señoia udan faten zan Mirakontxara, Donostira. Hemen bat geraketan zan, eta beste 3 gazte faten ginan Mirakontxara: piso haundixa, baina hemengo etxiakin konparaittekua etzan, eta han hiru gazte egoten ginan. Eurak faten zian kanoan, eguerdittan. Eta guk lanak indda bagekuan, fan gekien plaiara. Ordubetexo bat. Baina bakizu ze itten geben? Plaiara fan eskeo luak hartu eta gero txitxarruak letxe...

(...) Señoia entregaitten zan guretako eta guk be lan gutxiu geukan: “Vayan usted a la peluqueria, ya les pagare yo”. “Salgan ustedes”, eta arratsaldetan askotan urten itten geben askotan, parte zaharrian...ondo...20.30, hartu trolebusa eta etxe onduan isten ginttuan. Afaixa zerbiu eta agostuan Paseo Nuevuan egoten zian berbenak orduan. Donostin oso gustora...nik tristuria Udanan sartzen nintzanian goittik behera...neetako zan tristura bat...Handik hona etorritta senttitten ze ben klauran sartzen zinala. *Pili*

Askotarikoak izan ziren Oñatiko neskameen bizipenak. Eragin sozial handiko urteak izan ziren, eta bizitza gutzirako markatu zituen esperientzia horrek. Emakume, gazte, langile edo migratu izateagatik, nagusi eta etxe-koandreen azpitik zeuden langileok. Mendekotasun posizio horri gehitu behar zaio 24 orduko lan jarduna izatea, nagusiaren etxean bizitzea, zaintzaren lanaren beraren zailtasuna. Goxoak, atseginak, langileak, ne-



Ona004251. 1962.

kaezinak, otzanak, femeninoak; finean, neskame izateak ondorio ugari zituen emakumeon bizitzetan: bate-tik, bakardadea, inkomunikazioa, bortxa, gutxiespena, itsusikeriak... Bestetik, konfiantza, aukera, ezagutza, indarra, heldutasuna... Jasan zituzten lanaldi amaiezinak, mespretxuak, irainak, aginduak, debekuak, kontrola. Era berean, neskatoak emakumetu egiten ziren esperientzia harekin, ahaldundu, indartu.

Gaztaroa markatu zien neskame bizipenak, lanbideak, biziera hark. Besteentzat izaten ikasteko praktikaldia zen hura, zaintzaile onak izaten ikasteko aukera, baina baita landa eremutik, etxetik ihes egiteko aitzakia perfektua; señoirita izatera igarotzeko jauzia, sosak irabazi eta mundua ezagutzeko abagunea.

Gauza asko izan dira neskametzta, garaien eta kasuen arabera, mila modutakoa. Baina kasu guztietan, helburua bat zen: feminitatea gorpuztu eta boteretsuagoren zerbitzura egotea. Neskametzta, kontrako ezarririk joan zitzaizen emetasuna. Biziarreko lezio bat.

## 4.2. Etxeko langileak agertokira

Espainiako estatuan, XX. mendearen erdiaz goertzik, zerbitzuen alorraren zabalpena eta emakumeen hezkuntza mailaren igoera tarteko, emakumezkoen lanbideak nabarmen dibertsifikatu ziren: 1950ean, Estatuko



Arl000434.

emakumeen % 14,89k nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduten zuen, % 2,56k industriari eta % 42,99k etxeko zerbitzuan. Aurrerago, 1970ean, emakumeen % 76k zerbitzuen alorrean lan egiten zuen, baina soilik % 19k egiten zuen etxeko zerbitzuan (Borderias, 1993). Hori horrela, emakumeen arteko desberdintasunak hazi, eta klase ertainekoek lanbideari uko egin ahal izan zioten, edota etxeko lanak besterenganatu zituzten.

Arestian aipatu bezala, garrantzi handikoa izan zen neskametzaren frankismoaren lehen eta bigarren aldia. Ikusi dugun bezala, klase altuko bereizgarria izan zen haien zerbitzura 24 orduz pertsonak izatea, eta emakume askorentzat baserriko lanetatik ateratzeko, familiako ekonomia suspertzeko zein beste emakume eredu batzuk ezagutzeko aukera izan zen. Hala ere, frankismoaren garai desarrollistarekin batera, neskame gisa, "kriada" gisa, lan egiten zuten horiek garrantzia galtzen hasi ziren, gertatu ziren aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoak tarteko. Eta, ondorioz, eredu gainazalean aldatu, eta etxeko langileen figura agertu zen. Gehienek ez zuten *interna* gisa lan egiten, ez zuten beren jatorrizko edo familiako etxea uzten, eta besteen etxeetan ordukako lana egiten zuten.

#### 4.2.1. Lan izaera aitortzeko beharra

Hori ulertzeko, batetik aldaketa ekonomikoak ditugu. Etxeko zerbitzuetako langile *internak* pixkanaka gutxitzen hasi ziren, modernizatzen hasia zen euskal jendartean. Aldaketa ekonomikoek lan aukera berriak ireki zituen, baita emakumeentzat ere. Oñatin, adibidez, txokolatari lotutako produkzioan, edota zerbitzuen alorrean, ostalaritzan edo merkataritzan emakumeek protagonismo gehiago izan zuten. Soldata hobeak bilatzen zituzten, eta lanerako baldintza egokiagoak. Horre-

la, neskame jarduten zuten horiek beste lan batzuetara aldatu ziren eta zituzten enplegu aukerak ere zabaltzen zituzten.

Horrekin lotuta, neskametzak bere baitan zuen zerbitzatzeko joera, izaera guztiz paternalista eta familiarekiko loturak pixkanaka lausotzen joan ziren, eta, aldiz, etxeko zerbitzuen lan izaera gailentzen joan zen. "Lanerako eskubidea gailendu zen etxeko zerbitzuan, eta maitasunean zein familian oinarritutako harremanak gutxitzen joan ziren (Cooper 2004:290 in Saenz del Castillo, 2019). Horrela, enpleguaren izaera kapitalista nagusitzen hasi zen, eta errentagarritasun ekonomiko zein materiala lehenetsi zen, baita etxeko zerbitzuen sektorean ere; hots, etxean geroz eta ordu produktibo gehiago pasatzea eta lanordu gutxiago izatea lehentasun bilakatu zen.

Hortaz, neskametzaren izaera paternalista gutxitzen joan zen, eta enplegu bihurtzeko prozesua abiatu zen, bereziki soldataren truke egiten zuten lan etxeko langileek (aurrekoek ere, baina bazeuden bestelako motibazioak ere neskame joan edo alaba bidaltzeko). Alabaina, sektorean ez ziren beste enplegu batzuetan zeuden eskubideak bermatzen, izan negoziazio kolektiboak, izan ordezkaritza sindikala, eta, ondorioz, soldatak ez baziren egokiak edo lan zama oso handia izaten jarraitzen bazuen, emakume askok beste etxe batzuetara edo lan batzuetara salto egiten zuten. Horregatik, etxeko zerbitzuen alorrean, prezioak igo ziren, geroz eta gutxiago ziren lan horietarako prest agertzen zirenak, eta langileak etxean gelditzeko beste bide batzuk jorratzen hasi ziren enplegatzaileak, informe positiboak eskatzea, esaterako. Bereizkerian oinarritutako tratua ez zuen aurreko urteetako zilegitasunik, eta enplegatzailearen eta langilearen arteko harremanek lan harreman izaera hartu zuten, eta berdintasunerako pauso txiki batzuk hasi.

Aurrekoarekin lotuta teknologiaren garapena ere aipatu behar dugu. Lanaren kontzeptzioa aldatzen hasi zen, eta ekonomikoki arrazionalagoa, funtzionalagoa eta produktiboagoa zena gailendu zen. Horrela, etxeko lanetan ere eragina izan zuen, eta neskametzaren antolaketa aldatu. Errendimendua eta produktibitatea bilatzen zuten enplegatzaileak (geroz eta gutxiago klase altukoek, eta geroz eta gehiago klase ertain eroso batekoek), eta, ondorioz, 24 orduko zerbitzuen ordez, ordukako lana nagusitu zen, eta horrekin batera etxeko langileak agerrarazi zituen. Etxeetan teknologia berriak sartzen hasi ziren, etxeko lan batzuk aldatu ziren, eta etxeko langileen lana, gutxitu ez arren, aldatu egin zen. Produktiboago izan behar zuten, baina lan zamak ez zuten behera egin.



Ona005121. Agustindarren ikastetxeko sukaldeko langileak, 1966.

#### 4.2.2. Langile identitatearen premia

Bestetik, jendarteko genero iruditerian izandako aldaketak aipatu behar ditugu. Emakume langilearen klase izaera indartzearekin batera, ordura arte eskasa zen neskametzaren prestigioa gutxitu zuen. Ez zegoen ondo ikusita familia batean neskame egotea, familia aberatsagoen zerbitzura egotea, familia horiekin gertuko harremanak, maitasunezkoak askotan, garatzea. Jendarte aristokratikoaren balioek pisua galdu zuten, eta horiekin batera neskametzarenak ere bai. Frankismoan nagusi izan zen eredu patriarkala, non emakumeek pater familiaren agintepean eta babespean egon behar zuten, zaharkituta gelditu ziren 60ko hamarkadan hasitako emakumeen praktika sozial berriekin. Neskameen jarrera otzana eta ia esklabotzaren parekoa, familia enplegatzailaren asmo eta desio guztien zaintza oinarri zituen zerbitzua, gutxitzen joan zen. Emakumeak beste lan askotarako gai zirela zabaltzen hasia zen, mentalitatea irekitzen ari zen, eta pixkanaka zantzu liberalagoak hartu zituen euskal jendarteak. Aurretik aipatu bezala, neskametzaren desagertzen hasi zen, eta etxeko langileak hedatu (Saenz del Castillo, 2019). Etxekotasunaren emakume eredu idealaren aurrean, emakume langilearena eta hiritarrarena hasi zen jendartean hedatzen, eta horrekin batera, etxeko langileek ere beren klase izaera indartu zuten.

#### 4.2.3. Migrazioaren aldaeren eraginak

Aurretik aipatutakoari migrazio prozesuen aldaketak ere gehitu behar dizkiogu. Aurretik, bereziki aipatu ditugu landa eremutik hirira migratu zuten emakume horien prozesuak. Esan dugu normalean bakarrik tokialdatzen zirela eta landa eremua zein hiriko talka nahiz aukera kulturalak jaso zituztela. Ibilbide motzeko migrazioak ziren eta, askotan, urte batzuen buruan jatorrizko herrira bueltatzen ziren, behin ezkontuta edota familiako zainzara. Baina 60ko hamarkadatik aurrera familia migrazioak garrantzi gehiago hartu zuen. Euskal Herrian garatzen ari zen industrializazio prozesuak beste herrialde batzuetako langileak erakarri zituen. Horiek ez zetozen bakarrik, familia osoa mugitzen zen, bizitza proiektu berri baten bila. Gainera, landa eremuko mekanizazioak eta produktibitateak gora egin zuen, eta ondorioz, beste lan batzuetan enplegatzeko hasi ziren beste probintzietako langile pobreak. Gizon asko fabrikan lanean hasi ziren, baina familia mantentzeko nahikoa ez, eta emakumeak ere etxeko zerbitzuan enplegatu ziren, orain orduka eta *interina* gisa.

Migratzaile berrien harrera ez zen atsegina izan. Saenz del Castillo Gasteizko kasuan jasotzen duenez, familia migratzaileak Euskal Herriko herrietako ekonomian eta kulturaren integratu ziren, gehienak bertan gelditzeko asmoa baitzuten, baina horrek tentsio ugari sortu zituen: "60ko hamarkadan gertatzen ari ziren desplazamendu luzeek kultura eta ohitura desberdinak harremanetan



Ona004630. 1988.

jartzea ahalbidetu zuten. Neskametzan eta horrekin lotutako ibilbide laburreko migrazioetan modu eragin-korragoan ahalbidetzen zuen enplegatzaileen tokiko kultura nagusitzea, garai horretako zerbitzu *externoekin* alderatuta. Horrek, klase eta azpiklase bereizkeriekin batera, bi komunitate antagonikoen fokalizazioa eta identitate eraikuntza eragin zuen, ordura arte ezagutu gabekoa. “Koreano” mespretxuzko terminoa erabiltzen hasi zen penintsula hegoaldeko goi-lautadako komunitateak identifikatzeko. Estereotipo etniko karikaturesko eta diskriminatzailea sortu zen, eta, ondorioz, iruditeria kolektiboan kategoria erreal eta objektibo bilakatu zituen. Kulturen arteko talka horrek eragin handia izan zuen etxeko zerbitzuan, eta komunitate batek beste batekiko zuen uste txarra zabaldu” (Saenz del Castillo, 2019:64).

Gasteizko kasua deskribatzen duen arren, Oñatin ere zabaldu zen terminoa eta penintsulako beste herrialde batzuetatik zetozenekiko iruditeria zein mespretxua. Horrek zuzen-zuzenean eragin zuen etxeko langileen-gan; izan ere, kolektibo diskriminatua zen sozialki, baina horrek are zapalduago egotea bultzatu zuen. Berriz ere, emakume, langile eta migratzaileen gain zeuden etxeko zerbitzuak, eta horrekin batera diskriminazio bortitzenak.

#### 4.2.4. Etxeko zerbitzuaren arauketa

Azkenik, aldaketa politikoak aipatu behar ditugu. Ordu-ra arte, etxeko zerbitzuak ez zeuden laboralki aratuak, ez baitziren jardun ekonomikotzat hartzen. Sanjek eta Collenen arabera “XIX. mendeko industria ekoizpenaren antolaketa kapitalistak, eta, horren ondorioz etxea eta lantokia ideologikoki bereizteak etxea lantokizat hartzea oztopatu zuen; era berean, ugalketa eta zaintza jarduerak gutxietsi egin ziren eta lan okupazioaren ideiatik aldendu ziren” (Sanjek eta Colen *in* Saenz del Castillo, 2019: 134). Horiek horrela, 1944ko Kontratuen Legeak harreman laboraletik kanpo utzi zuen etxeko lana, eta inongo eskubide zein arautatik kanpo kokatu zuen; hots, orotariko abusu egoerak jazotzeko eremu izaten jarraitu zuen.

Hala ere, arestian aipatu dugun jarrera babeslea ere bazegoen, eta, ondorioz, 1959an Lan Ministerioak onartu zuen Legeak Etxeko Zerbitzuaren Montepioa sortu zuen, eta Saenz Del Castilloren arabera, horixe izan zen enplegu gisa edo “benetako” lan gisa kontzeptualizatzen hasteko unea (Saenz del Castillo, 2019). Aitzitik, ez zen gainontzeko enpleguen eta horietatik eratortzen ziren eskubideen pare jarri, baizik eta etxeko lanei berezitasunak egokitu zitzaizkien, etxeko langileen kaltera-

ko. Jardueratzat hartu zen, eta subsidioa edota gizarte segurantza onartu zitzaion, baina harreman bereziak zeudela onartzen zen, etxea, familia edo bestelakoak jokoan sartzen baitziren.

Hutsuneak hutsune, hori izan zen 1985. urtera arte iraun zuen legedia. Aurrerago ikusiko dugun bezala, urte horretan onartu zen 1424/1985eko Errege Dekretua, eta, nahiz eta Langileen Estatutuaren baitan kokatu, erregimen berezia atxikitzen jarraitu zen Espainiako estatuan.

Horri guztiari diktaduraren amaiera gehitu behar zaio 1975. urtean. Frankismoaren amaierarekin aro bat itxi zen. Azken urteetan, bultzatutako misoginiak oihartzun txikiagoak zituen, eta etxekotasunaren ideia zalantzan jartzen hasi zen. Erljioak pisu gutxiagoa zuen, hezkuntzan aldaketak sustatu ziren eta, arestian aipatu bezala, enplegurako aukerak biderkatu ziren emakumeentzat. Trantsizio demokratikoa deritzonak emakumeekin erabat bidegabeki jokatzeko zuten hainbat lege aldatzeko bidean jarri ziren, eta lege berdintasunaren printzipioa ezarri zen Espainiako Konstituzioan.

Horrekin batera, antolatzen hasiak ziren etxekoandreen elkarteak zein etxeko langileen taldeak, ernaltzen ari zen mugimendu feministaren baitan. Bidegabetzat hartu zuten haien egoera, eta erroto aldatzeko, elkarrean antolatzen hasi ziren. 1985. urtean, PSOEn erreformak iraunarazi egin zuen erregimen berezia eta langile kolektibo horren baldintza infralaboralak mantendu zituen. Gure *Genealogia Feministak* liburuan jasotzen da: “Etxeko langileek kontratu bat eskuratzea oso zaila zen, eta horregatik, ezkutuko ekonomian murgildurik zegoen eremua zela salatu zuten. Hogei ordutik beherako lanetan, ez zegoen kontratu bat egiteko beharrik ere, eta ondorioz, kontraturik gabe egiten zuten lan askok, eta idatzizko hitzarmenik gabe, langilearen kalterako. Etxeko langileen ehuneko oso altu batek ez zuen asegururik. Nahiz eta arautu ezin zutela soldata minimoaren azpitik kobratu, kontratu ezak eta ikuskaritza ezak soldata oso baxuei eman zieten bide. Ez zegoen lan ikuskaritarik, ezta 1985eko araudia betetzen zen ziurtatzeko mekanismorik ere. Eta langileak babesik gabe zeuden opor, ordutegi eta soldatak adosterakoan. Hitzarmen kolektiborik ez zegoen, eta hura negoziatzeko aukerarik ere ez, eta horrek zaildu egiten zuen eskubideak aldarrikatu eta gauzatu ahal izatea. Kaleratzeak ere oso merke ateratzen zitzaizkion nagusiari, 7 egun soilik ordaindu behar baitzituen urteko” (Emagin, 2015:503).

Horregatik etxeko langileak antolatzen hasi ziren eta araudi hori hobetzeko aldarrikapena kalera atera zuten. Aldarrikapenen artean, idatzizko kontratua enplegu bu-

legoan kudeatzea, 40 lanordu erreal, lanbide arteko gutxieneko soldata eta aparteko saria 30 egunetakoa izatea eskatu zuten (Ibidem).

Oso zaila zen hain sakabanatuta zegoen kolektiboa batzea, eta hori erronka handia izan zen:

“Oso zaila da batzea. Bakoitzak ordutegi ezberdina dauka, lan ezberdinak dira, eta soldatak ere oso aldakorak dira. Gainera, kontzientzia-maila oso baxua da. Bestalde, uste dugu lan hau jendar-te justuago batean desagertu egin beharko litzatekeela. Zerbitzu sozialak eratu beharko lirateke, hartzaindegiak, jantokiak... Batzuen ustez utopia hutsa da. Beste langileen eskubide berak izatea litzateke benetan utopikoa. (...) Saiatu gara, bai. CCOOn eta LABen ez ziguten kasu askorik egin. UGTn ez ziguten beraiekin hitz egitera sartzen utzi. Alderdiei dagokienez, gure ekimenak ez dituzte kontuan hartzen. Uste dugu politikoki ez dugula inorengan interesik pizten. Horrek erakusten digu emakumeek soilik uler gaitzaketela, eta egia esan, talde feministak bakarrik izan dira gure problematika aztertu eta landu dutenak” (Ibidem).

Ez ziren herriz herri antolatuta, eta horregatik aipagarria deritzogu bereziki Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak egindako erreferentziazko lanari. Hala ere, haien zein etxeko langile ugariaren aldarrikapenei esker, sektoreko aldarrikapen nahiz beharrak sindikatu eta elkarte feministetan txertatzen joan ziren.

Ukaezina da Mugimendu feministaren agerpenak kolokan jarri zuela ordura arte nagusitutako emakume ereduak: etxekoandrea. Eta aldaketa sozial erako bi prozesu eragin zituen: 1980tik aurrera, batetik, lan merkatuan emakumeek gora egin zuten, eta bestetik, ugalkortasun tasa asko jeitsi zen. Etxekoandreei zuzenean eragiten zien, berritasun gisa, goi mailako hezkuntza jasotzeak ez ezik, ibilbide profesionala izateak edota sexualitate askerako aldarriek ere; hala, Mugimendu Feministaren ahotsak, arian-arian, Euskal Herriko etxe guztiak arrakalatu zituen, baita Oñatikoak ere.

### ARAUDIAK ETA ESKARIAK

Etxeko lanak arautzeko Espainiako estatuan indarrean dauden dekretuak kontuan hartu behar dira; izan ere, zuzen-zuzenean eragiten dio horrek zaintza lanen kontzepzio, aitortza eta profesionalizatzeko aukera zein baldintzei. Bi dira nagusi; batetik, 1620/2011 Errege Dekretua, etxeko zerbi-

tzuaren izaera bereziaren ingurukoa eta, bestetik, 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzako erregimenari buruzkoa. Aurretik zeuden lege eta araudien garapena dira, nahiz eta Etxeko Langileen elkarte askok behin eta berriz salatu duten oinarrian aldatu baino gehiago formetan aldatu direla.

Bada elkarteek salatzen duten besterik: Espainiako estatuak ez du OITren C189 hitzarmena berretsi. Ginebran 2011n sinatu zen hitzarmenak ezartzen ditu estatu kideek etxeko zerbitzuei buruzko araudietan jaso behar dituzten oinarritzko irizpideak, era duinean lan egiteko. Artikulu guztietan sartuko ez garen arren, aipagarria da estatuei egokitzeko zaien ardura etxeko zerbitzua gizalegezkoa izan dadin: abusu, jazarpena eta bortizkeriaren aurrean neurriak garatzeko ardura dute estatuak; gainontzeko langileek dituzten eskubideekin parekatu behar dira etxeko langileak; etxe batean bizi badira (egoiliarren kasuan), euren pribatutasuna babesteko baldintza egokiak bermatu behar dira; langileek era egokian eta egiaztagarrian informatuta egon behar dute, ahal den neurrian kontratu bidez; modu erregularrean ordainsaria jaso behar dute eta inguru seguru zein osasungarrian egon behar dute.

Hitzarmenak etxeko zerbitzua etxe barruan garatzen den lan gisa definitzen du. Hala ere, Errege Dekretuak lan horren izaera berezia azpimarratzen du behin eta berriz eta eremu produktibotik ateratzeko justifikazio ideologikoak erabiltzen ditu. 1985eko arauditik egotzi zitzaion izaera berezia eta beste enpleguekiko baldintza berezietan ezarri da. Dekretuak hitzaurrean horrela jasotzen du berezitasuna: “Aski ezagunak dira etxeko zerbitzuetan lanean diharduten pertsonen baldintza partikularrak, zeinak araudi espezifiko eta berezituak justifikatzen dituzten. Batetik eta, nagusiki, aktibitatea garatzen den eremua dago, familiako etxea, norbanako zein familiako intimitatera lotua, eta, ondorioz, merkatu ekonomiara lotzen diren gainontzeko harreman laboralen oso ezberdina. Bigarrenik eta, aurrekoarekin lotua, enplegatzaile eta enpleguaren arteko konfiantzazko lotura, beste lan harremanetan garatu behar ez dena”.

Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak (ELE) urteak daramatza etxeko langileen egoerari buruzko datuak jasotzen eta horien babeserako baliabideak eskaintzen. Haien web orrian ikus daiteke Espainiako estatuko araudia eta OITren C189ren artean egiten duten alderaketa (ELE, 2017). Hainbat artikulu eta gomendio aztertu arren, hiru ho-

bekuntza nabarmentzen dituzte (gainontzekoetan hobekuntzarik ez ekartzeak ez du esan nahi Espainiako araudiak aldaketak ez dituenik behar, baizik eta C189 hitzarmenaren estandarretan dagoela egun, askotan araudian jasotzen dena bete ez arren): lehengoak bizitzan pribatutasuna bermatzeko neurriekin du zerikusia, hitzarmenak langile egoiliarren kasuan horretarako neurriak hartu behar direla aipatzen baitu; bigarrenak zerikusia du osasungarriak eta egokiak diren baldintzak bermatzearekin, enplegatzailearen ardura izan beharrean hitzarmenak estatuaren gain uzten baitu; hirugarrena gainontzeko langileek dituzten baldintzekin parekatzeko beharrarekin dago lotuta, langabezia prestazioa zein soldata errealean kotasioa ez baitu jasotzen araudiak.

Batetik, Espainiako estatuak etxeko zerbitzuei buruz hitz egiten du eta, hitzarmenak, aldiz, lanari buruz. Kontuan hartu behar dugu lana, enplegua eta zerbitzua beti ez dela berdina eta horietako bakoitzak bere karga sinbolikoa duela (*Trabajadoras no domesticadas*, 2018). Bestetik, etxeko lanak ez dira parekatzen, inondik inora, Langileen Estatuak jasotzen dituen eskubideekin; hots, eskubide galera handia dago. Azkenik, idatzita dagoenetik errealtatera salto handia dago; izan ere, C189 eta RD 1620/2011n jasotzen diren eskubideak betetzeko zailtasunak daude. Ez dago kontratuaren kontrol mekanismorik eta ezta neurri nahikorik enplegatzaileek dagozkien betebeharrak bete ditzaten (ELE, 2017).

Izaera berezia eta, ondorioz, diskriminatzailea egozten zaio etxeko lanari. Horregatik, etxeko langileen elkarte, talde feminista eta sindikatuen aldarrikapena izan da gizarte segurantzaren erregimen orokorrean txertatzea etxeko lanak eta gainontzeko langileen eskubideekin parekatzea. RD1620/2011k jaso zuen Gizarte Segurantzaren sistema eraberritzeko 27/2011ko Legeak erregimen berezia orokorrean txertatu behar zela. 2019ko urtarrilaren 1ean aldatu behar zen arren, 2024. urtera atzeratu da.

### 4.3. ZAINZTA KRISIA: Betiko lepotik burua

XXI. mendera etorrira, Ongizate Estatuaren garapenak ez du, oraingoz, zapalkuntza patriarkalarekin bukatu. Are gehiago, egungo egoerak ez du erantzunkidetasun

errealia sustatzen, eta pertsonen arteko bereizkeriak areagotzen ari dira. Egia da. Emakumeen eta gizonen legezko berdintasunean aurrera egin da, eta esan dezakegu horretan jarraitzen dugula mende berrian sartu ginenetik. Aitzitik, mugimendu feministak oro har ez du begi onez ikusi erakundearen jardunbidea; izan ere, aurrerapausoak izan arren, ez ditu zapalkuntza patriarkalaren oinarriak ezabatu eta berau sostengatzen duten egitura sozial, politiko zein ekonomikoek bere horretan dira. Hau da, berdintasun formala ezarri da, baina errealtate oso urrun gaude oraindik. Gainera, berdintasun politiken oinarrian sexu edo genero zapalkuntza izan da, eta aspalditik adierazi zuen Mugimendu Feministak beste botere ardatz batzuk gurutzatu behar direla emakume ororen errealtateak aldatu nahi badi-ra. Enpleguan, adibidez, genero arrakalak darrai; izan ere, zaintza lanekiko erantzunkidetasuna falta da. Hori gutxi ez, eta genero indarkeriaz inoiz ezagutu gabeko datuak ditugu, urtez urte, kezkarriagoak.

Horrek eragin handia izan du emakumeen bizitzetan. Berdintasunaren ameskerian bizi gara; hots, berdintasunean bizi garela sinisten du populazioaren gehiengo batek, eta herritarren % 27,1ek bakarrik uste du sexuagatiko diskriminazioa dagoela (Ikuspegi, 2020). Hala ere, emakumeen bizitzak ez dira hainbeste aldatu eta ispilatze horrek frustrazio etengabea sortu du (horren adibide izan daitezke azken urteetako martxoaren 8aren harira egindako mobilizazio zein greba feministak). Horrela jaso zituen Euskal Herriko Bilgune Feministak (2019) lan merkatuko egoerari buruzko zenbait datu: "lan kontratu partzialetan ari diren % 76,3 emakumeak dira (enplegua duten emakumeen % 23,8); emakumeon % 27,6 ari da aldi baterako kontratuarekin lanean; kontraturik gabe lan egiten ari direnen artean, % 73,8 dira emakumeak (Eustat, 2018); eta langabetuen erdiak baino gehiago dira emakumeak: % 57,2. Soldatari dagokionez, berriz, Hego Euskal Herrian emakumeok gizonak baino 7.680 euro gutxiago kobratzen dugu; urtean batez beste % 25,2 gutxiago kobratzen dugu (INE, 2016). Horri soldata arrakala esaten zaio, eta soldatetan eragiteaz gain, beste hainbat gauzatan du eragina: enplegu sarbidean, generoaren araberako segregazioan (enplegu feminizatu eta maskulinizatuak sortzea eta jarduera berdina egiteagatik generoari loturiko kategoria ezberdinak egotea), segregazio bertikalean (lanpostu kategorietan gora egiten den heinean emakumeon kopurua murriztea) eta kristalezko sabaian".

Egoera berdinez mintzo zaigu *Demokrazia Patriarkala* lana: lan ordainduak, eta zehazki, eremu produktibo maskulinizatuak, aitortza soziala dauka eta autonomia pertsonala eskaintzen du edo eskaini izan du orain dela gutxi arte. Halako ezaugarriak ez du lan errepro-

duktiboak, lan ez ordaindua izendatu duguna, ez baita lan “ez ordaindua” erreproduktiboa delako, baizik eta emakumeek egiten dutelako, eta, beraz, ikusezina da sozialki. Horrek erlazio zuzena du emakumeek duten lan karga handiagoarekin, gizonen baino gehiago egiten baitute lan, urtean 400 ordu gehiago batez beste, baina % 25-30 arteko soldata txikiagoa daukate. Are gehiago, emakume pentsiodunen erretiro pentsioa % 43 txikiagoa da Hego Euskal Herrian” (Goikoetxea, Miralles, Garai eta Etxeberría, 2019). Ezbairik gabe, diskriminazio agerikoak mantentzen dira Euskal Herriko emakumeen bizitzetan, eta berdintasun politikak zein kontziliazio neurriak aurrerapausoak diren arren, ez dute lortu egoera aldatzea.

Borroka feministaren eraginez gauza asko aldatu dira, baina mugimendu feministari lan asko gelditzen zaio egiteko; izan ere, esan bezala, pertsonen arteko arrakalak eta bereizkeriak hor jarraitzen dute. Hala ere, orain dela hamarkada batzuk feminismoak soilik defendatzen zituen ideia asko zoru komunera igaro dira, eta eremu askotara hedatu dira ideia feministak. Tere Maldonado, zeina besteak beste Feministaldeko kide eta irakaslea baita, horrelaxe dio: “Ez dut uste ideia feministak finkatutzat jo daitezkeenik guztia sinesmen gisa kristalizatu izan balitz bezala, baina uste dut hori gertatu dela ideia feminista batzuekin. Izan ere, dagoeneko ez dira ideia feministak; horren orde, ia konturatu gabe, zentzuaren parte izatera igaro dira. Bide luzea dago egiteko, baina ezin da ukatu feminismoak errealitateari buelta eman diola, bai arlo materialean, bai eta, batez ere, arlo sinbolikoan ere. Planeta osoko gizon eta emakumeen bizitzak aldatu ditu, bere lehentasunak mundu osoko gobernu eta nazioarteko erakundeen agendan txertatu ditu eta inoiz ikusi gabeko zeharkako laguntza lortu du” (Maldonado, 2020).

Feminismoaren hedapena ikaragarria izan da azken urteetan. Mugimenduaren erraiak aldatu dira, eta ikusgarritasuna, legitimitatea eta mobilizatzeko gaitasuna areagotu eta indartu egin dira. Feminismoa anitza eta askotarikoa da eta geroz eta esparru gehiagoetan eragiteko aukerak biderkatu ditu. Erakunde publikoetan eragina izaten jarraitzeaz gain, elkarte eta mugimendu sozialetara hedatu da, talde feminista autonomo pila bat sortu dira. Hala ere, kezka begiratzen diote egoerari; izan ere, XXI. mendeak ekarritako lurzoru berrian, bereizkeria egoerak geroz eta larriagoak dira; hala, zibilizazioaren krisiaz mintzo da. Aspalditik dator, eta gure jendartearen eraiki ditugun zutabeek eragin dute, hain zuzen ere, orain dela mende batzuk abiatu zen Mendebaldeko proiektu zibilizatzailea; hots, desberdintasun sexuarean, jabetza pribatuan, lanaren banaketan, espazioen banaketan, kolonizazioan e.a. oinarritu dena.

Horren barruan, Mugimendu Feministak munduko toki ugarian zaintza krisiaz mintzatu da; izan ere, sistema kapitalistak erreproduktio sozialerako formen etengabeko ahultzea ekarri du. Jarraian garatuko dugu zertan oinarritzen den krisi hori.

#### 4.3.1. Zer da zaintza krisia?

Euskal Herriko zaintza antolaketa ez ditu gizartearen beharrak asetzen, ezta Oñatin ere. Alegia, indarrean dугun zaintza erregimenak ez du gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko, eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek. Biztanleriaren zahartzeak, menpekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzeak, politika neoliberalen garapenak eta era askotako familia ereduaren hedapenak (besteak beste, familia geroz eta txikiagoen eratzea) zaintzak antolatzeke moduetan inpaktu handia izan dute eta, ondorioz, zaintza krisiaz mintzo gara.

Eustatek 2030. urterako inoiz ezagutu gabeko biztanleria piramidea aurreikusten du. Askoz gehiago izango dira adin tarte zaharragoetan gazteetan baino. 1970ean genituen 16 urtetik beherako gazteak erdia izatera pasako dira, eta gaur egun baino % 12 gutxiago. 65 urtetik gorako biztanleriaren kopurua 465.000tik 616.000 izatera pasako da, % 32 gehiago. “Laburbilduz, 16 urtetik beherako biztanleria populazio osoaren % 13 izango omen da 2031n, gaur baino 3 puntu gutxiago; 16-64 urte artekoena % 58,8, gaur baino 5 puntu gutxiago; eta adin nagusikoen pisua % 28,2 izango omen da, gaur baino 7 puntu gehiago” (Garmendia, 2018). Horiek horrela, zaintza beharrak areagotuko direla aurreikus daiteke; gaur egun gai ez bagara herritar guztion zaintza esku-bidea errespetatuta guztion zaintza beharrak asetzeko, egoerak okerrera egingo du eta aukera bakarraren oinarria emakumeen eta, bereziki, migratutako emakumeen esplotazioa izango da.

Agienez, zaintza lanak eskaintzeko geroz eta zailtasun handiagoak daude eta beharrak nabarmenagoak dira. Erakunde publikoetatik baliabide edota prestazio gehiago sortu diren arren, logika asistentzialistatik egin da eta ez dira, inondik inora, jendarte osoaren zaintza behar guztiak asetzerantz iritsi. Are gehiago, zaintza zerbitzu asko merkatuaren eta irabaziak metatzeko logikan jarri dira. Zaintza lanak irabaziak izateko merkantilizatzen badira, enpresak, ezinbestean, langileen egoeraz zein zaintza premia handiak dituzten pertsonen edota familien baliatzen dira. Lehenengo kasuan errenta oso baxuak eta lan baldintza oso eskasak ezartzen dira, eta bigarren kasuan, ordaindu ezin diren tasak ezar-

tzen dira, esaterako, adinekoen egoitzetan. Hain zuzen, hori salatzen dihardute, luzaro, zaintzako langileak.

Gizonen erantzunkidetasun faltaren eta erakunde publikoen lege zein araudi asistentzialista eta familisten ondorioz, emakumeak behartuta daude askotariko estrategiez baliatzera zaintza premiei aurre egiteko. Askotan bere gain hartzen dituzte, gatazka gehiago ez sortzeko eta beharrak bermatzeko. Aukera dutenek besterengantzen dituzte; izan ere, emakume askoren prestasuna ez da lehengoa bezalakoa, eta hainbatek beren bizitza sozial eta profesionalarekin jarraitzeko hautua egiten dute. Edonola ere emakumeak dira zaintza lanetan jarduten dutenak, izan profesionalki edo doan. Alabaina, aurretik aipatu dugun bezala, zaintzarekiko harremana definitzeko beste aldagai batzuk ere kontuan hartu behar ditugu. Klaseak, arrazak edota migrazio estatusak zaintza lanak gurutzatzen dituzte, eta zapalkuntza horiek gurutzatuta bizi diren emakume asko ezin dira zaintza lanez askatu. Euskal Herriko emakume batzuek etxekotasunetik askatzeko aukera izan eta baliatu dute, beste batzuek, aldiz, kate horretara lotuta jarraitzen dute. Zaintza lanak ardura kolektiboa izan ezean, gorputz eta lurralde batzuen ustiapenean oinarritutako eredu iraunarazten ari da euskal jendartea.

Horri buruz hausnartzeko, hainbat teorialari zaintzen kate globalaz mintzatu dira. Esan dugu gurean bizi dugun zaintza krisiak hegoaldeko emakumeen migrazio prozesuak areagotu dituela. Premia horiek bultzatuta, emakume askok haien jatorrizko lurraldeetatik migratu dute Euskal Herrira zaintza lanen sektorean enplegatzeko, beste aukerarik ez baitute izan. Emakume etorkin eta arrazializatuak dira nagusi zaintza lanetan, bai administrazio publikoak bultzatutako zerbitzuetan, bai merkatuaren logikan mugitzen diren bestelakoetan (irabazi asmoko enpresetan), bai etxeko langileen kasuan. Horregatik, ezinbestean ikuspegi transnazionala behar dugu zaintzak aztertzeko, ulertzeko eta politikoki kokatzeko (P.Orozco, Gil, 2014).

Zaintzaren kate globalak (Hochschild, 2000) deitu den fenomenoak bereizkeria egoerak mahaigaineratu nahi ditu. Lan erreproduktiboaren nazioarteko banaketa du oinarrian, eta banaketa hori asimetricoa da. Lehen katebegia iparraldeko emakumeek osatzen dute, ez dutelako nahi edo ezin dutelako inguruko zaintza lanez arduratu. Horiek lan merkatura ateratzen direnean, beste emakume batzuek uzten dituzte zaintza lanak. Horra hor bigarren katebegia, hegoaldeko migratu duen emakumea. Horiek, era berean, bere jatorrizko herrialdean bere inguruko beste emakumeengan laga dituzte ordura arte beren kargu zeuden lanak. Azken horiek izango lirarteke hirugarren katebegia. Hala ere, badira

kontzeptu horrekin kritiko agertu direnak ere, argudiatuz ezin dugula soilik emakumeen arteko bereizkeriez hitz egin eta emakumeak markatu, estatuak, merkatuek eta gizon pribilegiatuek ardurarik hartu ez dutenean.

Gaur egun, esan dezakegu Oñatin (Euskal Herri osoan bezala) zaintza lanen antolaketa bidegabe baten aurrean gaudela. Orozco eta Gilen ustez bi elementurekin lotzen da: “alde batetik, ez dago zaintza lanen ardura sozialik eta etxeetan emakumeen gain gelditzen dira; beste aldetik, lotura sistemikoa dago zaintzaren, bereizkerien eta prekaritatearen artean” (2011:32). Zaintza lanez arduratzen direnek lanaren eta baliabideen banaketa desorekatua bizi dute. Horrenbestez, pobrezia edo bazterkeria pairatzeko askoz aukera gehiago dute. Enplegua dutenek, besteak beste, prekaritatea, soldata eskasak, malgutasuna, araudi diskriminatzaileak pairatzen dituzte.

EAEko zaintza erregimena eredu mediterraneoan kokatu dute hainbat autorek. Zerbitzu sozialen sare eskasa du eta transferentzia ekonomiko gutxi daude (zaintza beharrekin alderatzen badugu). Ondorioz, familiengan (emakumeengan) delegatzen da zaintza lana. Familiako zaintzak dira balio gehien dutenak, egokienak; izan ere, zaintzak afektuekin lotzen jarraitzen ditugu eta uste dugu maitasunak zeharkatutako eremuak direla. Horiek horrela, zaintzaren eremu informala nagusitzen da, eta horrek emakumeen enplegurako sarbidea eragozten du. Hala ere, Espainiako estatuaren baitan ere eredu ezberdinak aurkitu ditzakegu. Martinez Bujanek (2011) EAEko ereduari hautazko-familista deritzo. Zerbitzu sozialak, prestazio ekonomikoak, etxeko langileen kontratazioa eta familiaren arreta nabarmenagoa da zaintzeko. Babes soziala handiagoa den arren (beste erikidego batzuekin alderatuta), etxeko langileen kontratazio altuenetakoa du estatuan. EAEn % 26ra iristen da eta estatuko batezbestekoa % 14,5 da.

Erakunde publikoek zein gizonek ez dute zaintzarekiko ardura hartu, eta horrek eragin zuzena izan du, aipatu bezala, soldatarik gabeko zaintza lanetan eta soldatapekoak direnetan. Familia zaintzetara gehien gerturatzen diren zaintzak etxeko langileen kontratazioan oinarritzen direnak dira, eta horrela, etxeko lanbidea, desgertu ez ezik, zaintza ataza handienak konpontzeko baliatzen jarraitzen dugu. Zaharrak berri: gutxien duten emakumeen bizkar uzten jarraitzen dugu etxeari edota zaintzari lotutako jarduera oro. Gaur egun, orain dela 50 urte bezalaxe, migratzera behartuta dauden emakume txiroen bizkar uzten ari gara urteetan konpondu gabeko gatazka.

#### 4.4. Etxeko langileen bizi eta lan baldintzak

Esan bezala, soka bereko bi mutur dira nola XX. mendeko neskameak, hala XXI. mendeko etxeko eta zaintzako langileak, jarraian ikusiko dugun bezala. Etxeko langileen kasua, neskametzarena bezalaxe, adierazgarria da oso. Haien jarduera profesionalean zapalkuntza patriarkalaren orotariko erpinak azter daitezke, eta etxeko zerbitzuarena eremu ezin hobea da klasea, arraza, migrazioa zein sexua nola artikulatzen diren ikusteko. Gizartean oso gutxi baloratutako taldea izan da historikoki, lan merkatuan aitortzarik gabekoa. Ohikoak baino lanaldi luzeagoak dituzte, askotan eremu pribatua izaten dira eta herrialde askotan ez daude guztiz araututa; Espainiako estatuan araudia dagoen arren, oso era informalean garatzen da. Gizarte segurantzako erregimen berezian afiliatu behar dute, eta horrek ez dizkie erregimen orokorrak eskaintzen dituen eskubideak eskaintzen. Horrek zaurgarritasuna areagotzen du eta, horrenbestez, indarkeria pairatzeko aukerak biderkatzen dira (OXFAM, 2020). XX. mendeko neskameen oinordekoak dira egungo etxeko langileak, eta, gaur gaurkoz, egoera ez da ia ezertan aldatu:

El sector domestico, es el sector que tiene la mas alta tasa de empleo a jornada parcial de todo el empleo. Es una de las excepciones del Regimen General de la Seguridad Social: se hace obligatorio darse de alta pero con unos recortes de derechos y de cotizaciones. Las cotizaciones no se aplican por lo que ganas, sino por tramos... las que trabajan por pocas horas, no tienen ni porque cotizar. *Sdenka*

Zalantzarik gabe, sektore horretan emakumeak dira nagusi. OITren arabera, etxeko langile gisa munduko emakumeen % 7,5 ari dira, eta orotara, nahiz eta 52,6 milloi direla ondorioztatu, benetan ia 100 milloi direla diote. Horietatik % 29,9 estatuen araudietatik at daude eta % 50ek ez du babes ekonomiko nahikorik (2018). Askok ez dute lan orduetan mugarik eta Gizarte Segurantzaren prestazioak ez dira haientzat eskuragarriak. Horregatik etxeko langileen eta antolatu diren elkarteen aldarrikapen historikoa izan da beren jarduera erregimen orokorrean txertatzea, eta erabateko prekarizazioarekin bukatzea:

Mantiene esta tremenda situacion de precariedad. Es fundamental la incorporacion plena de las trabajadoras del hogar en el regimen general de la seguridad social, para eliminar la discriminacion que sufre este colectivo, pero hasta la fecha no se ha eliminado. Sigue sin ratificarse el convenio C189 de OIT. Que garantiza los derechos de las traba-



Hainbat zainzaile Oñatiko plazan, astegun goizez. *Jone Arrazola.*

jadoras del hogar, aun no se han equiparado con los salarios reales en la seguridad social y con los tramos actuales la cobertura de vacios que influye en las pensiones. *Sdenka*

Egun, etxeko eta zaintza lanak besterenganatzeko joera ematen ari da gurean. Menpeko pertsonen zaintza bermatzeko ezintasunarekin lotura du askotan, baina, beste batzuetan, aisialdirako denbora tarte zabalagoak izateko erabakiarekin. Horren atzean, gizonen eta erakundearen erantzunkidetasun falta eta etxeetan genero gatazkak ekiditeko joera dago. Horren isla da enplegatzaileen % 15ek etxeko langilea duela, menpeko pertsonarik kargura izan gabe, zein etxetik kanpo lan egin gabe. Era berean, enplegatzaileen % 26,2k etxetik kanpora lan egiten du eta etxeko langilea dute etxeko lanetarako bakar-bakarrik, ez baitute ez adineko, ez adin txikikorik kargupean. Eskatzen diren lanen % 80 garbiketa eta bestelako etxeko lanak dira, eta ez adin txikiko eta zaharren zaintza. Hala ere, etxeko langilea duten etxeen % 56k menpeko pertsonak zaintzeko beharrari erantzuteko da, seme-alabak zein zaharrak, eta zaintza bestelako etxeko lanekin uztartzen da. Klase guztietako pertsonak kontratatzen dituzte etxeko langileak, baina, noski, aldea dago kopuruan: klase baxu-ertaineko

etxeen % 8,5ek du etxeko langilea kontratatuta, klase ertaineko % 16,4k eta klase altuko % 30ek (Eusko Jaur-larritza, 2011).

Ez dira luxuzko zerbitzuak, baizik eta, enplegua eta zaintza lana kontziliatzeko estrategia orokortua, erosteko ahalmena duten familiek baliatzen dutena. Oñatin ere, etxeko langileen kontrataziora jotzen da zaintzak desfamiliarizatzeko estrategia gisa, eta 2020ko abenduan 125 etxeko langile zeuden alta emanda Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian:

En Oñati, en cada casa de cada una de ustedes hay una inmigrante. Yo las veo luchando en la plaza con mucho discurso feminista pero no comienza en casa. Y es que eso es tremendo ah...Entonces digamos que les resultaba incomoda yo, no? Hay que comenzar por ahí! Es importante la coherencia, la ética, minimante...*Sdenka*

Era berean, emakume migrante askoren enplegurako sarbide bilakatu da, askotan ez baitzaie beste aukerarik gelditzen Euskal Herrian soldatapeko lanean jarduteko, eta haien egoera erregularizatzeko aukera bakarrene-takoa da:

Cuando llegué a Madrid, la única opción era entrar de cuidadora o empleada del hogar. En una época cuide a los hijos de una mujer millonaria de Madrid. El pequeño agredía al mayor y tenía problemas de escolaridad. Hicimos un buen trabajo. Cuando lo dejé me dijo: “ahora me dejas?”. El señor me ofreció que si trabajaba 5 años mas, me daba un puesto en su empresa. Pero no, yo no quiero promesas... *Sdenka*

#### 4.4.1. Lan harreman zaildua: enplegatzaileak eta langileak

Zaintza eta etxeko zerbitzuetako lan harremanak baditu bereizgarriak eta aitortu dezakegu beste enpleguak ez bezalakoak direla (nahiz eta horiek ez lukete izan behar diskriminaziorako arrazoi, legeek jasotzen duten bezala). Hiru dira lan harreman horretan elkarrekin erlazio etengabeen daudenak: etxeko langilea, familiako titularrak eta etxea. Hau da, langilea, enplegatzailea eta lan harremana garatzen den espazio fisikoa.

Etxeko langileen artean, askotariko profilak daude. Batzuk egoiliarrik dira, 24 orduz etxeetan jarduten dute eta 7 egunez egiten dute lan; 24x7 deritze. Beste batzuek aste barruan egiten dute lan, eta beste batzuek asteburuetan soilik. Ia denak dira migratutakoak eta

lautik batek nazionalitate bikoitza du. Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren % 60,21ek paperak zituen, eta gainerako % 39,79 egoera administratibo irregularraren zegoen. Paperik ez zutenen % 62,83k egoiliar gisa lan egiten zuen, eta % 37,17 *externak* ziren. Azken horiek orduka egiten dute lan, eta etxe batean baino gehiagotan lan egiten dute normalean. Haien lanaldiak ordurakoak, lanaldi partzialak edo osoak izan daitezke, baina ez dute enplegatzailearen etxean lan egiten (ATH-ELE, 2020):

En el país vasco, las internas trabajan mas de 60 horas previstas en la Ley del Empleo, y mas del 90% no llega a percibir el salario minimo interprofesional. En Oñati tambien se ha incrementado la afiliacion en la Seguridad Social, hay muchas que han logrado hacer sus papeles en Oñati. Pero tambien se han ido reduciendo los salarios porque si mas o menos te hago los papeles, regularizas, que tal...pero lo pagas tu! *Sdenka*

Oso sektore indibidualizatua da eta horrek dagozkien eskubideak ondo ez ezagutzea dakar. Ez daude sindikalizatzeko prozesu nabariak (zorionez geroz eta gehiago dira Euskal Herrian etxeko langileen inguruan sortzen diren ekimenak eta langileek osatutako elkarteak), ezta hitzarmen kolektiboak ere (Trabajadoras no domesticadas, 2018). Asko dira enplegua aldatuko luketenak, etxeko zerbitzuek metatzen dituzten diskriminazioak identifikatu eta gero.

Lan harremanaren bigarren katebegia enplegatzaileak dira, familiak. Normalean, ordura arte etxean zaintzaile nagusia izan denak, XX. mendean etxeoandrea litzatekeenak, hartzen du erabakia, baina kasu horietan ere, ez dute kontratazioetan eskarmenturik. Askotan, gainera, egoera oso urgenteetatik aterabidea topatzeko kontratatzen dute etxeko langilea, presaz, eta borondate txarrik ez izan arren, ez dituzte etxeko langileei zor zaizkien eskubideak bermatzen. Beste askotan, irregulartasuna eta zaurgarritasun egoerak baliatzen dituzte eskubide urraketa iraunarazteko.

Hirugarrena etxeak dira; batzuetan langile bakarra da eta beste askotan gehiago izaten dira. Legeak etxearen bortxaezintasun klausula jasotzen du eta horrek asko zailtzen du eremu pribatuaren kontrola. *Trabajadoras no domesticadas*en ikerlanean (2018) aipatzen da ezohikoa dela lan ikuskaritzak etxeak kontrolatzea, eta horren ondorioz, lan baldintzak aldatzea. Egoiliar duden oso informazio gutxi dago etxearen inguruan, baita ostatu eta mantenuari buruz ere. Izan ere, espazio pribatutzat hartzen da eta horrek zaildu egiten du baldintzetan eragitea.

#### 4.4.2. Migrazio prozesuak

Etxeko langile moduan jarduten zuten emakumeak espainiar jatorriko pertsonak ziren XX. mendean. Horiek egoiliar edo kanpo langile modura jarduten zuten jardun osoan, eta, normalean, etxe bakarrean jarduten zuten. XXI. mendean, iparraldeko herrialdeetan zaintza beharrak asetzeko zailtasunak eta hortik eratorriko krisiak eraginda, herrialde txirotuetako emakumeen migrazio prozesuak areagotu dira. Horregatik feminizatutako eremua izateaz gain, diogu arrazializatutakoa ere badela. Gainera, zenbait autore etnoestratifikazioaz mintzo dira, jatorrien artean ere hierarkiak sortzen direla adierazteko; izan ere, Euskal Herrian Erdialdeko Amerikako zein Hego Amerikako herrialdeetako emakumeak lehenesten dira zaintza lanetarako, eta beste jatorritakoak baztertu. Atzerritarrei buruzko Legeak bizilekua lortzeko ezarritako oztopoengatik egoera irregularrean mantentzen diren emakume pila bat dago. Enplegu arautuan jarduteko zailtasunak, zaintza zerbitzuen prekaritateak eta sare sozial ezak emakume asko muturreko egoeratarako kondenatu ditu:

Pero la exclavitud de las trabajadoras internas esta favorecida por la Ley, por la Ley de Extranjería, porque las mujeres al no tener papeles... ellos mismos (los gobernantes) han buscado formas de presionar porque como no tienen formas de responder con políticas públicas, con recursos, a los servicios de cuidados, a los que tienen el deber de responder. Así, es extranjería, somos las mujeres extranjeras que estamos respondiendo a esto: por no tener papeles, por el miedo a ser expulsadas... Hasta que tenga papeles, pero sabes que no es un día, ni dos. Tres años! Solamente estar empadronada y arreglar sus papeles es toda una odisea. Es tremendo. *Sdenka*

Yo llegue acá con papeles legales. Llegué a cuidar a una señora mayor y a ella le habían quitado muchos recursos, entonces no tenía lo suficiente para pagar un contrato. Entonces pierdo los papeles. *Sdenka*

Las mujeres jóvenes, no tienes idea de lo que estan dispuestas a hacer por obtener los papeles! *Sdenka*

Bizirauteko beharrak eta, egoera arautzeko egitera behartuta dauden ibilbideak bultzatuta, etxeko langile asko egoiliar gisa jardutera bideratu ditu. Zaintza beharrak gora egiteaz gain, batez ere adinekoen menpekotasun mailak, askok 24 orduko zerbitzuaren premia dute eta horri erantzuteko eskakizunak etxeko langile egoiliarren gorakada ekarri du. Langile horien baldin-

tzak ez dira batere erakargarriak bertan jaiotakoentzat, neoesklabotzaz mintzatzen diren elkarrekin ere badira eta, beraz, migranteen esku gelditzen da lan eredu hori gehienetan (beste aukerarik ez baitute). Hala ere, euskal jendarteko arrazakeriagatik, bertako langileak kanpokoan aldean hobesten dira:

Ohian egoten naiz, ez dot kalera urteten. Oin bi urte etorri nintzan Oñatira, ahizpia zainketara eta bertan geratu naiz. Lagunketako Dina dakot: nik ez neben gura nunbaittekua, baina laguntzia bihar neben eta bertakoik eztau, erdaldunik bez. Ohitu naiz. Urtebete pasauta doia hemen eta politto ikasi dau; bueno, ikasi baino, zuk erakusten xatzu. *Esperantza*

A ver, lehenengo euki geben neska bat, boliviana bat. Eta gero harek 4 urte in zittuan, eta honeik lehenengotan oso ondo portaitten dia. Baina gero konfiantzia hartzen daue eta eurak itten dia etxian jabe. 2 ordu dakoi hartzeko? Ba tranpak itten daue: “es que tengo que estar con el profesor del hijo”. Gero “no me encuentro bien y voy por urgencias” eta azkenian ez gekixen ala gizurak ala egixak esaten ozkun. Gizurak pe asko. *Maria*

EAEn etxeko langileen % 90 baino gehiago emakumeak dira. Horien artean, erdiak baino gehiago etorkinak dira eta % 75 Hego Ameriketatik etorritakoak. Etxeko langileen % 25ek kontraturik gabe egiten du lan, eta gehienek egoiliar gisa (Nogueira eta Zalakain, 2015). Migrazio prozesua luzea izan ohi da, eta ez da, beraz, helmugako herrialdean lur hartzean amaitzen, orduan hasi baizik ez du egiten: bertara iritsita, bizirauteko bitartekoak bitartekotzen dituzte migranteek, eta leku aldaketa ugari egiten dituzte, iruzurak pairatzen dituzte, baita tratu txarrrak ere.

#### 4/2000 Atzerritarrei buruzko Legea

Eskubide ezaren aurrean, oraindik ere, emakume askok etxeko langile gisa jarduten dute bizirauteko. Horien barruan aipagarriak iruditzen zaizkigu herrialde txirotuetatik migratu duten emakumeak. Askoren egoera irregularrak oraindik eta zaurgarriago bilakatzen ditu, beren jatorriko herrialdeetan utzi duten familia mantentzeko edota beren egoera erregularizatzeko, behartuta baitaude enpleguari edozein baldintzatan eustera. Eskubide galera, diskriminazioa eta bortizkeria areagotzen dira horrelako kasuetan. Emakume horiengan eragin zuzen eta negatiboa du 4/2000

Atzerritarrei buruzko Lege Organikoak; izan ere, migrazio fluxuetan, baliabide sozialetan eta parte hartze soziopolitikoan eragin zuzena du (Nogueira eta Zalakain, 2015).

Atzerritarrek Espainiako estatuan bizitzeko duten era zuzenena lurraldean errotuta dagoela egiaztatzea da. Errotze laborala da bide horietako bat. Bi urteko egonaldi irregularra frogatu behar dute, eta horien artean 6 hilabetez lanean egon direla egiaztatu behar dute. Azken hori lortzeko ebazpen judiziala edota Lan eta Gizarte Segurantzza Ikuskaritzako arau-hauste akta froga gisa aurkeztu behar ditu. Bizileku baimena lortzeko, bi urtez era irregularrean eta eskubiderik gabe bizitzen pasa behar ditu, frogatu behar du ez duela delitu penalik eta gutxienez 6 hilabetezko lanaldi irregularra izan behar du, horrek dakarren zaurgarritasuna barne. Hori horrela, Zinthia Alvarezek (2019) idatzitako artikuluan dioenez: “bi urtez era irregularren bizitzera behartu baina enplegurako aukera eta oinarrizko eskubideetara sarbidea ukatzen dituen estatu batek atzerritarrak bazterketa sozialera kondenatzen ditu”.

Errotze soziala da gehienetan erabiltzen den prozedura. Hiru urtez era irregularrean bizitzen egon behar dute atzerritarrek. Norbaitek urtebeteko lanaldi osoko aurrekontratua egin behar dio, edota autonomia erkidegoko edo tokiko administrazioaren bizileku txostena helarazi behar du. Beraz, errotze soziala da gehienek hautua, errotze laboralak edo familiarrak oso zailak baitira, langileak lanaldi irregularra frogatzeko salaketa jartzera behartuta daudelako, edo nazionalitatea duten seme alabak izan behar dituztelako (Nogueira eta Zalakain, 2015).

#### 4.4.3. Ezkutuko lana, prekariora eta baliorik gabekoa

Aurretik aipatu dugu zaintza lanak saski-naski bat direla. Horiek definitzeko zailtasunak ditugu eta enplegu bilakatzen direnean nahasmena biderkatu egiten da. Askotarikoak dira etxeko langileek egiten dituzten lanak, izan zaintzarako kontratatuak izaten direnean, izan garbiketarako kontratatzen dituztenean. Bi multzo nagusitan banatu ditzakegu: batetik, etxeko mantenturako lanak direnak eta zaintza lanak. Azken horien baitan lehenengoak sartu daitezken arren, inplikazio ezberdinak dituzte. Are gehiago, kontratatuak ez dituzte langilearen funtzioak hasieratik argi azaltzen (Trabaja-



Bi etxeko langile migratu pertsona nagusi banarekin Atzeko Kalean.  
*Jone Arrazola.*

doras no domesticadas, 2018) eta, beraz, lan jarduna saski-naski bihurtzen da.

Nahasmen horren baitan, *Trabajadoras no Domesticadas* elkarteak lanak bereizteko proposamena egin du. Horiek ikustarazteko eta atzean ezkutatu dezaketenean arduraren maila neurtzeko baliagarriak izan daitezkeela deritzote:

Gauza bat da norbait kontratatzeke berehalako beharra izatea zaintza lan intentsiboetan jarduteko, askotariko zamak direla eta, etxeko kideek bere gain hartu ezin dutena. Eta beste bat da etxea garbitzeko norbait kontratatzea, borondatea egongo balitz, lanak etxekoen artean banatu daitezkeelako eta gizonek dituzten pribilegio batzuei uko egiteko bidea izan daitezkeelako. Betebeharrari ihes egiten zaio eta pribilegioa ez da ikusten. Horregatik hitz egiten dugu zaintzaren zorraz (ibidem, 57).

Aurrez hitzartutako lanak ez dira denborarekin egiten diren lanak; izan ere, denbora pasa ahala lan zama igozten joaten da eta, ondorioz, etxea zein familiarekiko ardura ere handiagoa da. Lanordu gehiago eskatzea, aurretik adostutako etxeko lanak gehitzea, kargupean dauden pertsonak biderkatzea edo familia guztiarentzako bazkaria egin behar izatea ohiko jokoerak izaten dira. Mesede gisa eskatzen joaten dena, gero ohitura bilakatzen da eta etxeko langile askok ezin diote uko egin, lana galtzearen beldur, noski:

Que pasa? Que a la interna que esta contratada para cuidar del abuelo, también le piden mirar a los niños por las tardes. Ahí esta la relación afectiva y el abuso. La chica está para todo. Cada vez se van ampliando las tareas...*Sdenka*

Kategoriarik ez ezartzea eta askotariko lanak egin behar izatea ez da kasualitatea. Lan pila bat aurrera ateratzea baimentzen du, lan oso ezberdinak homogeneizatu eta profesionalizazioa oztopatzen da, eta ikusezintasunera kondenatu, beste behin. Horregatik garrantzitsua da galdetzea zein diren etxeko langileen esku uzten diren lanak, normalean gogorrenak, aspergarrienak eta gutxien baloratzen direnak izaten baitira. Gizon eta emakumeen artean zaintza lanetan egiten den bereizketa errepikatzen da askotan (P.Orozco, L. Gil, 2011). Gehien eskatzen den zerbitzua garbiketa da eta etorkinak, hein handi batean, pertsonen zaintzaz arduratzen dira. Adingabeen zaintza, ordea, sarriago bertan jaiotakoen esku uzten da eta kanpoko lan gisa egiten dute, emakume gazteek zein helduek.

Lan harremanaren beste gakoetako batek maitasunarekin du zerikusia. Zaintza onak askotan maitasunarekin lotzen direla aipatu dugu aurretik, horiek dira desio ditugunak eta eskatzen direnak. Horiek profesionalizatzen direnean ez da bestelakorik gertatzen. Familiek afektua eskatzen dute, lana ondo egitea horrekin lotzen baita. Alderdi emozionala ez da negoziatzen, eta negoziazio falta horren aurrean, langileek edo naturalizatu edo gehigarri gisa uler ditzakete. Guztiz familista den diskurtsoa gailentzen da etxeko zerbitzuetan ere, logika profesional batek bultzatu dezakeen ikuspegitik oso urrun.

Enplegatzaile eta etxeko langilearen arteko maitasuna, langilea mendean hartzeko estrategia kontziente zein inkontziente izaten da. "Familiako bat gehiago" dela sentiarazteak edo jarrera paternalistak ez dio uzten langileari bere tokia eta interesa objektiboki defendatzen, adibidez, lan baldintzak negoziatu ahal izateko edo bere iritzi propioa eman ahal izateko:

Los empleadores se aprovechan. Es muy dañino y perverso. Hay mujeres y también hombres, que han terminado enfermas porque han esperado algo de la familia. "Tu eres de la familia" mientras está trabajando, sirviendo, la invitan a comer etc. Pero morir se la persona y tratar de pagarle lo menos posible y "gracias, si te he visto no me acuerdo".

Justamente la relación afectiva no les permite gestionar la relación laboral. Por ahí terminan perdiendo el control. *Sdenka*

Lanak ez du inongo balorazio sozialik, eta legeetan ez ezik, etxeetan ere antzematen da. Neskametzan bezalaxe, lana ez da behar bezala arautzen, eta guztiz gutxietzia dago gure jendartean:

Están haciendo la vista gorda a este sector. Y es el que está sosteniendo la vida de muchas personas dependientes. Las trabajadoras del hogar se están ocupando de cuidar la vida pero sigue siendo el sector mas discriminado. Aún sabiendo en estos momentos, que ni siquiera los hijos han ido a visitarles que son ellas las que han estado ahí, sigue siendo el sector mas discriminado. El trabajo doméstico no es indigno. Indignas son las condiciones en las que se realiza este trabajo. *Sdenka*

Enplegatzailearen osasun arazoak direla-eta, maiz, langilearekiko tratatu txarrak izaten dira. Buru gaixotasunak dituzten pertsonen kasuan, oso zaila da langileentzat mespretxuak egunean-egunean jasatea:

Lo triste es que las personas empiezan a obsesionarse, muchos con el dinero: "que me han robado..." Y la familia en vez de ayudar, viene a entorpecer esa situación, desde el prejuicio de que la emigrante te ha robado.

Entonces, qué pasa? Que la emigrante que no tiene ni la formación ni la preparación para atender a una persona con demencia, termina afectándole a ella. El síndrome del emigrante, de las mujeres emigrantes, le han llamado a una enfermedad. Es un problema psicológico. He visto mujeres migradas en hospitales psiquiátricos, que han quedado traumadas por experiencia de llegada o por el trato que han recibido. *Sdenka*

#### 4.4.4. Lan baldintzak

Kontratua eta horren falta da, nagusiki, etxeko langileen informaltasuna sustatzen duena. Legeak baimentzen du ahozko hitzarmena, idatzizkoaz gainera, eta horren isla da kontratuen % 84,3 hitzezkoak direla. Hala ere, egoera aldatzen ari dela dirudi. Izan ere, etorkin egoiliarren kasu gehiago dago idatzizko kontratuarekin, baina adituek diote hori ez dela beti abantaila eraginkorra.

Halaber, migranteen kasuan, informalki lan egiteak bi aurpegi ditu: alde batetik, sektorearen informaltasun prototipikoa paperik gabekoentzako lan aukera bakarrerenetakoa bihurtzen da. Bestetik, informaltasun horrek euren egoera erregularizatzea oztopatzen du, lan errotzeagatik edo errotze sozialagatik. Paperak faktore erabakiorrak dira lan baldintzei begira, baita negoziatziorako elementu garrantzitsua ere.

Beste modu batera esanda, positiboa eta gomendagarria da idatzizko euskarri batean kontratatutako zerbitzuaren baldintzak jasotzea. Hala ere, errealitatean, langileak behartuta sentitzen dira enplegatzaileek jarritakoa sinatzera, eta sarri, sinatu ondoren, "hitzez" baldintzak gehitzen dira, lan gehiago eginez edo kontratuan jartzen duena baino baldintza okerragoak ezarriz. Horregatik, elkarteek idatzizko kontratua izatea gomen datzen dute, legeak agindu ez arren, gatazka kasuetan prozedura juridikoak erraztu ditzakeelako.

Etxeko langileen gutxiengoa ausartzen da enplegatzaileei idatzizko kontratu bat eskatzera. Aipatu behar da bereziki etorkin egoiliarren kasua dela zaugarriena: eurentzat idatzizko kontratu bat beharrezkoa da, euren egoera administratiboa erregulatzeko eta dokumentazioa lortzeko.

Lan jardunak eta kontratuaren iraupenak kontratua izatean eragiten du. Hala, denbora mugagabeen jardun osoan lan egiten duen beharginaren kasuan, errazagoa da idatzizko kontratua izatea. Aldiz, jardunaldi laburra goetan, gutxiagotan idazten da kontratua.

Gizarte Segurantzaren izena emateari dagokionez, 10etik 8 ez daude izena emanda. Izena emanda daudenen artean, gehienak langile egoiliarrek dira, izan ere, lan jardun osoan aritzen dira eta etxe bakarrean, beraz, enplegatzailea behartuta dago, legez, kotizazioaren kostua beregain hartzera, baina ez da beti gertatzen: egoiliarren, % 24,8k euren gain hartzen du kotizazioaren kostua.

Oro har, 2009tik kotizatzen dutenen kopuruak gora egin du. Datua baikorra da, nola etorkinetan hala bertan

jaiotakoen artean. Azken kolektibo horretan, jauzi nabarmena eman zen 2013an, % 45,7tik % 84,4 izateraino. Hala ere, 2017an, kotizatzen duten emakume etorkinen ehunekoa bertan jaiotakoena baino baxuagoa zen: % 81,3, bertan jaiotakoen % 85,1ekin alderatuta.

Era berean, altuagoa da izena emandako etorkinen kopurua bertan jaiotakoena baino. Horren arrazoiak Atzerritarrei buruzko Legean datza: izan ere, atzerritarrek idatzizko kontratu bat behar dute, eta Gizarte Segurantzaren izena eman dutenaren ziurtagiria, euren dokumentazioa egunera izateko.

Kotizatu beharreko zenbatekoa soldataren arabera da, soldata atalka banatzen da. Hala, 2019an, lan jardun osoan zeudenek 7. atalean egon beharko lukete; hots, 1.050 €-ko oinarriagatik kotizatzen (2019ko lanbidearteko gutxieneko soldata), hori kobratu edo ez. Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak salatu duenez, Gizarte Segurantzak, jardunbide ilegalez, ez zituen oinarriak berritu. Horrela, enplegatzaileek ordaindu beharreko kotizazio kostua ez zen igo, eta aurreko urteetako soldatari zego-kion kostua aplikatu zitzairen. Ondorioz, 2019an, milaka emakume jardun osoan lan eginda, 6. atalean kotizatu zuten, hots, 877 €-ko oinarriagatik, 1.050 €-ko oinarriagatik egin orde. Horrek ondorio zuzenak ditu langileen baliabideetan.

Beharrezkoa da langile kolektibo guztiei zein enplegatzaileei ulertaraztea etxeko zerbitzua lanbide bat dela eta dagokion aitortza behar duela, baita kotizatzeke betebeharra ere. Hala ere, Erregimen Bereziak kotizatzeke gutxieneko ordu kopuru bat ezartzen du, eta hori tranpa bat da. Ez du erregulazioa sustatzen eta beraz, gutxieneko hori desagerrarazi eta lan egiten den lehen ordutik kotizatzearen alde egin beharko litzateke:

Pues nosotras hemos peleado desde Elkarzabal el salario de 1304: con las pagas incluidas y este es el mejor de alrededor, de todos los demás pueblos... imagínate como está la gente. Porque obviamente la pelea ha sido dura, ya te digo, que no ha sido fácil: "venga Sdenka, que luego no vamos a tener trabajo!" me decían... La gente tiene que entender que no se puede esclavizar a la gente: si ellos quieren estabilidad tienen que pagarle mínimamente mejor, porque esa gente se va a quedar... Porque las mujeres que trabajan de lunes a viernes tienen que salir el fin de semana de todas maneras tienen una habitación. Solamente pagar una habitación con un salario de estos... es un salario de vergüenza, se debe pagar por el tiempo. Obviamente que va a encajarse el servicio pero es que es de verdad. Tiene que terminarse el trabajo de internas. *Sdenka*

CMTaren arabera, bertan jaiotako etxeko langileen artean, Gipuzkoan, 2009 eta 2017 bitartean, gora egin zuen 500 €-tik gora kobratzen zutenen kopuruak. Bertan jaiotakoekin zein etorkinen artean, erdiek baino gehiagok 500 eta 1000 € bitartean kobratzen dute. Etorkinen eta bertan jaiotakoekin arteko ezberdintasun nabarmena 1000 € eta 1500 € artean izan da 2017an: etorkinen % 8 dira, eta bertan jaiotakoekin % 20. Etorkinen artean 1500 euro arteko soldata izateak egoiliar izaerarekin lotura du, zerbitzua 24 ordukoa izatera iritsi baitaiteke:

El salario de una empleada por una hora no le alcanza para un zurito. Es para llorar. *Sdenka*

Sektorearen argazkia ez da batere baikorra: sektorearen batez besteko soldata, Euskadin, 2013an, 710 €tan zen, eta 2009tik beheranzko joera izan zuen (Nogueira eta Zalakain, 2015). Normalean, etxeko langilearen lanordua 10-11 €tan baloratzen dute adituek. Zentzu horretan, etxeko langileek batez beste 7,31 € kobratzen du orduko. Langileen artean, egoiliarrek dira okerren ordainduak, euren lanordua kanpoko langileek orduko irabazten dutenaren batez bestekoa baino 3,77 € gutxiago balio baititu. Gainera, etorkinek, batez beste, orduko 2 € gutxiago kobratzen dute; beraz, merkeagoa da etorkin bat kontratatzea, bertan jaiotako bat baino.

Lan egindako ordu kopurua eta soldata proportzionalak dira, baina kontrako noranzkoan. Bestela esanda, zenbat eta ordu gehiago lan egin hilean, orduan eta soldata baxuagoa jasotzen dute. Egoera, beraz, kaltegarria da egoiliarrentzat:

Desde Elkarzabal nos presentamos y les enseñamos las tablas salariales: 1300 € es el salario mínimo de lunes a viernes. Sábado y domingo libre. Pues la señora contesta: ella está viviendo aquí, no paga la habitación y la alimentación. ¿Señora? Esta mujer está pagando una habitación para tener sus cosas. La alimentación es el mínimo cuando está conviviendo con usted. Y encima no tiene días libres ni nada. Hay gente inclusive que tiene recursos y regatea. *Sdenka*

Ildo beretik, azpimarragarria da sektorearen baitan gehieneko eta gutxienekoekin arteko alde handia. Hau da, langile batek orduko 2 € irabazten dituen aldi berean, badira orduko 16 €-ko soldatak ere. Datuen arabera, aldi berean hainbat etxetan lan egiten duten langileek jasotzen dute soldata "justuena" (lan merkatuak ezarritako irizpideen arabera, 10-11 € ordua), eta hilean 1.200 € gainditzen dituen soldata dute, kasu batzuetan egoiliar baten hileko soldata hiru koitza.

Egoiliarren kasuan, askotan, soldataren zati bat kendu egiten da ostatu eta mantenuagatik. Elkarrekin salatu dute legeak ezartzen duen beste tranpa bat dela, ordu presentzialak igo egiten direlako eta soldata asko jeisten delako. Batez beste % 30 deskontatzen dela aipatzen dute elkarrekin. Gainera, langile askok salatu duten bezala, jaten eta edaten dutena kontrolatzen zaie:

En el tema de la alimentación: toca muchísimo a la gente migrante. Están acostumbradas a comer bien, porque la naturaleza nos regala tanto, no se pasa hambre... Todo es muy barato, se come bastante. Pero aquí? El hecho de que "cómo bebes tanta leche?"... la gente se cuida de una manera diferente. Cuando hablamos me dicen "yo también estoy aprendiendo a controlarme". *Sdenka*

Beste kezka bat aparteko ordainsariak dira. Horren harira, bi aipamen egin nahi ditugu: alde batetik, langileen gutxiengo batek, % 19,7k, jasotzen ditu aparteko ordainsariak eta normalean jardun osoan lan egiten dutenak izaten dira; bestetik, etxeko langileen legeak ezartzen du ordainsariak 15 egunetik behin izango direla, eta hori beste lan arau batzuekiko desabantaila bat da. Hala ere, 10 langiletik 3k euren ordainsari osoa jasotzen dute, eta hori, beste lan sektore batzuekin parekatzeko aurrerapauso bat da.

Hala ere, asko kostatzen zaio enplegatzaileari dagokion soldata ordaintzea, eta lanaren, ordu kopuruen eta dedikazioaren aitortza egitea. Izan ere, guztiz menpeko diren pertsonen zaintza oso zaila da familia askotan dauden enpleguekin bateratzen, eta laguntza behar den arren, laguntza hori ez da beste lan batzuen pare jartzen. Bizitzako esparruak kontziliatzeko zailtasunak etxeko langileekin konpontzen saiatzen diren arren, zaintza lan baldintzak ez dira duintzen. Eta hori erakunde publikoek duten ardura salatu izan dute maiz:

Lo que hacen las empleadas del hogar debería de asumirlo el sistema público. Toda la atención a la dependencia, la atención a la familia. Las trabajadoras de hogar sirven para que mujeres de familias vascas, de Oñati, puedan conciliar. La falta de políticas públicas lo que ha hecho es cargar sobre las trabajadoras del hogar. ¡Ese es el engranaje para que la conciliación exista! Es insostenible, económicamente, pagar dignamente a todas las empleadas de hogar existentes: sus salarios, cotizaciones... Es demasiado caro, por eso no quieren asumirlo desde las instituciones públicas. Les conviene mantener así. *Sdenka*



Behin eta berriz aipatu dugu, baina egoera larrienak egoera irregularrean dauden emakume etorkinek eta egoiliarrek bizi dituzte. Gainerakoentzat, desgaste fisikoa eta psikologikoa nabarmena da eta jardueren gainkargarekin eta presioarekin lotuta dago, baita soldata baxuagatik, etxe batean baino gehiagotan zerbitzua emateagatik eta babes sozial eskasagatik ere.

Y yo aquí, en Elkarzabal he luchado, especialmente, con las mujeres jóvenes, son chicas que por hambre... entran en cosas. Montones hay: mira, estando en Oñati, me llamó una mujer de al lado de mi pueblo, que a raíz de mi hermana me llamó, que estaba trabajando en Ibiza, con una mujer millonaria: una casa muy cerrada. Hacia medio año en Ibiza y medio año en Madrid. Ella sola allí, y la señora con un problema de alzheimer. Estaba loca... Tenia ansiedad y problemas de alimentación. Nunca olvidaré la noche que pasé hablando por teléfono con ella: estaba desorientada y la veía capaz de cualquier cosa... Esa mujer me partió. *Sdenka*

Espainiako estatuan lan gutxik adierazi dute zainzaile gisa lan egiten duten emakume etorkinen bizi kalitatea enpirikoki. Espainiako Estatistika Institutuaren Desgaitasun, Mendekotasun eta Osasun Egoerari buruzko Inkestan, 401 kasuko laginetik abiatuta, % 41ek adierazten zuen eragin negatiboren bat zuela zaintza lanen ondorioz; horien artean hauek nabarmentzen ziren: nekea (kasuen % 19,8), depresio sintomak (% 10,2) eta osasunaren narriadura (% 9,6) (Rodríguez et al., 2012 in Zalakain eta Nogeira, 2015).

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak honako hau xedatzen du: «etxeke zerbitzuen titularrak nahitaez bermatu behar du bere langileen lana segurtasun eta higiene baldintza egokietan egiten dela». Era berean, etxeke zerbitzuaren lan harremana arautzen duen 1620/2011 Errege Dekretuaren arabera, «enplegatuak etxeke enplegatuaren lana osasun eta segurtasun baldintza egokietan egingo dela bermatu behar du, eta, horretarako, beharrezko neurriak ezarriko ditu, etxeke lanaren ezaugarri espezifikoak kontuan hartuz». Hala ere, kontuan izan behar da laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak 3.4 artikuluan jasotzen duela etxeke zerbitzuaren lan harreman legea ez dela aplikatuko, eta babes gabe uzten ditu langileak.

EAEn, OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea da lan arriskuen prebentzioaz arduratzen dena. 2019ra bitarte ez du inolako prebentzio lanik egin etxeke zerbitzuen kasuan, eta iaz gida bat atera zuten: "Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen bidez lortu nahi zen ezarpen-maila oraindik urrun dago:

besteren kontura lan egiten duten langileek prebentzio eredu bat dute gaur egun, eta gizarte eragileak badaude kontzientziatuta lan arriskuen prebentzioaren garrantziaz; baina, era berean, eredu maila ezberdinetan ezarri da, eta kolektibo batzuk ez daude sartuta Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak emandako babesean. Horri dagokionez, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak behar diren bitartekoak jartzeko konpromisoa hartu du lan arriskuen prebentzioa langile guztiei aplikatzeko, inolako mugarik gabe. Langileen kolektibo bat ere ez dago OSALANetik kanpo" dio gidaren hitzaurreak.

Nahiz eta etxeke langileen elkarrekin ez duten atsegin handiz jaso gida, ez delako lanaren ezaugarrietara egokitzen, aurrerapauso bat izan daiteke etxeke langileen osasunari buruz hitz egin, ikertu eta neurriak hartzen hasteko.

Ezin aipatu gabe utzi COVID-19ak eragindako krisiak kolektiboan izan duen eragina.

De alguna manera digamos, han sido las trabajadoras del hogar incluidas como la excepción para la realización de las actividades económicas, y excluidas de las medidas de protección social. Si... La actual crisis sanitaria ha descubierto la desigualdad, la injusticia, la vulnerabilidad de los derechos de las trabajadoras del hogar, que sigue siendo el sector más vulnerable. Y siguen trabajando aunque presenten un riesgo para su salud, porque sino no cobramos. Este es el sector más golpeado, inclusive con la emergencia sanitaria y todo, es que es increíble.

Aquí, por ejemplo, se ha dado una situación de una mujer que cuidó a una persona mayor durante 14 años, que la dejó en la calle, sin derechos al desempleo, sin indemnización, sin subsidio; Ella no tiene pensión de jubilación, no cobra por desempleo... Esta historia es la historia de muchas mujeres migrantes. Y no solo mujeres, hombres también que conozco: un compañero colombiano ha estado trabajando más de 12 años y lo han despedido. "te puedes quedar hasta que consigas una casa, que no se que, que no se cuantos". Ha trabajado 12 años y no ha tenido ni indemnización, ni nada!. Si, muchas gracias...pero después? Es increíble. *Sdenka*

Horregatik, haien arteko ahalduntze prozesuak bultzatzea eta antolatzea da aurretik aipatu diren bidegabekeria guztiak iraultzeko tresna. Etxeko eta zaintzako langileek ez dute erreferentziako marko kolektiborik, eta

horrek euren negoziatzeko eta artikulatzeko gaitasuna murrizten du. Hala ere, Oñatin bezala, gero eta herri gehiagotan daude elkarteak, eta horiei esker Euskal Herriko Mugimendu Feministan zein bestelakoetan areagotzen ari dira etxeko langileei buruzko gogoetak, eta ugaritzen etxeko zerbitzuei lotutako aldarrikapenak.

Yo creo que es hora de dignificar el empleo doméstico, así como la valoración social de este trabajo. Y creo que es desde el Ayuntamiento donde vamos a conseguir cosas, por eso es importante el Consejo de Mujeres, por eso es importante organizarnos, para estar allí representantes de organizaciones como Elkarzabal. *Sdenka*

Laburbilduz, etxeko langileen egoera ez da azken hamarkadetan gehiegi aldatu. Espainiako estatuan araudiak pixka bat hobera egin duen arren, oinarrizko aldataririk ez da izan, eta erregimen berezian eta egoera guztiz prekarioan jarraitzen dute etxeko zerbitzuetako langileek. Ikusezin eta axolagabe jarraitzen duen eremua da, nahiz eta azken urteetan, pixkanaka, geroz eta berri gehiago dugun. XXI. mendean, gainera, migrazio prozesuek guztiz zeharkatu dute eremua, zaugarritasuna areagotuz. Ahalduntzeak, antolakuntzak eta guztion aldarriak soilik hobetuko dute egoera, zaharrak berri izan ez daitezen.



Andrés Arlanzón argazki funtsa - Oñatiko Udal Artxibo Zerbitzua

Arl005499.

## 5. ONDORIOAK

Zaintza lanen Oñatiko genealogia feminista egiten hasi aurretik bagenituen hainbat susmo, teoria zein praktika feministek garaian-garaian zaintza lanen atzean dauden korapiloak azaleratzen lan handia egin dutelako. Susmoei bizitzak, gorputzak, hitzak eta bizipenak jarri dizkiegu lan honetan.

Zaintza lanek ikusezin, feminizatu, aitortzarik gabe eta migrazio prozesu bidegabeei lotuta jarraitzen dute, sistema patriarkal, kapitalista, arrazista eta kolonialaren baitan. Lan produktiboaren eremutik kanpo kokatu izan dira eta prestigiorik gabekoak, kualifikatu gabeak eta gaizki ordainduak izaten jarraitzen dute. Haien ardua pribatutzat hartzen da; familiak dira zaintza lanak hornitzen dituztenak, eta familia diogunean, emakumez ari gara. Ondorioz, ez dira eskubide sozial zein politikotzat hartzen, eta ardua kolektibotik kanpo kokatzen dira.

Gainera, zaintza lanez arduratzen direnek pobrezia edo bazterkeria pairatzeko askoz aukera gehiago izan dute. Enplegu hori dutenek, besteak beste, prekaritatea, soldata eskasak, malgutasunez mozorrotutako prestasun osoa eta araudi diskriminatzaileak pairatzen dituzte. Baina familian soldatarik gabe zaintzen duten emakumeek ere ez dute egoera hobirik; atsedenerako, norberaren zaintzarako edota aisialdirako denborarik ez dute eta lan merkatuan zein ondorengo pentsioetan sekulako zigorrak pairatzen dituzte. Lan ordainduan ordu gutxiago egitera behartuta ikusten dute euren burua: *niri dagokit, nork nik baino hobeto?...* Horrek soldatetan, promozioan, eta, azken batean, enpleguaren zein bizitzaren kalitatean eragina du. Hori gutxi ez eta gaztaro-ko erabakiek zahartzaroa baldintzatzen dutela argi ikusi dugu pentsionisten borrokarekin.

Lehen atalean azaldu dugu industrializazio prozesuak etxearen ideologia aldatu zuela; alegia, etxe lanen zentzua feminizatu zuen. Etxebizitzek, kontsumoak, aldaketa demografikoak, zerbitzuen garapenak, garbitasunaren eta denboraren nozio aldaketak eta, nola ez, gizon eta emakumeen arteko botere harremanek aldatu zuten zaintza ulertzeko era, familia nahiz feminitatea eta maskulinitatea ulertzeko moduak barne. Horrela, XIX. mendetik aurrera, haurrei balio sozial handiagoa egotzi zitzaie, hortaz, haien zaintza lanetara bideratutako denbora, orohar, hazi egin zen. Amatasuna kontzienteago hartzen zen erabakia zen, eta izaten zen haur bakoitzak geroz eta balio emozionalagoa zuen. Haurren, gaixoen, zaharren eta gizonen zaintza emakumeen esku gelditu zen, eta zaintza lanek etxe lanen zentralitate osoa hartu zuten. Ama zen naturalki beste guztien zaintzaz arduratu behar zuena, eta lan horiek externalizatzea geroz eta modu negatiboagoan baloratzen hasi zen. Klase ikuspegitik, hala ere, neskameak eta haurtzainak ziren estatus sozial altuko klaseen artean externalizazio estrategia nagusia: estatusaren erakusle ez ezik, etxeoandreairen eta emakume langilearen arteko ezberdintasun klasistaren eta arrazistaren isla ere bazen.

Industrializazioarekin eremu pribatuaren eta publikoaren arteko banaketa zurruna ezarri zen. Emakumeak arlo pribatuarekin, emozioekin eta naturarekin lotu ziren; gizonak, aldiz, arlo publikoarekin, arrazoiarekin eta eskubideekin. Eremu biak eta euren funtzio, lan eta gaitasunak era hierarkikoan ezarri ziren. Ondorioz, azken hamarkada luzeetan, eskubideak, betebeharrak, espazioak, denborak eta funtzioak ezberdin banatu dira, gizonak guztiz pribilegiatuz.

Gainera, gizarte industrialak bultzatu zuen gaur egun, oraindik ere, erabiltzen dugun lanaren kontzeptzioa. Sexuaren araberako lan banaketa inposatu zen. Familiaren ulerkera aldatu zen, familia zabal eta belanaldi artekoa murriztu, eta familia nuklear deritzoguna nagusitu zen. Amatasun eredia ere aldatu egin zen: amatasun kontzientea, hots, erabateko dedikazioa zuen haurtzaintza indarra hartzen joan zen. Emakumeak ziren “etxeko aingeruak” eta berek arduratu behar zuten etxeko eta zaintza lanaz. Lan horiek gutxinaka lan izaera galdu zuten eta maitasunarekin lotzen hasi ziren. Lan horien dimentsio emozionala, hortaz, ezin zen delegatu.

Zaintza lana, hortaz, askotariko dimentsioak barne hartzen joan da, eta, gaur egun, lanarekin, afektuekin, arduarekin, genero sistemarekin edota familia ereduarekin lotzen da. Gainera, eremu pribatuaz gain, estatuaren eta merkatuaren eginkizuna ezinbesteko bilakatu da, eta hiruko horretan sortzen diren harreman zein arduarekin osatzen dute Zaintzaren Erregimena. Berau familiar oinarrituta eraiki da Oñatin. Bertan topatzen ditugu egokitzen hartzen ditugun zaintzak, eta familia da kide guztiei oinarrituko zaintzak bermatu behar dizkion instituzio nagusia. Horregatik deritzogu familista Euskal Herrian gailendu den zaintza antolaketari. Eredu horrek emakumeei egozten die zeregin nagusia.

Alabaina, zaintza lanen antolaketa aldatzen joan da urteotan. Antzeko oinarriak eta prestigio sozial eskasiz jarraitzen duen arren, ikerketa lanean ikusi dugun bezala, garai bakoitzean berezitasunak izan ditu. 1950eko hamarkadan, zaintza lanen ardura etxekoandreena zen eta horien externalizazioa neskametzan oinarritu zen. Familiari lotutako figura zen, haien erabateko zerbitzura egon behar zuten eta jarrera oso paternalistatik eraikia izan zen.

70eko hamarkadaz geroztik gertatu ziren landa eremuko irteera eta urbanizazio prozesuak Oñatin. Mugimendu feministaren sorrerak, aldaketa politiko eta ekonomikoek zein jendartearen modernizazio prozesuak eraginda, bertako emakumeen aukerak areagotu egin ziren industrian eta zerbitzuetan. Horren ondorioz, zaintza lanak etxetik kanpokoek egitea sustatu zen. Hori horrela, esan daiteke, industria sare indartsua egon zen herrietan, Oñatin adibidez, etxeko langile eta zaintzaile kopurua nabarmenagoa izan zela. Era berean, industriaren eta zaintza lanaren arteko mailaketa izan zen, lehenengoa balioetsiz. Hala, bigarren lan hori, aukera gutxiagoko emakumeek egin zuten.

XX. mendeko azken hamarkadetan, emakumeen iruditeria aldatzen joan zen, eta emakume langile hiritarra

hasiko da gailentzen. Horrekin batera, etxeko langileak agertuko dira, etxeko zein zaintza zerbitzuak era profesionalagoan egingo dituztenak, eta erabateko zerbitzuaren ideia horretatik aldentzen hasiko dira.

Hala ere, XXI. mendean sortu diren zaintza beharrek bultzatuta, eta administrazio publikoak horiek betetzeko erakutsi dituen ezintasunak tarteko, zaintza lanak bermatzeko bidean, arrazializatutako eta migratutako emakumeen kontratazioa nagusitu da. Etxeko langile horien kasua neoesklabotzarekin parekatu da berriz ere, familiaren erabateko zerbitzua delako gehien baloratzen dena, haien lanaren gutxiespen etengabearekin batera.

Ikerketa lanean argi gelditu den bezala, neskameak eta etxeko langileak, biak hala biak, migratu duten emakume pobreak izan dira. Klaseak, arrazak edota migrazio estatusak zaintza lanak gurutzatzen dituzte eta, nahiz eta emakume guztien eginkizuna izan, aukeratzeko ahalmenik izan ez dutenen esku gelditu dira zaintza lan astunenak. Hala, feminismo dekolonialak egindako kritika ezinbesteko bilakatu da: generoak soilik hitz egiten du gizon zuri eskubidedun eta bere bikotekide emakume erreproduktorearen arteko harremanaz. Klaseak eta arrazak ere zeharkatu ditu emakume zaintzaileak, eta horiek gabe ezin da ulertu haien bizi historia.

XX. mendean zaindu duten emakumeak langile klasekoak izan dira. Klase ertain eta altukoek negoziatu ahal izan dute etxekotasun “zikin eta neketsuaren” eta “emetasun natural espiritualaren artean”. Hala, askok uko egin izan diete zaintza lan batzuei, eta emakume pobregoen esku utzi. Horrela sustatu ziren emakumeen arteko ezberdintasunak eta sortu zen neskametz edo etxeko langileen zerbitzua.

Gaur egun, herrialde txiroetatik Euskal Herrira etorri diren emakume txiroek dute zaintza lanen zamarik handiena eta lan prekarioena gurean. Hala azaltzen du feminismo zuriaren logika koloniala Yuderky Espinosa Miñosok: “Azken batean, feminismoarentzat emakume askea zer den ikusten dugunean, emakume hori bere garaiko emakumea da, modernitatekoa, hezkuntzarako sarbidea duena, profesionalizatzen dena... Oso modu lau eta sinplean esateko, familiarik, beraz, amatasunetik eta zaintzetatik askatzen den emakumea. Mundu globalaren parte den emakumea, kapitalismoak sortutako ondasunetara sarbidea duena. Eta horrek esan nahi du, jakina, nahiz eta ez dagoen hain argi, horri buruzko galderarik ez dagoelako, azpian ustiapen bat dagoela. Hori guztia zenbait izakiren esplotazioan oinarritzen da, munduko herri kondenatuetatik eta naturatik datozen emakume eta gizon gehienaren esplotazioan”.

Hitz gutxitan, feminismoarentzat lurra ereiten duen emakumea ez da inoiz emakume askearen erreferente izango. Seme-alabak izan eta seme-alabak hazi nahi dituela erabakitzen duen emakumea ez da askatutako emakumea” (Espinosa, 2019).

Hala, zaintza lanak askotan maitasunarekin lotu arren, ezaugarri hori ez dago beti presente eta, aipatu bezala, zapalkuntzak zein diskriminazioak, botere harremanak edota abusuak sortzen dira. Zer esanik ez menpekotasuna agerikoa eta areagotua denean, alegia, bizi beharrrak kudeatzeko autonomiarik ez dagoenean, edo oso mugatua denean. Horren adibidea da hazkuntza prozesua eta ama bilakatzea. Amatasuna tentsio anitzak pilatzen dituen mataza da, eta mugimendu feministak askatzeko ahaleginean dihardu. Amatasun patriarkal eta erromantikoa desegiteko, egia kontatu dute lehen-go eta oraingo amek. Egia osoa, euren egia. Haurdunalditik hasi eta hazkuntza prozesuko negoziatio sozial eta ekonomikoak zer nolakoak ziren eta diren deskribatu dugu. Halaber, edo desiraz gaur egun ama diren emakumeek epaiketa soziala pairatzen dute, eta salatzen dute hazkuntza ez litzatekeela zerbait pribatua izan behar, jendarte osoari dagokion zeregin bat baizik.

Zeren, aitor dezagun zaintzea ez dela beti atsegina. Era berean, zaintzak atseginak izan daitezke, baina gehiegizko dedikazioarekin egiten direnean edota baldintza tamalgarrietan egiten direnean, zaintzaileen bizi eta lan baldintzak eta ongizatea oztopatzen dituzte, eta giza eskubideak kolokan jarri. Horregatik, uste dugu zaintza lanak, erromantiko eta esentzial bihurtu behar, er-

gatazka eremu gisatzat hartu behar ditugula; izan ere, horrek aldatetarako palankak aktibatzen ditu.


Diskriminaziorako esparru ez ezik, erresistentziarako gune ere izan dira zaintza lanak, etxetik atera eta mundu berriak ezagutzeko, beste emakume batzuekin sa-reak ehuntzeko, elkartasuna areagotzeko, antolatzeko eta feminismoa ezagutzeko, babes sentitzeko, amatasunaren bakardadeari aurre egiteko... Zaintza lanetan jardun dutenak otzan nahi izan ditu sistemak, baina desobedientziaren bidea dastatzeko grina zuten emakumeekin egin du topo. Horrela, kapitalaren metaketak behar duen eremu pribatu harmoniatsuak eztanda egin du; gatazka lehertu da han-hemenka. Eta hori da zaintzen demokratizaziorantz igarotzeko hasteko hazia.

Ezinbestean begiratu behar diogu bizitza zaintzeko lanaren antolaketari; hots, zaintza lanen atzean dauden harreman sozial, ekonomiko, instituzional eta sinbolikoak demokratizazio prozesuan jarri behar ditugu. Zaintzek kalitatezkoak eta unibertsalak behar dute izan, alde batera utzi gabe bizi esperientzia bakoitzetik erator daitezkeen bereizgarritasunak. Gainera, izaera kolektiboa atxiki behar diegu, zaindua izateko eskubidea ez baita eskubide indibiduala; izan ere, denok izan beharko genuke geure burua zein besteena zaintzeko betebeharra. Oñatin bizitza duina bermatzeko behar dugu zaintza, eta horretarako gu guztion konpromisoa ezinbestekoa da. Lekukotasun hauek aintzat hartu eta norberaren etxetik hasita, etorkizuneko zaintzaileen patua aldatzera goaz.



## 6. ERRESISTENTZIAREN LORATEGIA

Malen Ugarte Irizar



---

## MEMORIA GARA

Modu batera ala bestera, gure aurrekoek eta inguru batek arrastoa uzten digute.

Bidean atzera egin nahi duenak iparrorratza erabiltzen ikasi behar du, edota zaurian hazka egiten ausartu.

Gura duenak kontzienteki edo inkontzienteki jarraituko du kontaduria berriak asmatzen edota notaritza lanak egiten.

Orain, guri dagokigu esna eta adi egotea.  
Memoria gara, azalean daramagu.



---

## GASTATU

– Ez dakit zer daukadan nik kontatzeko zuei:

*dagoeneko gastatu zait niri dena.*

Ai, zuen itzala!

nork esango zidan

horrenbeste kontu

ezkuta zitzakeela!



---

## IMAJINAZIOA

Ez zintuztedan sekula ez antxintxika ez eta gazteago irudikatu  
zuek kontatu zenidaten arte.

Ez zintuztedan sekula ganadu artean imajinatu

asto gainean

arbia jasotzen

basoan zerrarekin lanean

itaurrean egiten

gaiztakerietan

zigarroak erretzen

bizikleta gainean

tren zaindari

soldaduei adarra jotzen

guardia zibilei ezinenak ipintzen

kartzelan zeuden herritarrak laguntzen

plazako arkupeak garbitzen

umetan jostari

umoretsu, jakintsu

Hau adinaren krudelkeria: gure emakumeak

bestela irudikatzearen imajinazio faltarena.



---

## ESKOLA

Ez ziren eskolara denbora askoan joanak izango, baina guk bizitzan ikasi duguna baino eskola handiagorekin joan dira. Guk sekula ez dugu haien bizitza-eskola jasotzeko aukerarik izango. Edo bai.

- Ai ....

- Zer, amama?

- Zer? Guk bizitza gora egiten ikusi dugun moduan, zuek behera egiten ikusiko duzuela!

- ....



---

## POBLEMAK

Eskolan hamahiru urte bete arte egon nintzen

Poblemak ondo egiten ikasi arte.

Poblemak, badakizu zer diren, ezta?

Bi problema mota daude bizitzan

Sumar, restar, dividir eta problemas

Eso es los 4 problemas

¡Problemas hay un montón!

Eso son problemas.

Problemas izena zuen

Guk esaten dugu: Ene! Hark du problema harek..

Bada hori ere hala da

Bizitzako poblemak dira

Ni poblemak ondo egiten ikasi arte egon nintzen eskolan.



---

## BEGIEN MAITEMINTZEA

**Ahizpak galdetu zien behin aitona-amonei:  
“Eta zuek nola ezagutu zineten?”**

Urrunetik ikusi zuten elkar

Eder eta koloredun

Mingain bizkor

Lotsati beregana, erromerian hurbildu, hego bizkor

Begi handi, begi zabal

Begiekin hiztun

Begiak etxeratzean ziren

apaldu, isildu

urtetan iraungo zuten

lanak jota

entretentuta, gristuta

Itzaliko zinen

mintzoa gordez

eta begirada galduta.



---

## EUSLE ALAIAK

Etxeko lanei gorrotoa izatea?  
gehiago ala gutxiago gustatzea bai  
baina nola dakizun, egiten ez baduzu, egiteko dagoela

ez da sartzen gorrotoan  
sartzen da beharrean  
goizetik hasi eta ilunkarara  
etxeko beharrak egiten

Kalezalea?

Ez naiz ni izan  
ezkondu nintzenetik are gutxiago  
ez dut izan beharleku hori  
akaso ez dudalako ezagutu besterik  
eta konformatu naizelako nirearekin

Konformatu naiz nirearekin

Gero senarra ere halabeharrean ona tokatu zitzaidan

“por suerte”

Bada, zer esango dut bada!



---

## HERRIEK EZKUTATZEN DUTENA

Bada zerbait herriek gordetzen dutena,  
herriko paretek ezkututzen dutena  
etxeetan gelditzen dena

Herria da poza, ilusioa, desira  
Herria da gaztelu, dorre, plaza dotore  
unibertsitate  
fraile, jaun eta abade  
gure inteligentziak, nola idatzi du?

Herrian artxibatzen dira gertatutakoak  
herrian gelditzen dira esandakoak  
izan zirenak  
eta orain gaudenak

Bada zerbait herriek gordetzen dutena,  
transmisioaren fenomenoarena  
herriko paretek ezkututzen dutena  
emakumeek beraientzat gorde  
eta isildua izan dena.

Gizakiok garatzen dugun lehen zentzumena ei da entzumena,  
hiltzerakoan galtzen dugun azkena.

Kuriosoa entzutearen funtzioarena, baita jaso eta zabaltzearena.



---

## DAMUA

Ezer damutu ez bazait bizi honetan  
kriada egotea izan da  
Baina orduan ez ziren denak berdinak  
*“el señorito y la señorita,  
halakoak egon, egon zitunan”*  
guk halakorik ez genuen izan.



---

## MIRA

“Gizarteak guregan begirada jarri izan balu, mira handiagoa izango ligukete”

Ez digute esaten  
zer gorde eta zer ahaztu  
nola utzi gure burua memoriaren esku

Ez digute erakusten  
zergatik garen garen modukoak  
nola irakurri izan zirenak  
joandakoak

Ez digute esaten  
kontakizuneko zuloak  
direla irabazleen lorpenak

Ez digute esaten  
nolakoak izan orain  
zer izan bihar  
ez gaituzte erortzeko prestatzen

Ez digute erakusten  
nola eutsi bizitzari  
zauriak nola osatu.



---

## GERTATZEN ARI DA

Zer gertatzen ari da gure balioekin?

Gure eguneroko politikekin? Ekonomiarekin?

Bizitzeko moduarekin?

Trantsizio garaian gaude

herrian bizi gara

baina herritarrak eta herriak ez gaitu ezagutzen

ba al dakigu nora goazen?

Distantzia fisikotik aldendu gara

mundua elkarlotuago dago

Denok antzera pentsatzen dugu

nora ezeko egoera honetan

nire oinarria non dago?



---

## EGOTETIK

Egiteko moduak aldatu dira  
begiratzeko moduak lausotu  
hezteko bideak azeleratu

Jolasten ahaztu zaigu  
komunitarioa instituzionalizatu dugu  
erregistroak formaldu  
hiztegiak murriztu  
homogeneizatu

Egoten jakitetik  
egitera pasatu gara

Badirudi iraganeko historia  
-gure komenientziara-  
zaharberritu dugula



**NIREEI:**

---

**ITZALA**

Sukaldeko zure txokotik kanpora begira zaude  
egongelatik espiatzen zaitut

Hainbeste urtetan zaindutako soroa, loreak eta ortua  
utzita daude orain, utzita zaude orain

Zeure burua ordenatzen ere dagoeneko ez duzu asmatzen  
auskalo zenbat kontu -on eta latz- gordeko zenituen zuretzat  
isilduko zenituen etxeoentzat

Irribarretsu begiratzen diguzu, begiradak esaten digu nola zauden  
lehengusuak dio zure begiradak dioskula noiz zauden eta ez zauden

Kanpora ezin aterata  
sasoian sasoiko uzta ezin jaso  
udako egunak luze

Besteei eta besteentzako inbertitu duzu bizitza  
babesik gabe, indartsu, gogor

Hemen gaude  
zer esan jakin gabe  
errazagoa da sarri bizitza  
soilik irribarre egiten dugunean.

---

## KOITADUAK

**Denok zahartzarora heldu nahi, heldu  
nahi, eta heltzean, orduan komeriak!**

90 urte egitera zindoazen  
lehengusu-lehengusina denak zure altzora  
hurbildu eta begira jarri ginenean.

- Amama, aurki 90 urte!
- Ai koitaduak, zuek ailegatuko ote zarete.



---

## BIHAR

Zoro-haizea dabil atean,  
txoriak isilik kalean  
bihotza hegaran joatean  
bidaiatzen dut zuen aterpera

Bi hanka nagi  
gazte zoro nabil  
zuen altzoak ahazturik  
erortzeko beldurra zait ageri

Mamua noiz etorriko zain  
orain, bihar, etzi  
noiz egingo didan gain  
izua sartzen zait sarri

Zoro-haizea dabil atean  
txoriak isilik kalean  
bihar arte utzi barik  
zapatak jantzi  
eta banoa kalean behera  
zuen kontuak entzutera!



## 7. BIBLIOGRAFIA

- Abasolo, O. (2010). "Diálogo: Mari Luz Esteban e Isabel Otxoa". CIP-Ecosocial – Boletín ECOS, 10 zk., 2010eko urtarrila-martxoa, 1-9.
- Álvarez, Z. (2019/10/24). "Mujer racializada e Inmigrante. Una forma de exclusión en España". *SOS racismo Galicia*. Eskuragarri hemen: <https://www.sosracismogalicia.org/articulo-mujer-racializada-e-inmigrante-una-forma-de-exclusion-en-espana/?lang=es>.
- Amorós, C. (1994). "Espacio público, espacio privado y definiciones ideológicas de "lo masculino" y "lo femenino". In *Feminismo, igualdad y diferencia*. 193-214.
- Amuriza, M. (2019). *Basa*. Elkar.
- Anderson, B. (2000). *Doing the dirty work? The global politics of domestic labour*. Zed Books, New York.
- Apalategi Begiristain, J.M. (1981). "Introducción a la historia crítica de la producción oral vasca" *Ethnica* n° 17. Bartzelona.
- \_\_\_\_\_ (1982). *Introducción a la historia crítica a través de los "kontu-zaharrak" (cuentos viejos) de la localidad guipuzcoana de Ataun*. (Lizentziaturarako tesina). Donostia: UPV/EHU.
- \_\_\_\_\_ (1988). *Antropología berria. Ahozko herri produkzioa. Ataungo herria, pertsonataldeak eta pertsonak*. Donostia: EHAE.
- Arbaiza Villalonga, M. (2010). "Economía en tiempos de post-metafísica: una perspectiva feminista". In Perez-Fuentes, Pilar (arg.), *Subjetividad, cultura material y género. Diálogos con la historiografía italiana*, 239-277. Bartzelona: Icaria.
- Aresti, N. (2000). *El ángel del hogar y sus demonios. Ciencia, religión y género en la España del siglo XIX*. Historia Contemporánea, 21, 363-394.
- \_\_\_\_\_ (2001). *Médicos, Donjuanes y Mujeres Modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: UPV/EHU.
- Apezetxea, M eta Ozaita, M. (2014). *Ilunpetik argitara. Hernaniko emakume langileak iruditzen (1939-1975)*. Hernani: Hernaniko Udala.
- Arrazola, J. eta Garai, I. (2019). *Oñatiko emakumiak errekadutan. XX. mendeko komertzio txikiaren genealogía feminista bat*. Oñati: Oñatiko Udala.
- Astigarraga, L. (1992). *Estudio sociológico sobre las mujeres de Oñati*. Oñatiko Udala.
- Barandiaran, J. (1924). "Nacimiento y expansión de los fenómenos sociales (Ataungo Sangregoriori buruzko ikerlana)". *Anuario de Eusko-Folklore*, 4, 153-229. Gasteiz: Eusko-Ikaskuntza.
- \_\_\_\_\_ (1973). "2. argitalpena" (Izenbururik gabea). In *Obras completas*, 3, 119-195. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Beauvoir, S. (1949). *El segundo sexo*. Buenos Aires: Siglo Veinte.
- Bolufer, M. (2013). "Ciencia y moral en los orígenes de la maternidad totalizante". *Métode: Revista de difusión de la Investigación*, 76, 71-75.
- Borderías, C. (1993). *Trabajo e identidad femenina en la España contemporánea*. La Compañía Telefónica 1924-1980.

- Bartzelona: Icaria.
- \_\_\_\_\_ (1993a). "Emigración y trayectorias sociales femeninas". *Historia Social*, nº 17, pp.75-94.
- Busquets Gallego, M. (2020). "Maternidades feministas: pensamientos y debates fecundos". In Pikara Magazine. *Feminismos. Miradas desde la diversidad*. Madril: Oberon.
- Bussy Genevois, D. "Mujeres de España de la República al Franquismo". In Georges Duby (zuz.), Michelle Perrot (zuz.), *Historia de las mujeres en Occidente*. 5. lib., 1993 (*El siglo XX* / Françoise Thébaud (zuz.)), 203-222.
- Cañero, J. (2020/12/09). "La violencia contra las madres es violencia machista". *Pikara Magazine*. Eskuragarri hemen: <https://www.pikaramagazine.com/2020/12/la-violencia-contra-las-madres-es-violencia-machista/>
- Carrasco, C. (2001). "Sostenibilidad de la vida humana: ¿Un asunto de mujeres?", *Mientras Tanto*, 82. zk., udazkenanegua, Bartzelona: Icaria Editorial.
- Carrasco, C.; Borderías, C.; Torns, T. (2011). *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Madril: Catarata.
- Martín Casares, A. (2006). *Antropología del género. culturas, mitos y estereotipos sexuales*. Madril: Cátedra.
- Curiel, O. (2014). "Construyendo metodologías feministas desde el feminismo decolonial". In Irantzu Mendia Azkue et al. (arg.). *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. UPV/EHU: Hegoa y Simref, 45-60.
- De Miguel, A. (2000). "Los feminismos". In Amorós, C. (koord.), *10 palabras claves de feminismo*. Iruñea: Verbo Divino.
- De Dios Fernández, E. "Domesticidad y familia: ambigüedad y contradicción en los modelos de feminidad en el franquismo". In *Feminismo/s* 23, 2014ko ekaina, 23-46.
- Del Valle, T. (koord.) (1985). *Mujer Vasca. Imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos.
- Duby, G. eta Perrot, M. (1993). *Historia de las mujeres*. Madril: Taurus (5. liburukia).
- Emagin (2020). *Beterri Buruntzaldeko zaintza erregimenaren diagnostikoa eta ekintzarako proposamena*.
- Epelde, E., Aranguren, M., Retolaza, I. (2015) *Gure geneal-  
gia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*. Emagin, Iruñea.
- Esteban, ML. (2013). *Amaren heriotzak libreago egin ninduen*. Pamiela.
- Espinosa Miñoso, Y. (2016). "De por qué es necesario un feminismo descolonial: diferenciación, dominación co-constitutiva de la modernidad occidental y el fin de la política de identidad". *Solar*, 12, 12(1) lib., Lima, 141-171.
- Euskal Herriko Bilgune Feminista. "2019ko maiatzak 1. kapitala arrakalatu, zaintza lanak birbanatu!". Eskuragarri hemen: [http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab\\_1/2019/05/1556809091-2019%20Maiatzak%201.pdf](http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2019/05/1556809091-2019%20Maiatzak%201.pdf)
- Ezquerria, S. eta Mansilla, E. (2017). *Economía de los cuidados y política municipal: hacia una democratización de los cuidados en la ciudad de Barcelona*. Bartzelona: Bartzelonako Udala.
- Federici, S. (2013). *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*. Madril: Traficantes de Sueños.
- Friedan, B. (1963) [2009]. *Mística de la feminidad*. Ediciones Cátedra. Universitat de Valencia. Valentzia: Instituto de la Mujer.
- Garmendia, J. (2018/6/24). "Zaintzaren krisia eta ekonomia feminista". *Gara*. Eskuragarri hemen: [https://www.google.com/url?q=https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-06-24/hemeroteca\\_articles/zaintzaren-krisia-eta-ekonomia-feminista&sa=D&ust=1579253972488000&usq=AFQjCNGO3V\\_S8m\\_CI4-dog56vpts5ZsROVw](https://www.google.com/url?q=https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2018-06-24/hemeroteca_articles/zaintzaren-krisia-eta-ekonomia-feminista&sa=D&ust=1579253972488000&usq=AFQjCNGO3V_S8m_CI4-dog56vpts5ZsROVw)
- Goikoetxea, J.; Miralles, N.; Garai, E. eta Etxeberria, L. (2019). *EAEko demokrazia patriarkala. Lan ordaindua, lan ez ordaindua, ongizate erregimena eta eremu sozio-politiko*. Gasteiz: Emakunde,
- Gurrutxaga, A. (2018) *Enarak*. Oñatiko Udala.
- Hernandez, J; Esteban, M eta Bullen, M. (2016). "Feminismoa, euskal antropologiaren akuilu eta elikagai: 30 urteko ibilbide oparoa". In Esteban, M.; Hernandez, J. (koord.), *Etnografia feministak Euskal Herrian*. XXI. *Mendera begira dagoen antropologia*. UEU-EHU.
- Hochschild, A. (2001). "Las cadenas mundiales de afecto y asistencia y la plusvalía emocional". In Anthony Giddens y Will Hutton (Eds.). *En el límite. La vida en el capitalismo global*, 187-208. Bartzelona: Tusquets.

- Imaz Arrondo, A. (2019). *Lehenago eta oraingo Ataun. XVI. mendetik XXI. mendera bitarteko lanbideak. Inazio Munduate Arruabarrenak artxiboetan aurkitutako dokumentuetatik*. Ataun: Ataungo Udala.
- Larrañaga Sarriegi, M. (2013). "Algunas claves de la economía feminista", in Mundubat, *Alternativas feministas frente a la crisis*, Donostia.
- Legarreta Iza, M. (2008). "El tiempo donado en el ámbito doméstico. Reflexiones para el análisis del trabajo doméstico y los cuidados". *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 26 (2), 49-73.
- L. Gil, S. eta P. Orozco, A. (2011). *Desigualdades a flor de piel: cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y políticas públicas*. 187-208. Madril: Traficantes de sueños.
- Lleó, R., Santillan, C., Lopez, S., Perez, A. (2012). *Eztabaida feministarako kaierak: Zainketak*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Llona, M. (2006) "La construcción de la identidad de clase obrera en el País Vasco. Género y respetabilidad de clase, dos realidades inseparables". Vasconia: Cuadernos de historia y geografía. 35. zk., 287-300.
- \_\_\_\_\_ (2010). "Historia en obras: memorias, emociones y subjetividad". In *Subjetividad, cultura material y género: Diálogos con la historiografía italiana*, 153-169, Bartzelona: Icaria.
- Maldonado, T. (2020). "Las tareas del feminismo actual". *Viento Sur. Por una izquierda alternativa*, 169, 103-116.
- Maquieira d'Angelo, V. (2001) "Género, diferencia y desigualdad". In Beltrán, E.; Maquieira, V. (koord.) *Feminismos: debates teóricos contemporáneos (127-190)* Madril: Alianza.
- Martín Casares, A. (2006). *Antropología del género: culturas, mitos y estereotipos sexuales*. Madril: Cátedra.
- Mcbrige, T. (1984). "El largo camino a casa: el trabajo de la mujer y la industrialización". In M. Nash (arg). *Presencia y protagonismo. Aspectos de la historia de la mujer (122-137)*. Bartzelona: Serbal.
- Morant Deusa, I. eta Bolufer Peruga, M. (1998). "Las mujeres y la familia: destino, naturaleza y vocación". In Hernández Sandoica, H. (Zuz.). *Amor, matrimonio y familia. Historia universal moderna. (191-240)* Madril: Síntesis.
- Martinez Bujan, R. (2011) "La reorganización de los cuidados familiares en un contexto de migración internacional". *Cuadernos de relaciones laborales*, Vol. 29, 1, 193-223.
- Nash, M. (2012). *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*. Madril: Alianza Editorial.
- Nogueira, J. eta Zalakain, J. (2015) *La discriminación múltiple de las mujeres inmigrantes trabajadoras en servicios domésticos y de cuidado en la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Gasteiz: Emakunde.
- OIT (2018). *El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado. Para un futuro con trabajo decente. Resumen ejecutivo*. Eskuragarri hemen: [https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms\\_633168.pdf](https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_633168.pdf)
- Ortiz, D. (2018/09/18). "El feminismo blanco eurocéntrico". *Lector relector*. Eskuragarri hemen: <https://lectorrelector.wordpress.com/2018/09/18/el-feminismo-blanco-eurocentrico-por-daniela-ortiz-y-magda-de-santo/>
- Oxfam Internacional (2020) *Tiempo para el cuidado. El trabajo de cuidados y la crisis global de desigualdad*. Eskuragarri hemen: <https://oxfamilibrary.openrepository.com/bitstream/handle/10546/620928/bp-time-to-care-inequality-200120-es.pdf>
- Perez Orozco, A. (2006). "Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico". *Revista de economía crítica*, 5, 7-37.
- Pérez Díaz, V. (1971). *Emigración y cambio social*. Madril: Ariel.
- Prieto Gallego, Z. (2017). *De pueblerinas a chicas de ciudad: Trayectorias vitales y corporales de mujeres emigradas durante el éxodo rural del tardofranquismo*. (Master Amaierako Lana), UPV/EHU. Eskuragarri hemen: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/31403/TFM%20Zuri%20c3%b1e%20Prieto.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Retolaza, I. (2012). "Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak". In Chueca, J. et. al. (arg.), *Emakumeak, hitza eta bizitza*. Bilbo: EHU.
- Rial García, S. (2003). *El trabajo de las mujeres del campo en la Galicia Moderna*. AEIHM Asociación Española de Historia de las Mujeres.
- Roco, T. (koord.) (2018). *Trabajadoras no domesticadas. Diagnóstico participativo y Plan de Acción Integral*. Bilbo: Mundubat.

- Rodríguez Oñatibia, A. (2014) *Migrazio prozesu gisara: biziraupen estrategiak eta identitate berreraikuntzak 6oko hamarkadako migrazioen harira*. (Master Amaierako Lana). UPV/EHU. Eskuragarri hemen: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15049/Amaia%20Rodriguez%2c%20Migrazioak%20prozesu%20gisara.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- \_\_\_\_\_ (2019/02/24). "Biziraupenerako zaintza". *Argia Aldizkaria*. Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2633/inudeak>.
- Romo Parra, C. (2005). "El desorden de la identidad persistente. Cambio social y estatus de la mujer en la España desarrollista". *Arenal. Revista de Historia de las mujeres*, 1, 91-109.
- Scott, J. (1993) "La mujer trabajadora en el Siglo XIX". In G. Duby y M. Perrot (Zuz.). *Historia de las mujeres. El siglo XIX*. IV. lib., (427-461). Madril: Taurus.
- \_\_\_\_\_ (1996). "El género: Una categoría útil para el análisis histórico". In Lamas, M. *El género: la construcción cultural de la diferencia sexual*. (265-302). Mexiko: PUEG.
- Saenz del Castillo, A. (2020) "Sin descanso. El servicio doméstico durante el franquismo". Bartzelona, Icaria Editorial.
- Sagastizabal, M. eta Legarreta, M. (2016). "La "triple presencia-ausencia": una propuesta para el estudio del trabajo doméstico-familiar, el trabajo remunerado y la participación sociopolítica". *Papeles del CEIC*, 1. lib., 151, (1-29). CEIC (Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva), UPV/EHU.
- Sagastizabal, M. (2020) *Hiruki gatazkatsua*. Lisipe, Susa.
- Sánchez Jiménez, J. (1982). *Del campo a la ciudad. Modos de vida rural y urbana*. Madril: Salvat.
- Sarasua, C. (1994). *Criados, nodrizas y amos. El servicio doméstico en la formación del mercado de trabajo madrileño, 1758-1868*. Madril: Siglo Veintiuno
- Sau, V. (1995). *El vacío de la maternidad: madre no hay más que ninguna*. Bartzelona: Icaria ediciones.
- Sortzen eta Mujeres Con Voz (2014) *Acoso sexual y mujeres migradas. Estudio cuantitativo sobre la percepción del acoso sexual por parte de las mujeres migradas*. Eskuragarri hemen: <http://www.feministas.org/IMG/pdf/informe-acoso-sexual-y-mujeres-migradas.pdf>
- Ugarte, M. (2014) *Oñatiko kriaden berbetia: hitz eta esalmolde hautatuak*. Euskal Filologia Gradua. Deustoko Unibertsitatea.
- Varela, N. (2005). *Feminismo para principiantes*. Bartzelona: Ediciones B.
- Vivas, E. (2019) *Mama desobediente. Una mirada feminista a la maternidad*. Capitan Swing.

---

## DATUAK

Ikuspegi (2020) 2020ko Barometroa. Eskuragarri hemen: [https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020\\_cas.pdf](https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2020/bar2020_cas.pdf)

Eustat (2018) Etxeko lanen Kontu Satelitea.

\_\_\_\_\_ Euskal AEko biztanle okupatuen mendeko pertsonak, lanalditik kanpoko zainketaren arabera ezauzgarri soziodemografikoen arabera.

\_\_\_\_\_ Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko pertsonentzako zaintza motaren, egun kopurua-ren eta sexuaren arabera. EAE.

\_\_\_\_\_ 2020ko martxoa. Etxeko eta zaintza lanak.

ATH-ELE. Etxeko langileen datu estatistikoak 2019/2020.

Emakunde (2019) 2018ko zifrak, emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoak.



